

Isabel Guridi: bizitza eta lana ikusgai



Guridi, museoan. | IBARRAUNDI

Eskoriatzako ondarea, kultura eta ohiturak berreskuratzeko egin zuen lana gogora ekarri dute erakusketa baten bitartez haren herrian, Eskoriatzan, Ibarraundi museoan. | 6

ANTZUOLAKO JAIK

Gehigarri berezia erdialdean | 17



Jendea aurkezten ez bada, Oñatin umeen danborradarik ez | 14



Ainara Ortega abeslariaren jazz erritmoak Bergarako Berumugan | 32



Eibarrek Atxabalpen hasi du denboraldia

Arrasateko eta Bergarako futbol zelaiak erabiliko ditu denboraldi berrian ere entrenamenduetarako | 10

Eibar taldeko futbolari eta entrenatzaileak, areto futboleko Mondrate taldearen udako campuseko neska-mutikoekin, eguaztenean Atxabalpen.

XABIER URZELAI

SINADURAK

	Kontraesanen garaia 5 OIHAN VITORIA
	5 Oporretan, nora? OIHANA ELORTZA
	Gora, San Juan! 8 IBON ARRUIPE
	12 Ixo! ASIER ELORTZA
	ETB eta hizkuntza 15 MIEL GURIDI
	27 Balzolaaren unibertsoa YERA SANCHEZ
	Donostiatik 40 AINTZANE OIARBIDE

Autobidea erabat zabalik hilaren 20rako

Eskoriatzan luiziak eragindako kalteak konpontzeko lanak bukatzean | 2



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Erreportajea: okelarik bako dietak jarraitzen
- Greenpeaceko kide Julio Bareari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

si, ya estoy en casa con Jokin...

si, ya estoy en casa con Jokin...

...que si puedes traer algo para cenar, ¿vale?

...afaria erostea zure kontu, ados?

Zer ikusi hura egin

EREDU IZAN

Gure etxean euskaraz!

Hilaren 20rako ireki nahi dute Eskoriatzan AP-1 errepidea erabat

Terrenoa finkatzen amaituko dute aurki eta jausitako lurra eta harriak kenduko dituzte ostean

GOIATZ ARANA | ESKORIATZA

Aurreko Aldunditik adierazi bazuten ere uztailearen 15era arte iraungo zutela luiziak eragindako kalteak konpontzeko lanek, beste amaiera-data bat eman dute egungo foru ordezkariak: uztaileak 20. Egun horretarako, gutxi gorabehera, espero dute obra bukatzea, eguraldiak laguntzen badu; euriak lanak dezentzera atzeratzea ekarriko luke.

Hiru fasetan ari dira egiten lanak: lehenengoa bukatuta dago; bigarrena, bukatzeaz; eta hirugarrena espero dute uztailearen 20rako amaitzea. Gipuzkoako Foru Aldunditik emandako informazioaren arabera, hirugarren fase horretako lanak egiteko terrenoa finkatuta dago, eta, lurrak kentzean, bidea bi noranzkoetan irekiko dute.

Martxoa ezker bide bana

Martxoaren 3an gertatu zen lehen lur-jausia AP-1 autobidean, Eskoriatza inguruan, Gasteizerako

norabidean; lurra, harriak eta zuhaitzak jausi ziren errepidera. Ondorioz, eta lur-jausi gehiago izateko arriskua zegoela-eta, erabat itxi zuten errepidea. Baina makina-hondeatzaileak berehala hasi ziren eroritakoa kentzen, eta biharamunean bi noranzkoetan bide bana ireki ahal izan zuten.

Toki berean, gasolindegia dagoen lekutik gertu, bigarren luizi bat izan zen handik hamar bat egunera, eta, segurtasuna bermatze aldera, itxi egin zuten berriz ere tarte hori: Eskoriatzako lotu-netik Lukura arteko tarte. Martxoaren 25era arte zeharo itxita egon zen autobidea, baina hurrengo egunean noranzko bakoitzeko bide bat ireki zuten, *by-pass* bidez.

Garbiketa eta konpontze lanek luze jo zezaketela aurreikusita, uztailearen 15erako amaituko zituztela azaldu zuten orduan, baina, gauzak ondo bidean, AP-1 autobidea uztailearen 20aren bueltan itzuliko da erabateko normaltasunerara tarte horretan.



Mikel Uribetxebarria. | GOIENA

Diputazioa Mikel Uribetxebarria aretxabaletarra

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETARA

Mikel Uribetxebarria aretxabaletarra izendatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari. Aintzane Oiarbide diputatuaren departamentuan ariko da, horrenbestez.

Uribetxebarria zinegotzi da gaur egun Aretxabaletan. Kiroleko batzordeburua da. 2003-2007 agintaldian ere izan zen zinegotzi eta kirolaren ardura izan zuen orduan ere. Aurreko agintaldian alkategaia izan zen eta azkeneko lau urteetan ere zinegotzi izan da. Ingeniari tekniko industrialia da eta Cegasa taldean aritu da lanean, 1992tik 2014ra arte. 48 urte ditu eta seme-alaba biren aita da.

Oñatin grabatuko duten 'Kantugiro' saioan parte hartzeko jendea bila

ETB1eko *Kantugiro* karaoke saioa Oñatin izango da uztailearen 12an, domekan. Zuriñe Hidalgo -Hesian taldeko abeslaria- eta Xabin Fernandezek gidatutako saioan parte hartzeko jendea behar dute. Horretarako, 626 18 14 17 telefonora deitu edo *whatsapp*-a bidali, edo *kantugiro@eitb.eus* helbidera idatzi behar da.

Aizkorri-Aratzen gaineko batzarrera deitu dituzte lursailen jabeak

Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu eta horri dagozkion kontserbazio neurriak onartzen dituen Dekretu Proiektuari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago abuztuaren 13ra arte. Hori dela-eta batzarrera deitu dituzte lursailen jabe edo abeltzainak uztailearen 16rako, 19:00etan, Apotzagako elkartearen.



ENEKO AZKARATE

Hogeigarren urtez Lezetxikin

Hogeigarren kanpaina dute Lezetxikin uztaileko indusketa lanetan. Alvaro Arrizabalagaren aginduetara, 23ra arte egongo dira hogeitaz gazte boluntario. Egunero bederatzirdu egiten dute lan. Udalako aterpetxean pasako dute hilabetea. Animalien -hartza- eta gizakien hezurdurak aurkitu izan dituzte bertan eta aztarnategiak oraindik ere altxorak gorde ditzakeela adierazi du arkeologo oñatiarrak.

URTEKO AUTORIK ONENA IRAULTZA DA.
EZ DA AUTO BAT.



www.citroen.es



CITROËN C4 CACTUS,
URTEKO AUTOA ESPAINIAN.

ABC
MILISECUNDORIKO
2015

Citroënek nahiago du TOTAL

KONTSUMO MISTOA : (L/100 KM)/ CO2 EMISIOA(G/KM):
CITROEN C4 CACTUS: 3,1-4,7/82-107

Hasiera baten, autoa dela ematen du. Besterik barik. Baina ondo begiratuta, pentsatzeko beste modu bat da. Automozio-konzeptu iraultzailea, aurrekoa hausten duena. Ideiak zure beharrei egokitzeko. Mugikortasuna, dibertsioa eta konfiantza lau gurpilen gainean eta detaile askoren mikrokosmosa, zure bizimodua arinagoa izan dadin. Batzuetan iraultza honelakoa da: arina, suabea eta kolorez bete.

CREATIVE TECHNOLOGIE



TALLERES CHAPIME

San Andres 5
ARRASATE - Tel.: 943 79 45 22

IK4-Ikerlanek beste 30 langile eta doktoregai izango ditu aurten

Aukeraketa prozesua otsailean hasi zen, kudeaketa planari jarraituz

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko IK4-Ikerlan ikerkuntza zentroak 30 langile eta doktoregai berri izango ditu urte bukaerarako. Sarrera horiek egitea zentroaren aurtengo kudeaketa planean aurreikusten ziren. Aukeraketa prozesua otsail inguruan hasi zen eta dagoeneko kide berri batzuk baditu IK4-Ikerlanek, baina postuen erdiak oraindik bete gabe dituzte. IK4-Ikerlaneko Pertsonen Saileko arduradun Jon Etxeberriak honako hau dio: "Ez da ezohiko prozedura, urtero pertsona dezente inkorporatzen direlako; aurten, urte hasieran, gure kudeaketa planean jarri genuen helburu hori, 15-20 senior inkorporatzea eta beste 10 bat doktore-tesia egitera".



Bi doktoregai IK4-Ikerlanen. | GUK

ESANAK

"Bikainenena bila gabiltza; beraz, klaseko onenak nahi ditugu, espediente onenak"

JON ETXEBERRIA | IK4-IKERLANEKO PERTSONEN ARDURADUNA

Nahi baino ingeniari gutxiago
Zehazki, ingeniari tituluak behar dituzte, adar hauetakoak, beste batzuen artean: software, elektronika, mekanika, potentzia elektronika eta telekomunikazioak. Etxeberriaren esanetan, "ondo formatutako ingeniariaren gabezia dago: matrikulazioak %6 jaitsi dira aurten Estatuan, eta eskaera gorantz doa". IK4-Ikerlanek "klaseko onenak" nahi ditu;

beraz, espediente onenak aukeratuko ditu.

Batez beste, 45 doktoregai
IK4-Ikerlanek doktore-tesia bertan egin nahi duten jendea ere hartuko du; azken urteotan, batez beste, 45 halako izan dituzte. Horietatik %15-20 bertan geratzen dira eta besteak IK4-Ikerlanen bezeroekin lanean hasten dira. Seniorrak, aldiz, bezeroei teknologia transferitzeko lanetan ibiltzen dira, edo etorkizuneko teknologia garatzeko lantaldeetan sartzen dira.



EUSKO JAURLARITZA

Lehendakaria Polmetasan

Arrasateko Polmetasa enpresak 60. urteurrena ospatu zuen hilaren 3an. Iñigo Urkullu lehendakaria bertan izan zen; langileak zoriondu eta esan zuen "eredugarria" dela enpresa, elkarlana, parte-hartzea, nazioartekotzea edo berrikuntza erabiltzen dituztelako.

Lan istripuak salatzeko kontzentrazioa egin zuten ArcelorMittalen

Langile komiteak deituta, elkarretaratzea egin zuten martitzenean Bergarako ArcelorMittal enpresako langileek, lan istripuak salatzeko. Berezi, azpikontratazioak arbuaitu zituzten. Hilaren 14an lanuztea egingo dute 13:00etatik 15:00etara, elkarretaratzearekin.

Zelaia: "Espainian ere gerta daiteke Grezian gertatzen ari dena"

Grezian gertatzen dabilena Espainian eta Euroguneko herrialde periferikoetan gerta daitekeela esan zuen Ekai Centerreko Adrian Zelaiak Goiena telebistan, Espainiako zorra, zor pribatua kontuan izanda, Greziarena baino handiagoa delako. Elkarriketa: goiena.eus/debagoiena/1436288522758.



triathlon
Vitoria-Gasteiz
FULL & HALF • 12 JULY 2015

VITORIA-GASTEIZKO TRIATLOIA UZTAILAREN 12AN

Vitoria-Gasteizko Triatloaren bederatzigarren edizioak inoizko parte-hartzerik handiena izango du, izan ere **20 herrialdetako 2.100 triatleta** izango ditugu gure artean.

www.triathlonvitoria.com

DEBAGOIENETIK LANDARA JOATEKO AUTOBUSAK DOAN

2 autobus antolatu dira triatloia ikusi nahi duenarentzat:

7:15 Arrasate: Garibai • 7:25 Aretxabaleta: Azbe • 7:28 Aretxabaleta: Portasol • 7:35 Eskoriatza: Erdigunea • Landara iritsiera: 7:50
Lantatik itzulera: 10:30

Zenbait errepide tarteka itxiko dituzte eta beste batzuk itxita egongo dira txirridulari proba martxan dagoen bitartean. Murrizketek eragingo dute Ullibarriko urtegiaren inguruan eta Landa eta Garaioiko parke probintzialetan.




BABESLE NAGUSIA /



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

BABESLEAK /



www.alaia.net

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LAGUNTZAILEAK /



UDA KO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



NEREA MENDIOLA. 2014ko Sari Nagusiaren irabazlea.



XABIER URTEAGA. 2014ko Bigarren Sariaren irabazlea.



ITXASO KALBANO. 2014ko Hirugarren Sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.eus helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan beharko dute.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera *Puntuak* aldizkarian eta *Goiena.eus*-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia osatuko dute Goienako eta Begira argazki dendako kideek, eta hartuko dituzte kontuan argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, [facebook.com/udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kaliterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.

- 24 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-12.800 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

Begira
argazkilaritza

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosapareak.com

ZABALIK



OIHAN VITORIA
goiena.eus/komunitatea/

Kontraesanen garaia

Nor bere zilborrari so bizitzeko garaia, baita aldamenekoari usu eskua luzatzeko. Ados jartzeko istantea omen, egoskorkeria oro alboratu, interes pertsonalak nola edo hala ezkutatu, gehiengoarenak lehenetsi eta lankidetzaren jardutekoa. Indarrak metatzeko unea: damutzeko garaia eta harro sentitzeko; elkar besarkatzeko garaia eta banantzeko.

Ilusioa berpiztu eta kateak hausteko momentua. Bidea urratzeko eta hari muturrak elkarren artean josteko sasoi, baina prestutasunik eza (des)erosotasunetik at bizitzeko. Askatasun egarriak jota gogoak bat-batean asetzeko unea, eta inolako presarik ez edukitzeko. Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko garaia, baina independentzia itxaron gelan zarratzeko erreparorik ez izatekoa, mirarizko terapiaren esperoan, bere txanda noiz ailegatu.

Katalunia, Eskozia (eta Grezia) eredutzat hartzeko istantea, baina haiengana hurreratzeko pauso bakoitzeko are gehiago urrutzeko garaia. Urtero-urtero performance aberrikoi ikusgarriak atontzen abilezia erakusteko sasoi, ez horrenbeste ekintzetan egikaritzeko. Zapaltzaileekiko jarrera leundu eta limurtzeko momentua, haiekin zorretan bageunde bezala. Eta geurea behar lukeena galdegiteko unea: hegan egitekoa, baina geure buruari hegoak ebakitzen jarraitzeko.

Kritika (eraikitzaileak) egiteko sasoi, hitz larria nonahi sobera entzutekoa; ez, ordea, taxuzko proposamenei tokia egitekoa. Erraietara heldu nahi, eta erdibidean geratzeko istantea: dena esan nahi eta ezer ez esateko garaia, harriak bota eta jasotzeko. Euskararen alde egoteko garaia, ez hainbeste egitekoa, eta burujabetza prozesuan bazter uztekoa. Isiltzeko garaia eta mintzatzeko. Atzera bueltarik ez dagoela haizatzeko unea, eta kontraesanen putzuan honoa jotzeko kasik.

Hain ohituta gaude ukaziora, ezen keinurik nimitsoena ere txalotzen dugun sarritan, datorren tokitik datorrela. Nago hobe joango litzaigukeela zapaltzaileen jokoari bizkar emango bagenio, eta geure neurrira eraikiko bagenitu herri honetako zubiak, amnesia amildegian erori ordez. Aldaketarako garaia dela, bai, baina aurrekoarekin eraisteko ere bai: erronka berriei ekitekoa, haziak ereiteko eta gu izatekoa. Landatzeko unea eta sustraietatik irteteko: arriskatzeko garaia.

USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.eus

Oporretan, nora?

Zenbat eta gutxiago falta oporrek hartzeko, orduan eta luzeagoa egiten ei da itzarotea. Aste honetan neuk ere esan dut hori. Izan ere, udako oporretako planen kontuak izaten ari dira egun hauetan kafe orduko berbagaiak. Kanpinera batzuk, oraindik ezer hartu gabe beste bat, hiru plan ezberdin dituen bat ere ezagutzen dut, abuztuan bere etxea alokatuta lortutako diruarekin oporretara joaten dena... Eta horretan, oporretan etxe trukatzeko egingo dutela esan dit lagun batek aste barruan. Bigarrenez egingo ei dute. Ideia ausartak iruditu zaizkit azken biak. Eta berehala zalantza; ausartuko ote nintzateke ni? Behin zalantza sortuta... ez dakit ba!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Deba ibaiaren arazoak

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Erne! Ibaia kolore arraroarekin edo animaliak hilik ikusiz gero, 112 zenbakira deitu, gai horretarako egin beharrekoak martxan jartzeko.

Trailean lau urte beteko dira Bergaran hondamendi ekologikoa gertatu zenetik; lehenik ahateak eta gero arrainak hilik agertu ziren, arduradunik ez da azaldu, berriz ez gertatzeko neurririk ez da hartu, eta hurrengo isurketa noiz izango den zain gaude.

Udara begira lantegietan mantentze-lan gehiago egiten dira, hondakin gehiago sortzen dira eta ibaira isurtzeko tentazioa handia da, diru pixka bat aurreratzeagatik.

2013ko abenduan Gabonetan, jarduera industrialik ez zegoela, Osintxu eta Elgoibar artean arrainak hilik azaldu ziren; ur asko zeraman sasoiaren zen, eta arduradunik ez da azaldu.

Beste arazo bat kutsadura biologikoa da, kanpoko landare eta animaliak baititugu; adibidez, Deba ibaia da Gipuzkoatik bisoi amerikarra gehien azaltzen den tokia, eta Bizkaiko eta Arabako egoera okerragoa da: bisoi amerikarrek bisoi europarrak baztertu edo hiltzen dituzte.

Bisoi europarra babesteko, bisoi amerikarra kendu beharra dago; kanpaina hori Europa mailan dago antolatuta eta Gipuzkoako ibaien ardura Gipuzkoako Foru Aldundiak dauka. Kanpaina burutzeko, boluntarioen lana ezinbestekoa da; horrenbestez, boluntario izatera animatzen zaitut.

Esan bezala, aurtengo egoera okerrera udako hilabeteetan etorriko da; beraz, denok begiak zabalik, eta Deba ibaian zerbait arraroa sumatuz gero, 112 zenbakira deitu.

Lustre-zapia

Anjel Lertxundi
<http://goo.gl/dmFnRP>

Ziklikoa da: gai bat nagusitzen da albisteen mapan eta

albistearen entzierroan korritzen dugunok gogo biziz eusten diogu gai berriari korrikalari naufragoak zezenaren adarrari eusten dion irmotasun beraz.

Baina murmuak jota geunden aurtengo panorama ezin tristeagoaren kulpaz: hauteskundeetatik gentozen, hauteskunde berrietara gindoazen.

Baina bat batean, irrintzi bat iritsi zaigu Greziatik *oxi-ka!*

Eta gu, zoratzen: Greziak mila aukera ematen dizkigu erreferentzia kultuak egiteko, lustre-zapi bat atera eta Polifemo zokormazoaren kontrako Ulisesen pikardia distirarazteko, Sokratesen zikuta hizpide hartzeko, Zeus dirua balitz bezala irudikatu eta Europa nola bahitzen duen (d) irudikatze, irakurleak Delfoseko orakuluarengana eramateko...

Hau betekada, Zeus handia!

Baina joan berri diren eta laster etorriko diren hauteskundeek ez bezala, gure (ustezko) kulturaren lustrea erakusteko parada digun bitartean, Grezia *nai* eta nahi!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena⁴
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otarora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Isabel Guridiren lana jasotzen duen erakusketa

Museo eskola sortzeaz gain, ohiturak berreskuratu eta herriko ondarearen alde borrokatu zen

J. BILBAO/I. BELOKI | ESKORIATZA

Isabel Guridi Biain (1941-2015) Eskoriatzako San Juan kalean jaio zen azaroaren 9an. Gasteizko kantu akademia baten ikasten zebilela, bere aitak istripua izan zuen, eta 13-14 urterekin lanean hasi behar izan zuen aitaren aluminio tailerrean. Lehenengo, txatarra saltzen hasi zen, eta ondoren, oinarrizko batxilergoa bukatu zuenean, lantegiko arduraren bereganatu zuen.

Bizitza Eskoriatzaren eta Alacanten artean eman zuen: "Hemen go lantegia utzi eta Alacanten beste bat muntatu zuen. 21 urterekin Eskoriatzara itzuli zen nire aitarekin ezkontzeko, eta ondoren Alacantera bizi izatera joan ziren. Zazpi urte eman zituzten han", azaldu du Maite Urtzelaik, Isabel Guridiren alabak.

Pasioak uztartzen

Alacanten eta Eskoriatzaren hainbat gizarte mugimendutan parte hartu zuen, eta, bost seme-alaba izan ostean, Isabel Guridik bere bi pasioak uztartzeko aukera izan

zuen: etnografia eta historia, alde batetik, eta hezkuntza, bestetik. Bere bi pasioak uztartzeko eta aurrera eramateko, Puerikultura eta Irakasle ikasketak burutu zituen.



Isabel Guridi eta Jose Urtzelaik ezkontza egunean 1963an. | IBARRAUNDI



Isabel Guridi Biain, Hidalgo kaleko 5. zenbakian —behean— zegoen Eskoriatzako Museo Eskola

Museo eskola

Kolaboratzaile gehiagorekin batera Eskoriatzako Museo Eskola sortu zuen; hezkuntza eredu berriak ezarri zituen eta bere garaiari aurre hartu zion. Museoa ez zen

Luis Ezeiza eskolako umeendako bakarrik egin, baizik eta inguruetako herrietako ikasleek ere bertako historia ezagut zezaten. Nola sortu zen, zer izan zen antzina, euskara, mitoak, legendak, lana-



Eskoriatzako lagunekin Alacanten egun batzuk pasatzen. | IBARRAUNDI

Goiena Klubeko uztaileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Musika katea X-EM12

Parte hartzeko sariaren izena:
Musika katea

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI



Denbora bere lekura Gerardo Markuletaren azken liburua

Parte hartzeko sariaren izena:
Liburua



Leize-zuloko misterioa Liburua.

Parte hartzeko sariaren izena:
Leize-zulo



www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
OSTATU BERRI

Sarrerak Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarreraren zozketa.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz

PARTE HARTZEKO: Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozalea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



San Juan bezpera

Isabel Guridi eta emakume talde bat, San Juan bezperan, udako solstizioan Axtrokira joaten ziren, eta bertan "ur bidezko sendaketa" egiten zuten. Berarendako oso toki berezia zen Axtroki. Errekasto baten hankak sartzan zituzten, San Juan loreekin, oreganoarekin eta mihiluekin sortatxo bat egiten zuten, gero etxean zintzilikatzeke. Gainera, aurreko urteko sorta hartu, paper batean gauza negatiboak idatzi, eta suari hiru buelta ematen zizkioten sutara bota aurretik. Kondairak dioen arabera, lore sortarekin gaixotasunak uxatzen dira, eta etxeak sorginengandik eta espiritu txarregandik babesten dira, etxearen osasuna zaintzeko asmoarekin. Urtea igarotakoan, sorta San Juan sura bota behar izaten da.



eskola (EME) zaharrean. | IBARRAUNDI



IBARRAUNDI

DANBORRADA Hasieran, ez zen emakumerik irteten danborradan, baina Isabel Guridik argi zeukan danborrada gerraren oroitza bat zela eta emakumeek ere gerra egin zutela. Horrela, Amuskak hainbat batailoi sortzea erabaki zuen, 1987-1988 urteen inguruan. Karroza ere Amuskakoen ekarpena izan zen, eta horretarako ideiak Isabel Guridik berak eman zituen.



GOIENA

ERAKUSKETA Ibarraundi museoan, Eskoriatzako toponimia aztertzen hasi zeneko garaitik egun musika eskolako sotoan zegoen museo txikira arte, egindako ibilbide oparoa jasotzen da, panelen eta argazkien eta dokumental baten bidez. Erakusketan, kukumarruen eta danborradako jantziak eta Isabel Guridik egindako hainbat aurkikuntza aurkituko ditu bisitariak.

besa, etnografia... Hori guztiori ez zen posible liburuetan ikastea, eta, galtzen hasi baino lehen, Eskoriatzako Udalarekin batera museoa egitea izan zen helburua.

Gainera, Jose Arana ikastolan eta Luis Ezeiza eskola publikoan ibili zen irakasle.

Kultura etxea

Zalbidegoitia jauregian eraikitzaile bat ehunka urte zituzten zuhaitzak botatzen hasi zenean, Isabel Guridik ikasleen amei

deitu zien, eta, lanak gelditzeko asmoarekin, makinaren aurrean jarri ziren: "Ahoz aho antolatu ginen. Isabelek denoi plazara etortzeko esan zigun, eta herritar ugari mobilizatu ginen. Makinen azpian eseri ginen, eta hurrengo egunean kanpaiak entzuten bagenituen denok berriro plazara etorri behar genuela esan zigun", azaldu dute Amuska emakume elkarteke bere lagunak. Erresistentzia ekintzak bi egun iraun zuten, eta orduko alkateak, Javier

Errastik, hainbat tramite egin ostean, Guardia Zibila lanak gelditzera etorri zen. Bertan egin behar zituzten etxebizitzak gelditu, Udalak eraikina erosi, eta kultura etxea jarri zuen bertan. Hura izan zen Amuska eratzeko giltzarri nagusienetakoa.

Ohiturak jasotzen

Isabel Guridik Eskoriatzako hainbat ohitura jasotzen eta erreperatzen parte hartu zuen: kukumarroak, Aratusteak, eskean

irteteko abestia... eta, era berean, museotik, hainbat eraikin eta elementuren jarraipena egin eta mantentze-lanak ikuskatu zituzten.

Erakusketa ekainaren 28an ireki zuten. Bertan, familia, txikitako lagunak eta hainbat herritar batu ziren. Baita berarekin lan egin zuten ugari. Horien artean: Aitzorrotz etnologia taldeko Eusebio Villar eta Javier Errasti. Biei urte askotako lana aitortzeko giltzatak bana eman zitzaizkien irudiekin oroigarri gisa.

Isabel Guridi Biain erakusketan uztailaren 9tik irailaren 30era arte egongo da ikusgai Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Erakusketa 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, egunero, eta 12:30ean dokumentalaren bideo emanaldia izango da. Bideoan, bere hiru seme-alaba, berarekin lan egin zuten hainbat, txikitako lagunak... testigantza ugari jasotzen dira. Ikus-entzunezkoan, bere lana ezagutzeaz gain, bere izaera islatu nahi izan dute.

EUSEBIO VILLAR
AITZORROTZ
ETNOLOGIA TALDEA



"Bere lorpen handiena museoan, neska-mutikoei tresnak ukitzen uztea izan zen. Narrauekin ibiltzen uzten zien, eta haurrak narra zatitxo bat etxera eroanda pozik geratzen ziren".

ANDONI URTZELAI
ISABEL GURIDIREN
SEMEA



"Eskolak emateko garaian ez zuten plangintzarik jarraitzen. Ekarpinak jasotzen zituen; liburu bat irakurtzean, edo pelikula baten ikustean... hauek haurrei irakatsiz".

MANU IZAGIRRE
GFA-KO ONDAREKO
TEKNIKARI OHIA



"Aitzindaria baino gehiago izan izan zela esango nuke, eta uste dut gaur egun ez dagoela Isabel Guridi bezalako pertsonarik, berak egiten zuena egiten duenik".

ARANTZA IREGI
MADINABEITIA
TXIKITAKO
LAGUNA



"5 urterekin edo ezagutu nuen, eta ordutik aurrera banandu ezin izan ginen. Jenio bizikoa zen, oso mugikorra, eta, gure irakaslea, mojak, nerbioak dantzan izaten zituen".

ALFREDO MORAZA
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEA



"Mila gauzatan sartuta zegoen Isabel, beti alde batetik bestera proiektu ezberdinetan. Baina esan beharra dago ez zela bera bakarrik, beti zuen lantalde bat bere atzean".

OMEGA
Urban
Service

24h



945 290 308
www.igogailuak.com
debagoiena@omegaurban.com

**Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak**
**Igogailuen
Mantentze-lanak**



Umeek eta hezitzaileek campusaren lehen egunean ateratako talde argazkietako bat, Mojategi futbol zelaian. | J.Z.

Balio hezitzaileak lantzen, futbola aitzakia hartuta

- Mondraren campusa hilaren 6an hasi zen eta hilaren 30era arte iraungo du
- Lau astean 100 umek hartuko dute parte; askotariko ekintzak egingo dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Campusaren helburu nagusia da umek ondo pasa dezatela. Hortik harago, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun balioak transmititu gura ditugu. Errespetua, laguntasuna, talde-lana, konpartitzea... Futbolearen ikastea aitzakia da balio hezitzaileak barnera ditzaten". Hitz horiekin deskribatu ditu Josu Zubiak Mondraren

futbol campusaren helburuak. Uztailaren 6an hasi eta hilaren 30era arte iraungo du campusak; askotariko ekintzak egingo dituzte, Donostiara txango eta guzti: "Futbolaz aparte, beste ekintza batzuk ere egingo ditugu eta adimen emozionala ere landuko dugu, adibidez. Martitzenetan eta eguenean futbolearen egin ostan igerrilekuek joaten gara eta eguaz-

tenetan Donostiara goaz skatea eta surfa ezagutzera", adierazi du Mondrako entrenatzaile eta campuseko arduradunak.

Ekimena errotu guran

Izan ere, mutikoen aukera dute aste baten, bitan, hirutan edo lau asteetan parte hartzeko. Horregatik, guztira, 100 mutiko inguruk hartuko dute parte fut-

bol campusean; Arrasatekoak gehienak, baina baita inguruko herrietakoak ere. Apirilean egin zuten lehenengoz, eta, izan zuen arrakasta ikusita -80 bat ume elkartu zituzten-, uztailean errepikatu egin dute: "Ekimena erroztzea da helburua. Apirilekoa ederto irten zen, orduan ezagutu gintuztenetako askok errepikatu egin dute-eta. Campusa handitzen joatea nahi dugu, Mondrarendako eta Arrasatrendako ona izango delako".

Mondraren harrobia lantzeko ere aukera "ezin hobea" da: "Gehienek datorren urtean futbol eskolan egoteko aukera izango dute. Ni ere eskolan egongo naiz laguntzen, gure metodologia txikitik barneratzea gura dugulako. Ez dugu bereizketarik egin nahi, ezin dugu ahaztu formazioarako urteak direla lehiaketarakoak baino gehiago", adierazi du Zubiak.

Laguntzaile talde "aparta"

Zubiak onartu du 100 ume domintzea ez dela lan erraza, baina, hezitzaile "apartak" dituenek, "askoz eramangarriagoa" dela: "Jokalariai dira, baina, batez ere, formazioan esperientzia dutenak".

Horietako bat da Mondrako lehen taldeko jokalaria ere baden Jokin Muxika: "Itzela da ikustea nola diren gai emozioak erabat aldatzeko. Negarrez egotetik irribarrearekin egotera pasa daitezke une batetik bestera. Esperientzia benetan aberasgarria da".

NIRE USTEZ

IBON ARRUIPE



Gora, San Juan!

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Arrasaten ere, ekainaren 24ko bezperan hasita San Juan jaiak ospatzen ditugu.

Kristautasunak, orain dela ia bi mila urte, askoz ere aitzinagotik zetorren udako solstizioaren ospakizunarekin bat egin eta egun horretan San Juan Bataiatzailearen ome-nezko jaiak ezarri zuen.

Tradizio horretatik sortuta, izaera profanoa eta erlijiosoa duten jaiak ospatzen ditugu gurean ere.

Tradizio horretan txertatzen da gaur egun jende askori ulergaitz egiten zaion erritu bat ere: udal ordezkariak udaletxetik elizarako bidea oinez egitea, San Juan Bataiatzailearen irudia elizara eramanez eta San Juan egunean, irudia bueltan udaletxera ekarri beharra aitzakiatzat hartuta.

Eta askok soilik erritu erlijiosoa ikusten duten tokian, nik erritu profano esanguratsua ere badagoela esango nuke. Herriko ordezkariok publikoan agertzeko erakustoki nabarmenena bihurtzen baita, udaletxetik Elizara bitartean lau aldiz egiten dugun *paseotxo*.

Egoerarik sentikorrena ere esatera ausartuko nintzateke.

Bertan ezagut gaitzaketa-lako herritarrek, gure aurpegiak ikusi, gure jarrerak aztertu edota gurekiko dituzten sentipenak adierazi.

Eta hori guztia, San Juan esker. Beraz... gora, San Juan!

Nobedadeak 2015-2016 denboraldiari begira

Ander Garai presidentek kargua utzi ostean, zuzendaritzako batzorde kudeatzaile batek gidatuko du Mondra: "Klubarekin lotura duen pertsona baten bila ari gara eta ahalik eta lasterren pertsona bat aurkitu nahi dugu. Erabakiak denon artean hartzen ditugu, baina presidentearen figura beharrezkoa da", dio zuzendaritzako kide Ramon Azkaratek.

Bestalde, erabakita dagoena da datorren denboraldian Mondrak Lehen Erregional Mailako taldea izango duela: "Gazte Mailatik hainbat jokalaria igoko direnez, beste talde bat egiteko moduan egongo gara. Uste dugu gazteek konpromisoa dutela eta hori ona da

lehen taldearendako". Honako hauek izango dira entrenatzaileak: Erregional Preferentean, Josu Zubia -futbol eskolarekin ere egingo du lan-; Lehen Erregionalan, Jorge Davila eta Ander Romero; Ohorezko Gazte Mailan Edorta Bolinagak ez du jarraituko eta ordezkari bila dabilta; Lehen Gazte Mailan, Juanjo Uribesalgo; Ohorezko Kadete Mailan, Iker Uribarren; Ohorezko Infantil Mailan, Jokin Muxika eta Xabi Arrizabalaga; eta Infantil Txikin -bi talde ateratzekotan dabilta-, Ander Ruiz de Azua eta Isei Barbero. Emakumeek talde bakarra izango dute, kadeterik ez da-eta egongo jokalaria faltagatik.

Andoni Ezkurra eta Rakel Modino izango dira emakumeen taldeko entrenatzaileak. Erregional Preferente Mailako taldeak iraileko hirugarren aste bukaeran hasiko du liga; emakumezkoek, ordea, azken asteburuan.

Denboraldia ia 2.500 euroko galerekin amaitu du Mondrak, baina, Udalaren diru laguntza jasotzeko dutenez, "arazo barik" saneatuko dituzte kontuak urtea amaitu baino lehen. 350 bat bazkide ditu klubak eta kuota mantendu egingo da, 70 eurotan. Aurrekontua igo egingo da izazko denboraldiarekin alderatuta, 131.000 eurotik 139.940 eurora.

Gainera, jantzi berriak izango dituzte datorren urtean: jokatzeko eta entrenatzeko jantziak -osorik-, poltsa, zira, poloa...

Greziakoa "demokrazia eta duintasun lezio itzela" dela dio Irabazi-Arrasatek

J.B. | ARRASATE

Uztailaren 2an Greziako herriarekin elkartzatzea, greziar austeritatearen aurkako plataformak deituta -EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik osatua-. Bada, uztailearen 5eko erreferendumean Greziak "ezezko borobila" adierazi ostean, Irabazik asteon ohar bidez zoriandu gura izan ditu greziarrak, "demokrazia eta duintasun lezio itzela" izan dela gaineratuta. Diotenez, "Europako Batasunak eta botere ekonomikoak ezarri nahi dituzten murrizketen" aurkako "garaipena" izan da, "xan-taiari eta troikaren mehatxuei"

aurre eginez, eta hori da, euren ustez, "jarraitu beharreko bidea".

"Ilusioa eta aldaketa"

Irabazik dio "austeritatearen zigorra pairatzen dabilzan herri guztiek jarraitu beharreko bidea" erakutsi duela Greziak, eta galdeketa emaitza "arnasa" izan dela "pobrezian murgiltzen dabilen krisialdiko Europan". Hain zuzen, "ilusioa" eta "aldaketa" aipatzen dituzte Irabazikoek, eta baita "demokraziaren ospakizuna" ere; Europaren erakuntzak "pertsonek, justizia sozialaren, bakearen eta ingurumenaren babesaren zerbitzura" joan behar duen heinean.



JOKIN BEREZIARTUA

Udalekuetako entzierro jendetsua

Txatxilipurdik antolatuta, sanferminetako entzierroa arrakastatsua izan da aurten ere. Bosgarren urtez Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako ikasleek ere egin zuten korrika zezenen aurrean; guztira, 250 umek. "Ondo" joan zen dena: "Ez da intzidentzia aipagarririk izan. Umeendako udalekuetako ekintzarik gustukoenetako bat da entzierroa".

"Izaera profanoa eta erlijiosoa duten jaiak ospatzen ditugu"

Bixente Barandiaranen gaineko erakusketa eguenetik zapatura

Bixente Barandiaran *Mentu* Arrasateko azken errementariaren lanaren gaineko erakusketa ordutegi berria du. Erakusketa Harresi aretoan dago eta, hain zuzen, honako hau izango da ordutegi aurrerantzean: eguenean eta egubakoitzean 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:30etik 13:30era.



Martitzenean kartelada berezia egin zuten Seber Altuben Arrasateko hiru senideei babesa adierazteko. | JOKIN BEREZIARTUA

Presoen senidea izatea ez dela delitua aldarrikatu dute Arrasaten zein Madrilen

Arkauzek, Sanpedrok eta Urrutiak lekuko gisa deklaratu dute, 'Mate' auzirako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal presoen abokatuen aurkako *Mate* auziaren barruan 14 senidek deklaratu dute asteon Auzitegi Nazionalan lekuko gisa, zazpi martitzenean eta beste zazpi eguaztenean. Horien artean Ramon Arkauz –Josu Arkauz anaia du espetxean–, Juan Mari Sanpedro –Premin Sanpedro presoaren aita da– eta Luis Urrutia –Aratz Gomez iloba

du kartzelan– arrasatearrek deklaratu zuten. Martitzenean pasazen Arkauz Eloy Velasco epailearen aurretik: "Fiskala presio handiz eta oso gogor zuzendu zitzaigun, gure senideen abokatuen gainean galdetuz; ea zergatik aukeratu genituen eta ze harreman dugun eurekin, zergatik aldatu genuen ordaintzeko metodoa... Abokatuen eta senideon arteko harremana kaltetu gura dute, gure artean liskarrak eragin. Esan diegu, behin eta berriz, senitarteko izatea ez dela delitua".

Abokatuei ordaintzeko kontratu berri bat egin dute azken urtean; hileroko 185 euro ordaintzen dute senideen artean, kasu bakoitzeko faktura ez dadin "oso handia" izan. Arkauzen arabera, "oso urduri" egon ziren eta auzi honek "luze" joko duela uste du. Bestalde, Etxerat elkartearen gaineko galderak ere egin zituzten.

Senideei babesa

Eguaztenean Juan Mari Sanpedrok eta Luis Urrutiak deklaratu zuten: "Abokatuak ordaintzeko kontratua zergatik aldatu dugun galdetu didate eta kontratu hori eskatu egin du fiskalak. Abokatuen eta senideon arteko harremana apurtzea gura dute; gure abokatuak esan digu dena ondo joan dela", dio Sanpedrok.

Auzitegi Nazionalaren atarian Amairreko diputatu Oihana Enbeitak eta Maite Aristegi bergararrak babesa adierazi zieten eta Donostiako Entzutegi Probintzialaren aurrean ere agerraldia egin zuen Etxeratek, senide izatea delitua ez dela aldarrikatzeko. Arrasaten, astelehenean agerraldia egin zuten EH Bilduko zinegotziekin –Baleikea eta Irabazik ere babesa adierazi diete senideei– eta martitzenean kartelada berezia egin zuten Seber Altuben.

ESANAK

"Fiskala oso gogor zuzendu zitzaigun; abokatuen eta gure artean liskarrak eragin nahi dituzte"

RAMON ARKAUZ | DEKLARATU DUEN SENIDEETAKO BAT



TXATXILIPURDI

'Freskura!' ekimenak, harrera ona

Uda hasierako eguraldi onak jende asko erakarri du Musakolako igerilekuetara, eta, horrek lagunduta, Txatxilipurdiren *Freskura!* ekimena harrera ona ari da izaten. Astelehenean egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara, jolasak eta irakurgaiak maileguan doan hartzeko aukera dago. Hartzaila gehienak haurrak eta gaztetxoak badira ere, adin guztiendako proposak diren jolasak, aldizkariak edota egunkariak eska daitezke.

Emakumeen Mundu Martxarekin bat egin guran

J.B. | ARRASATE

Bost urtean behin mundu mailan egiten den karabana feministaren europar besoa irail amaieran igaroko da Euskal Herriatik. Ekintza horrekin bat egin eta antolatzen hasteko, Arrasateko emakumeak ere ekintzara batu gura dituzte Ekin elkarteak. Kurdistanen abiatu zen martxa martxoaren 8an, Emakumeen Egunarekin bat eginez, eta Euskal Herriatik pasako da irailaren 28tik urriaren 4a bitartean. Tartean, urriaren 2an, Bergararik pasako da: "Euskal Herriko emakumeak eta eragileak martxan jarri gara ekintzak antolatzeko. Helburua da ekintza horiek tokian tokiko errealitatearekin bat egitea". Eguaztenean, hilak 8, egin zuten lehen bilera.

Mikel Arregi | Kazetaria

"Ukraina ekialdera itzuliko naiz beste bandoaren iritzia jasotzeko"

A.A. / J.B. | ARRASATE

Donbass gerra Europaren bihotzean izenburu izango duen Ukraina ekialdearen gaineko dokumentala egiten ari da Mikel Arregi kazetaria (Arrasate, 1985) Ibai Trebiñorekin batera. Martxoan Trebiñorekin egon zen Donbass eskualdean; oraingoa, bakarrik doa beste bandoaren bertsioa ezagutzera, Kievera.

Ukrainarabueltan zoaz. Zertarako? Duela hilabete batzuk, lagun dudana Ibai Trebiñok proposatu zidan berarekin joatea Ukraina ekialdera, gerrara, kazetari moduan lan egiteko. *Argia*-rako, *Berria*-rako eta Euskadi Irrati-rako egin genuen lan; hala ere, gure azken helburua da bertan batutako irudiekin dokumental bat egitea. Orain, horretan ari gara lanean eta pentsatu dugu proiektua borobiltzeko berriro joatea komeni dela. Irailean *Argia*-rekin batera abiatuko dugu finantziatorako *crowdfunding* kanpaina, Euskal Herrian. Horren arabera, ikusiko dugu dokumentala noiz kaleratu.

Zergatik Ukraina ekialdera?

2014ko otsailean estatu-kolpea izan zenetik prozesu politiko interesgarria bizi izan da Ukraina ekialdean. Krimea, independentzia aldarrikatu ostean, Errusian sartu zen eta 2014ko maiatzean gerra hasi zen Donbass eskualdean, herri altxamenduaren eta Kieveko gobernuaren erantzun militarren ondoren. Hori guztia bertatik bertara bizi eta jaso gura genuen eta esperientzia interesgarria bezain aberasgarria izan zen.



Mikel Arregi. | J.B.

Nola bizi da gerra bat barrutik?

Joateko erabakia hartzen duzunean badakizu egoera zailak biziko dituzula. Tarteka, egoera beldurgarriak bizi izan genituen, baina merezi izan zuen. Hango herri miliziekin ibili ginen, oso jende interesgarria.

Zein egoera bizi da gaur egun?

Otsailean su-etena sinatu zuten, Minsken, baina nazioarteko ikuskariek eurek onartu dute bi aldeetako batek ere ez duela hitza bete, ez duela kalibre handiko artilleria gerrako lehen lerrotik kendu. Nahasmen eta tentsio egoera da nagusi eta borrokak ere badaude tarteka, baina egun ez da iazko gerra egoera orokorrik bizi.

Zein da bigarren bisitarako plana?

Errusiar-zalea ez den ukrainar aldean ibiliko naiz. Beste bandoaren iritzia eta irudiak jaso gura ditut, Kiev hiriburukoak barne. Espainiako enbaxadari eskatu dizkiot kazetari moduan lan egiteko akreditazioak, baina ez didate erantzun, oraingoz.

Toki Argi elkarteak boluntarioek eskerrak eman dizkiete 'Busti zaituz!' kanpaina parte hartu zutenei

Uztailaren 5ean esklerosi anizkoitzaren kontrako *Busti zaituz!* kanpainaren barruan parte hartu zutenei eskerrak eman dizkiete Toki Argi erretiratu elkarteak boluntarioek: "Gure esker ona asko eman dutenei eta baita gutxi eman dutenei ere, lortutako arrakastatik, salmentei zein diru bilketari dagokionez. Eskerrik asko batez ere musakolarrei, salmenta postuko hurbiltasunagatik", dio Toki Argiko Emilio Hermidak. Aurten lortutako diru kopurua aurreko urteetan baino txikiagoa izan arren, 20.000 metro baino gehiago egin dira guztira igerian Musakolako igerilekuetan. Antolatzaileak pozik daude; aurten 18 boluntario ibili dira kirol-degi atariko mahaian zein kalean, itsulapikoarekin dirua eskatzen.

Kanadako eta Chicagoko koloreak

ARRASATEtik irteera

**Irailaren 23tik urriaren 6ra arte
12 gosari + 8 bazkari + 8 afari**

Prezioa pertsonako: 3.196 € + TASAK

Ibilbidea: Montreal • Quebec • Montmorencyko ur-jauziak • Sainte Anne arroila
Baleak begizatzea Mont Tremblant • Otawa • San Lorenzo ibaian bidaia
Toronto • Niagarako ur-jauziak • Londres • Ford museoa Detroiten
Chicago bisitekin eta Michigan lakuan bidaia.

Baldintzak eta informazio gehiago: 943 79 29 88

Halcon bidaiak.com

Olarte 14
ARRASATE



Eibarko atezainak lanean, eguazteneko entrenamendu saioan. | ENEKO AZKARATE



Campuseko ikasleak Atxabalpeko harmailetan, Eibarren saioa jarraitzen. | E.A.

Eibar Atxabalpen hasi da lanean datorren denboraldiari begira

E.A./J.B. | ARRASATE

Eibar futbol taldeak Atxabalpen ekin zion eguaztenean aurre denboraldiko entrenamendu saioei. Oraindik ere talde guztia osatzeke eta Lehen Mailan edo bigarrean ariko diren erabateko ziurtasunik barik, baina gorenekoan jokatzeko esperantzarekin ekin zieten prestaketei. Aurpegi berriak ikusi ziren Atxabalpeko berdegunean, Jose Luis Mendibilbar entrenatzailearena, esaterako. Harekin batera, iaz Gaizka Garitanorekin ibili zen Andoni Azkargorta antzuolarra ere.

Taldean hainbat aldaketa egongo dira, baina klubeko kirol zuzendari Fran Garagartzak Eibarren ezaugarriak diren "ilusioa eta lanerako gogoia" ez dire-

la faltako nabarmendu zuen. Iaz batez ere bigarren itzulian egindako akatsetatik ikasi dutela ere gaineratu zuen Garagartzak: "Hala ere, badakigu zeintzuk garen eta zelako zailtasunak dituen Lehen Mailan jokatzek. Hori bizi izan dugu". Entrenamendu saioetarako lehentasuna Atxabalpeko izango du baina Bergarako Agorrosin zelaia erabilgarri izango dute liga osoan.

Mondrateren Campusekoak Mondrate areto futbol taldeak lehen aldiz antolatutako campuseko ikasleak -63 umek eman dute izena, eta gaur bukatzen da- entrenamenduan egon ziren: "Umeak zein gurasoak gustura ibili dira; datorren urtean errepikatzea da gure asmoa", diote.

'Nordic walking' teknika ezagutzeko ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak uztaileari begira

Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzuak beste ikastaro bat antolatu du uztaileko hirugarren eta laugarren asteetarako. Askorendako berria izango den diziplina da, *Nordic walking* izenez ezaguna dena eta Europa iparraldetik datorren ibilketa teknika berezia. *Nordic walking* deritzon jardueraren bitartez, hankez gain gorpuzaren goialde osoa lantzen da. Musakola kiroldegian egingo dute, astelehenetan eta eguaztenetan -uztailak 20, 22, 27 eta 29-, 11:15etik 12:30era. Interesatuak uztailearen 17ra arte eman ahalko dute izena. Informazio gehiago eta izen-ematea: 943 77 16 77.



Mojategin egindako Nordic walking ikastaro bat. | ARRASATEKO UDALA

Flamenkoa eta jazz eskutik helduta gaur, egubakoitza, Jose Letona plazan

Antonio Lizana buru duen taldeak joko du (20:00), Udazabal ekimenari esker

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak antolatutako Udazabal ekimenaren barruan, proposamen interesgarria izango da gaur, egubakoitza, Jose Letona plazan (20:00). Antonio Lizana saxofoi-jotzailea eta abeslaria buru duen taldea dator, *De viento* disko abestiak eskaintzeko asmoz: "Flamenkoaren eta jazzaren arteko fusio ederra da, landutakoa eta ondo lortutakoa", adierazi dute Kultura Sailetik. Boskote moduan etorriko dira: Antonio Lizana (saxoa eta ahotsa), Vicent Thomas (bateria), Marcos Salcines (pianoa), Tana Santana (baxua) eta Epi Pacheco (perkusioa).

Cadiztik New Yorkerako 'bidaia'

Antonio Lizana Quintet taldearen zuzeneko "ozena, freskoa eta tinkotasun handikoa" izango da: "Bidaia bat izango da Cadiztik New Yorkeraino, neurritasun mezu batekin eta jai mezu batekin ere bai. Konbentzionalismotik harago Antonio Lizanak norabidea aldatuko du musikan estilo berri bat sortzeko, flamenkoaren eta jazzaren arteko fusio bat sortzeko". Eurria egiten badu, Kulturaren izango da kontzertua.

Gaurko emanaldiaz gain, bihar Sun Magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute arrasatearrek (ikus 32. orria), Udazabal ekimenari esker.

Martxa onean hasi da ekimena

Joan den aste bukaeran abiatu zen uztaileko asteburuetan Arrasateko kaleak kulturaz bustitzea



Antonio Lizana buru duen boskotea zuzeneko baten. | ARRASATEKO UDALA

helburu duen Udazabal egitasmoa. Hilaren 3an Arrasate Musikaleko Big Bandaren kontzertua izan zen lehen ekintza, eta, Kultura Sailaren esanetan, 500 bat lagun elkartziren Monterron parkean: "Eguraldia lagun, oso ondo egon zen kontzertua. Urtez urte gero eta maila hobea erakusten du Big Bandak, zuzenekoetarako berme bat dira honezkerok".

Uztailearen 5erako, bestalde, ekintza berezi bat antolatu zuten, Ziomara Hormaetxe eta Lasala dantzarien ikuskizuna Zaldibar pilotalekuan: "Zalantzak genituen

ea jendeak nola erantzun zuten, baina harritu egin gintuen ikusleak dantza garaikideak ere interesa pizten duela. Pilotalekuaren ia buelta guztian batu zen jendea. Ordu erdi inguruko emanaldia izan zen eta askori motza egin zitzaien". Dantza garaikidea ikusleentz aldetik izan dezakeen erantzunaren ikuspegitik proposamen "arriskutsua" dela diote antolatzaileek: "Askotan gertatzen da jendeak ez dituela halako dantzak ulertzen. Baina igual ez da ulertu behar, ikusi eta gozatzearrekin nahikoa izan daiteke".

Beroari aurre egiten Usakon, Udaixeri esker

GAZTEAK BIKAIN IBILI ZIREN domekan Usakoko bazterrak ikertu eta hainbat altueratik salto egiten. Udaixek ez du geldialdirik!

KOMUNITATEA GOIENA | GAZTE TXOKOAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE

GAZTE TXOKOAK

Los Galerna taldeak Arrasate tabernan joko du bihar, 20:00etan hasita

Los Galerna arrasatearren surf, rock-and-roll eta western doinuak entzun ahalko dira bihar Arrasate tabernan (20:00). *Sangre en el Atlántico* azken disko abestiak joko dituzte, besteak beste. Ez dira horiek uztailean herriko tabernetan ikusi ahalko diren zuzeneko bakarrak. Uztailearen 25ean, esaterako, Iskanbila talde ezagunak joko du Taupa tabernan.

Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:

- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com



Udalekuetako neska-mutikoak Laboratoriumen asteen. | LABORATORIUM

Laboratorium: uztail bukaerarako zabalik, inaugurazioa irailean

Hurrengo egubakoitzerako zegoen jarrita irekiera ekitaldiaren data, baina atzeratu egin dute

JULEN IRIONDO | BERGARA

Laboratorium museoaren azken prestaketa eta egokitze lanak Udaleko arduradun politikoen aldaketarekin pare-parean suertatu dira, eta azpiegitura berria inauguratzeko aurreko Udal Gobernuak ezarritako data aldatu eta irekiera ekitaldia irailean atzeratu dute arduradun berriek.

Duela zenbait aste aurreratu zuten Juanje Alberdi alkateak aukera hori, Goienari emandako elkarrizketan, argi utziz, betiere, halakorik gertatuko balitz ez litzatekeela inolako arazorengatik izango; Udaleko arduratarari iritsi berritan, denbora kontua zela. Azpiegituraren garrantzia eta proiektu honetan Udaleko

teknikariak egindako lana nabarmendu zituen Alberdik orduan.

Hil honen 17rako aurreikusita zegoen inaugurazioa irailaren 25ean egingo da azkenean. Dena dela, uztaillaren 30erako irekita eta ikusgai egongo dira museoko erakusketa iraunkorra eta aldi baterakoa; zentzu honetan, dagoeneko hasi dira esku-orrietan eta bestelako argitalpenetan Laboratoriumen berri ematen, udan jaso ditzakeen bisitariari begira.

Aldi baterako aurreneko erakusketaren zenbait xehetasun ere badira, gainera, dagoeneko. Bergara, Errege Seminariotik abiatuta, margolari eta margolari eskola tradizioidun herria izanda, Simon Arrietaren ikasleen erakusketa izango da lehena jarriko dutena. Kimikaren eta pinturaren arteko lotura ere erakutsiko da erakusketan.

Udalekuetatik museora

Erakusketak martxan jarri aurretik, baina, poliki-poliki zenbait ekintza egiten ari dira museoan. Laboratorium museoa *gizarte museoa* izango da, eta horren erakusle da bertan aurrera eramandako eta ekintzailetasun soziala sustatzea helburu duen *Berrekina, berregin* programa.

Horrez gain, eta museoa askotariko publiko edo erabiltzaileentzako espazio izango dela erakutsiz, aste honetan bertan, adibidez, herriko udalekuetako umeak ibili dira Laboratoriumen, zientzia esperimentuak eta egiten, besteak beste.

Aquaparkera joateko izena eman daiteke gaztelekuan



Neska-mutikoak Arcachongo aquaparkean. | XABALOTE

J.I. | BERGARA

Xabalote gaztelekuak hilaren 18an, hurrengo zapatuan, egingo du Arcachongo aquaparkera irteera. Badira zortzi bat urte irteera hori egiten dutela, eta klasiko bilakatu da. 06:00etan irtengo dira gazteak begiraleekin Bergararik, eta 21:00 ingururako bueltatuko dira. Irteera horren prezioa 20 euro da.

Eta hurrengoan Debara

Hurrengo asteburuan Debara izango da irteera. Hilaren 24an 15:00etan irtengo dira; Mendaron lo egin eta zapatu goizean surf ikastaroa edukiko dute Deban. Eguerdirako Bergarara itzuliko dira. 25 euro balio du irteera horrek. Izena Jardunen edo gaztelekuan eman daiteke gaur –barikua– edo bihar –19:00etatik 23:00ak arte egongo da irekita.

Protagonista berriak dantzan San Martzialen

J.I. | BERGARA

Ohiturari jarraituz aurreko domekan ospatutako San Martzialgo erromeriak izan zuen urterokoa ez den osagairik ere. Giroa, hori bai, bikaina izan zen, beti bezala. Kuadrillek egun ederra pasa zuten, elkarrekin jan-edanez, eta egitarauak zituenekin gozatu.

Berritasunei dagokienez, alkateak ez du aurtan dantzarik egin; Juanje Alberdi, baina, Izaskun Labaien zinegotzi eta alderdikideak ordezkatu zuten: "Oso-oso urduri nengoen, baina saiatu naiz, eta ondo atera da, gustura geratu naiz", zioen

Labaienek, dantza egin ostean; Maite Agirrek –EAJko zinegotzia hau ere– ere jardun zuen dantzan –baita Aiert Lizarralde ere; Irabaziko zinegotzia da udalbatzan.

Argazki masiboa

Bestetik, Arranoren eta Artatseren itxieraren kontra argazki masiboa ere egin zuten San Martzialgo festan, Libre ekimenak deituta.

Ehunka lagunek hartu zuten parte, eta, argazkiaz gain, traineruarena eta olatuarena ere egin zituzten; aldarrikapena, festa ukituarekin.



Izaskun Labaien, dantzarien artean. | ENEKO AZKARATE



Arranoren eta Artatseren alde egindako argazki masiboa. | E.A.



MIKEL LARRAÑAGA



SAN MARTZIAL OSTENKO PANORAMIA Astelehen arratsaldian San Martzialera igo giñen, domekan lagatako mahaixa eta trastiak batzera. Hara ailegautakuan, lotsia emoten zeban panoramiakin topau giñen, inguru dana basuraz beteta! Ondo dago juergan egittia eta ondo pasatzia, baiña gauzak topau dian moduan (garbi) lagatzia be ez dago bape gaizki. la datorren urterako ikasten dogun!

KOMUNITATEA GOIENA | BERGARA
MIKEL LARRAÑAGA RETEGI

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
Ezaburagerrri ere:
www.maltuna.com
Ezaburagerrri ere:
App Store

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA
Uztailaren 16tik 21era.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Ordutegia
08:00etatik 14:30era
15:30etik 18:30era

www.maltuna.com
maltuna@saremail.com

Jendearen emozioak azalerazi ditu 'Walkman' ikuskizunak Muniben

Marta Camon Botellaren flauta kontzertua eta Gari, Montxo eta Joselontxo izango dira egunotan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Adin guztietako jendea eta kopuru handian batu zituen eguzten arratsaldean Munibe plazan Ganso&Cia konpainiaren *Walkman* ikuskizunak. Hitzik gabeko clown saioa egin zuen Gorka Gansok, zirkuko zenbait adierazpideren bitartez.

Tarte gustagarri bat pasatzeko aukera izan zuten Muniben bildutakoek, irribarrea ezpainen. Askotariko emozioak azalarazteko moduko saioa da Gansorena. Eta guztia, esan bezala, hitzik gabe: baina baliabide hori ez erabiltzeak beste batzuk –keinuak, gorputza...– nola indartu ditzakeen ondo erakutsi zuen ikuskizuneko protagonistak.

Ia 100 saio egin ditu Ganso&Cia ikuskizun honekin, arrakastaz, Euskal Herrian eta baita atzerrian ere, eta Bergarako publikoa ere gustura utzi zuen.

Datozen egunetakoak

Datozen egunetarako, berriz, beste bi saio daude programatuta. Aurrenekoa martitzenean izango da, hilaren 14an: Marta Camon Botellaren flauta kontzertua, 19:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



Walkman ikuskizuna, eguaztenean, Muniben. | JULEN IRIONDO

1988an Xixonen jaioa, goi mailako flauta ikasketak ditu, eta flauta ikastaroak eta lezio magistralak ematen ditu Europan barrena. Gaur egun, Andrea Oliva maisu italiarrarekin ari da lanean.

Hurrengo egunean, berriz, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan *Kontxo kontxo* ikuskizuna egongo da ikusgai San Martin plazan, 19:00etan hasita. *Clown* batek eta bi *augusto*-k osatutako hirukoteak barrez leherraraziko ditu haurrak eta haurrak ez direnak. Europako zirkoetan maiz ibilitakoak dira pailazook.



Marta Camon Botella. | GOIENA

Irailaren 25era arte aurkez daitezke Udalaren 2016ko egutegirako argazkiak

J.I. | BERGARA

Datorren urtean ere izango da Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko argazkiekin eta informazioarekin ateratzen duen egutegia, eta *zura* da oraingoan aukeratu duten gaia: "Zuraren edozein alderdi har daiteke: zuhaitz bizia edo basoa, zuraren era guztietako aprobetxamenduak...". Argazkiak izan behar du Bergaran ateratakoa, edo Bergararekin lotutako motibo-

ren bat eduki behar du, behintzat: "Herritarren bat...".

Bergaran jaiotako edo bertan bizi den edonork aurkeztu ahal izango ditu argazkiak; CD edo USB batean eraman behar dira Udaleko Euskara Zerbitzura. Egutegian erabiltzeko aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dira; bestalde, aukeratutako argazkiak Udaltzategian jasota geratuko dira, Udalarentzat erabilgarri.

Zaborraren eta uraren ordainketa epea zabalik

J.I. | BERGARA

Zaborraren, estolderiaren eta uraren tasen 2015eko bigarren hiruhilekoko ordainagiriak ordaintzeko epea zabalik dago, irailaren 10era bitartean.

Ordainagiriak helbideratuta ez dituztenek, behin jakinarazpena jasota, aukera hauek dituzte ordainketa egiteko: udaletxeko diru-bilketa zerbitzuan; edo finantza erakunde kolaboratzaileetako bulegoetan, kutzazainetan, banku elektronikoetan edo www.bergara.eus bidez.

Lisboara eta Igeldora San Joxeperekin

Hilaren 29a baino lehen egin behar da San Joxeperen Lisboarako bidaiarako bigarren ordainketa. Bestetik, hilaren 22an Igeldo-Orio mendi ibilaldia egingo dute. 09:00etan irtengo dira geltokitik.

San Kristobal jaiak Aldai-Egia auzoan

Gaur, meza eta luntxa eguerdian; ibilgailuen bedeinkapena ere bai; gauean, Elvis Caino. Bihar, erromeria 23:00etan: Obaneuke; eta gero, DJ Gari-Rita. Domekan, berriz, meza, luntxa eta herri kirolak.

OHARRAK

JAIETARAKO TXOSNAK

Uztailaren 20ra arte egin daitezke Udalak, irailan, San Martin jaietan jarriko dituen bi txosnak ustiatzeko eskaria. Informazioa, udal webgunean.

MODA DESFILERAKO IZENA

Uztailaren 15era arte eman dezakete komertzioek, eta 26ra arte diseinatzaileek. Urriaren 17an izango da desfilea, eta hamar arlo izango ditu.

NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA



Ixo!

Urte asko pasa dira nerabe izan nintzenetik, eta, normala den bezala, nire gustu eta preferentzia asko aldatu egin dira: jatekoak, liburuak, musika... Baina bada go gaizki daramadan aldaketa bat.

Gaztetan, giroa eta zarata zegoen tokietan gustura egoten nintzen, eta horren bila ibiltzen ginen. Orain, berriz, ez zaizkit gustatzen jende asko biltzen den tokiak, eta bake eta isiltasun bila ibiltzen naiz. Nerabeekin lan egiten dut eta bi alaba gazte ditut, pentsa zelako erronka... Eta hori gutxi balitz, herriaren erdigune zaratsuan bizi naiz.

Aspaldi, munduan zehar belaontzi batean urte pila batez bidaiatu zuen familia bati entzun nion gizarteratzean gehien kostatu zitzaiena berriz ere zaratarara ohitzea izan zela. Harrituta geratu nintzen, baina orain oso ondo ulertzen dut. Isiltasun giroa lortzen duzunean konturatu zara zer estres sortzen duen zarata artean bizitzeak.

Saturatuta sentitzen naizenean, herria inguratzen duten tontorxoetakoren batera igotzea gustatzen zait, eta, distantziatik, herriak sortzen dituen zaratak entzuten lasai egoten naiz. Ze etsipen zulora jaisteko ordua heltzen denean...

Kontaminazio akustikoa deitzen omen da, beste kontaminazio motak bezain garrantzitsua; baina ez dakit gure gizartean garrantzia handiegirik ematen diogun. Homer Simpsonen esaten duen moduan: "Ixo... ezin ditut nire pentsamenduak entzun eta...".

BERGARATIK IRTEERA BEREZIA



Kanadako eta Chicagoko koloreak

Irailaren 23tik urriaren 6ra arte
12 gosari + 8 bazkari + 8 afari
Prezioa pertsonako: 3.196 €

Ibilbidea: Montreal • Quebec • Montmorencyko ur-jauziak • Sainte Anne arroila
Baleak begizatzea Mont Tremblant • Ottawa • San Lorenzo ibaian bidaia
Toronto • Niagarako ur-jauziak • Londres • Ford museoa Detroiten
Chicago bisitekin eta Michigan lakuan bidaia.

Barne dago: Autobusa BERGARATik – Hegaldiak Bilbotik – Halcon Bidaiak-eko bidaia-laguna – Bisitak eta sarrerak hango gidariekin – 8 egun mantenu erdira eta 4 egun mantenu osora – Derrigorrezko bidaia aseguruua.
(Aireportuko tasak ez daude barne, 2015/04/27an 320,00 euro, txartelak ateratzerakoan egiaztatzeko).

Informazio gehiagorako: 943 79 29 88

Halcon bidaiak.com



Xabier Agirre, Aroztegi aretoan. | JULEN IRIONDO

Xabier Agirre | Margolaria

"Nire pintura nahiko zuzena da, ez du inolako digestio traketsik sortzen"

'Naturatik hurbil' erakusketa du Aroztegi aretoan: azken urteetako ekoizpena jarri du ikusgai bertan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Xabier Agirre (Bergara, 1955) gazte-gaztetan hasi zen pintatzen, eta Bilbon eta Parisen osatu zuen bere prestakuntza. Gaur egun, irakasle da EHUko Arte Ederren Fakultatean. 39 koadro jarri ditu Aroztegin, azken hiruzpalau urteetakoak ia denak.

Zer moduzko erantzuna izaten ari da erakusketa?

Badakit hemen jende asko sartzela dela, eta pozgarria da. Kasu honetan, astebete eskasean 456 lagun pasatu dira. Areto hau herri erdi-erdian dago, eta jendea, kalek pasatzean, sartu egiten da. **Egongo dira, baina, Xabier Agirrek**

erakusketa jarri duela-eta propio sartzela direnak ere.

Bai, ezagutzen nauen jendea edo nire pinturaren jarraipen bat egin dutenak etortzen dira, noski. Baina kaletik doan jendea ere bai, eta hori pozgarria da.

Eta ze inpresio jaso dituzu?

Adituak direnek nabarmen dituzte kolorea, pintura kolorista dela, kontrasteak indarra eta ñabardura asko dituztela koloreetan. Hori da jendearengandik entzun dudana.

Esango zenuke ikusteko eta ulertzeko koadro errazak direla zureak?

Bai, nire pintura nahiko zuzena da, ez du inolako digestio trake-

tsik sortzen. Figurazioa da, paisaiak dira. Margolari bakoitzak bere erara interpretatzen ditu gauza horiek, eta nireak aipatutako ezaugarri horiek ditu; koloreak jartzeko modua: margolari baten ezaugarri nagusia hori da, paletatik ateratzen diren koloreak koadroaren gainean nola jarri, horren arabera izaten da bakoitzaren estiloa, eta bakoitzak egiten duen interpretazioa gaiari buruz. Nire pinturak nahikoa errazak dira, zentzu horretan; ze berehala eramaten gaituzte deskribatu nahi den hori erraz ulertzera. Badago, hala ere, hurbilduz gero, zatitxoetan fikatzea eta pintura puska ia-ia abstraktuak topatzea ere.

Eta ze leku dira pintatzeko aukeratzen dituzun horiek?

Dira betidanik apreziatu izan ditudan lekuak: nire gaztaroko natura zatiak... Nire ikasleei esaten diet: "Margotzeko ez da behar aitzakia handirik: nahikoa da, besterik ez daukagunean, behera begiratu eta zigarro-mutxikin bat eta arbola hosto bat han baditugu hori koadroaren erdian zentratzea, hor harreman kromatiko bat sortzen da eta koadro dezentte bat egiteko aukera daukagu". Nire pinturan ere horrelako zerbait gertatzen da. Sarritan, kotxean zoazenean ikusten duzu leku bat zerbaitegatik hunkitzen zaituena; geratu, atera argazki bat, bisitatu apur bat lekua eta kito, hor dago aitzakia margotzeko. Hemen denetik dago: daude Siziliako paisaiak, nahikotxo; bi bidaia egin genituen hara: handik ekarritako materiala eta han bizitako sentazioak azaleratzen dituzte. Badaude Bizkaiko leku asko ere, ze Bizkaian denbora luze bizi izan naiz... Denetik dago.

Ramon Arantzabalek 'performance'-a egingo du datorren asteburuan Munibe plazan

Eguenean, hilak 16, entsegu egingo du, eta barikuan eta zapatuan bakoitzean saio bat egingo du, 20:30 eta 21:30 artean, gutxi gorabehera. Margotutako tutuekin egindako egitura erabiliko du *performance*-rako, eta artistak iragarri du hiru "keinu" egingo dituela: aurrenekoa, Greziarekiko elkartasun gisa, 300 filmeko doinuak erabiliz; bigarrena, San Pedroko Stoltz-Freres Organoaren Lagunekin lotuta, Bachen doinuekin; hirugarrena, berriz, Munibeko Gau Magikoen jarraipena izango da.

Igerilekuko edukiera gainditzean sortzen diren egoerengatik haserreak

J.I. | BERGARA

Bi aldiz gertatu da aste honetan Agorrosingo kanpoko putzura-ko sarbidea denbora batez itxi beharra, gehienezko erabiltzaile kopurua ez gainditzeko. 187 pertsonako muga du guneak, "segurtasun arrazoiengatik eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak derrigortuta", Udaleko Kirol Saitetik azaldu dutenez. Hori ez gainditzeko hartutako neurriek eragindako egoerengatik haserreak eragin dute.

Udaleko Kirol Saitetik diote badakitela neurriok hartu beharra ez dela "erabiltzaile askoren gustukoa", baina, derrigortasuna argudiatuta, alternatiba gisa gogorarazten dute barruko igerilekuan ere har daitekeela bainua.

Osterantzean, kanpoko igerilekuaren gehienezko erabiltzaile kopurua betetzen denarako Udalaren Kirol Sailak onartuta duen jokatzeko modua gogorazi dute: "Sorosleek bainutokirako sarrera itxi egingo dute; barruko igeritokira zuzenean sartu ahal izateko,

alboko sarrerak egokituko dituzte; bainutokitik erabiltzaileak irteten diren neurrian, beste batzuk sartuko dira; bainura sartzeko zain jende kopuru handia egongo balitz -30 lagunetik gora-, itxi denetik 30 minutu pasatu ondoren, irteteko eskatuko zaie bainutokian dauden erabiltzaileei, erabiltzaile berriak sar daitezela". Eragozpenengatik "barkamena" eta sorosleek esanak betetzea eskatzen dizkie Kirol Sailak herri-tarrei.



Asteko irudi bat. | IKER MURUAMENDIARAZ

Mendi irteerarako eta batzar orokorrerako deia Pol-Polek

J.I. | BERGARA

Luzaide eta Auritz arteko mendi ibilaldia antolatu du Pol-Polek domeka honetarako, hilak 12. Egun osoko irteera izango da, beraz, Nafarroan egingo dutena, 07:00etan frontoi paretik autobusez irtenda. Gaur -barikua- ere badago oraindik izena emateko aukera; Pol-Polen bulegoan egin behar da, 19:00ak eta 20:00ak artean, 20 euroren truke.

Bestalde, Pol-Pol mendi taldeak ohiko batzar orokorra egingo du datorren egunean, hilaren 16an, Miguel Altuna institutuko areto nagusian. 19:00etan izango da lehen deialdia, eta 19:30ean bigarrena. Ondorengo gaiak landuko dituzte batzarrean: 2014/2015 sasoiko jarduerak; elkartekideen eta federatuen kopuruak; sasoiko balantze ekonomikoa; eta lokala erosteko proposamena.

Manex Balerdik galdu egin zuen Lakuako txapelketako finala

Aurreko asteburuan jokatu zuen Balerdik, Gasteizen, Lakuako binakako txapelketako finala, bertako pilotari Uribe lagun zuela. 22-9 galdu zuten Alberdiren eta Etxebarriaren kontra. Hasiera gogorra izan zuen kadete mailako finalak; partiduaren erdiko zatian, baina, huts asko egin zituzten Uribek eta Balerdik, eta orduan egin zieten ihes kontrarioek.

Errasti aroztegia

Ateak • Leihoak • Tarimak • Parket flotatzailea
Horma-armairuak • Edozein motatako lanak

Basabe industrialdea, 20A . 20550 Aretxabaleta . 673 98 21 57 errasti_jr@hotmail.com

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Jendea aurkezten ez bada, aurten jaietan ez da umeen danborradarik egongo

Irailaren hasierarako taldetxo bat aurkeztea da azken aukera; Udala eta musika eskola laguntzeko daude

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaur-gaurkoz, aurtengo sanmigeletan ez da haurren danborradarik egingo. Hori antolatzeke deialdi bat baino gehiago egin ditu Udalak, baina guraso bakar batek eta Jose de Azpiazu musika eskolak agertu dute bakarrik prestutasuna. Irailaren hasiera bitarterako epean beste inor aurkezten ez bada, bertan behera geldituko da aurtengo haurren danborrada.

Taldetxo bat

Haurren danborrada antolatzen 30 urtez ibili den taldeak joan den urtean esan zuen utzi egingo zio la antolatzeari. Udaleko Kultura Sailak beste batzorde bat osatzeko deialdiak egin ditu aurtengo jaietara. Lehen deialdian guraso batek bakarrik eman zuen izena. Hori ikusita, aurten danborradan irtetea tokatzen zaien umeen gurasoei eskutitz bana bidali zien Udalak, ikastetxeen bitartez. Jasotako erantzuna berdina izan zen. Pasa den martitzenean, uztaileak 7, hirugarren ahalegina egin zuten, bilerara irekia eginda. Guraso bakarra joan zen horra ere, Jose de Azpiazu musika eskolako eta Udaleko ordezkariet gain.

"Musika eskolak parte hartzeko interesa agertu du hasieratik, entseguak eta musika arloko koordinatzeke prest dago. Udalak ere beharrezkoak diren azpiegitura, diru laguntza eta materiala jarriko ditu eta koordinatzen lagunduko du. Baina antolakuntza osatzeko lantalde handiagoa



Umeak danborra jotzen joan den urteko danborradan. | IMANOL SORIANO.

behar da. Jende gehiago eskatzen du honek, eta, taldetxo bat egin ezean, bertan behera geldituko da haurren danborrada aurten", azaldu du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

Atzeratu

Egutegiari begiratuta, ez dago tarte luzerik danborrada antolatzeko, baina Udala prest dago ohiko data atzeratu eta jaien egitarauan moldaketak egiteko, denbora irabazteko. "Irailaren hasierarako jendea apuntatzen bada, gu prest gaude danborrada irailko hirugarren zapatuan egin

ordez, beti bezala, astebete atzeratu eta irailaren 26an egiteko, aurten jaiak zelan tokatzen diren ikusita", aurreratu du Zubiak.

Antolatzen laguntzeko prest dagoenak kultura etxean eman behar du izena irailaren hasierarako.

Nagusiena

Nagusien danborrada antolatzeko batzordea, bestalde, lanean ari da. Konpainia bakoitzeko ordezkari batek osatzen dute batzordea eta dagoeneko hasita daude bilerak egiten eta ideia berriak lantzen.

Udaleko zinegotzi berriek egin dute lehen osoko bilkura berezia

Lan batzordeak eta kideak izendatu dituzte

O.E. | OÑATI

Uztailaren 2an egin zuen udalbatza berriak lehen osoko bilkura. Berezia izan zen. Formalki eratu ziren lan batzordeak eta udal agintepeko organoak; batzorde horietan parte hartuko duten zinegotziak izendatu zituzten. Hala, agintaldi honetan ere hamabi lan batzorde egongo dira, baina aldatetako egin dituzte. Parte-hartzeak eta Pertsonalak, bakoitzak sail propioa izango du eta auzoetako obrak Hirigintza eta Zerbitzuak Sailean sartzen dira orain. Udal-

batzako alderdietako bozemaileak ere izendatu zituzten: Mikel Biain EH Bildukoa eta Miren Elgarresta EAJkoa.

Gobernu batzordeak eguinetan egingo ditu bilerak, eta kideak izango dira: Mikel Biain, Irati Etxeberria, Borja Moia, Nerea Zubia eta Kepa Zelaia. Ohiko osoko bilkurak, berriz, hileko azken eguinetan izango dira aurrerantzean ere.

Agintaldian, Mikel Biain -2.500 euro hilean- eta Nerea Zubia -1.900 euro- liberatuta egongo dira, jardun osoan.

UDAL BATZORDEAK

BATZORDEAK	BATZORDEBURUAK
Hirigintza eta Zerbitzuak	Irati Etxeberria
Parte-hartzea	Nerea Zubia
Pertsonala eta Barne Antolamendua	Mikel Biain
Kultura	Nerea Zubia
Ogasuna	Rafael Kortabarria
Kirolak	Borja Moia
Haur eta Gazteria	Kepa Zelaia
Ingurumena eta Landa Garapena	Oier Irizar
Ongizate Zerbitzuak	Susana Altuna
Euskara eta Hezkuntza	Nerea Zubia
Sozioekonomia	Ana Martin
Berdintasuna	Leire Zumalde

Araozko zabortegia garbitzeko irteera egingo dute domekan, Zero Zabor asteari amaiera emanda

Araozko zabortegia auzolanean garbitzeko irteera egingo dute domekan. Gero, bazkaria egingo dute Araozteko Saloian. Joan den urtean egin zuten lehen aldiz irteera hau; lau tona zabor atera zituzten. Domekan 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan handik Araozteko joateko. Bestalde, astelehenean, hilak 13, hasiko da *Ontziratu zaitetz* kanpaina. Herriko arrandegietan eta harategietan ontziak banatuko dituzte. 30 euroko bonuak ere zozketatuko dituzte. Hilaren 28ra irauko du kanpainak.

Haurrak eta gazteak eurak, gaztelekuko ekintzen antolatzaile

Sei hezitzaile eta bi koordinatzaile dabilta gaur egun gaztelekuan lanean

TXOMIN MADINA | OÑATI

Martxoan ezkerre Zehar Heziketa elkarteak kudeatzen du Oñatiko gaztelekua, eta bertako lantaldea eraberritzea ekarri du horrek. Sei hezitzaile dabilta egun gaztelekuan: Julen Korkostegi, Arantzazu Agirre, Ainhoa Anduaga eta Iñigo Goikoetxea; eta aurretik ere bazebiltzan Joxe Mari Azpiarte eta Cristina Val. Horietaz gain, bi koordinatzaile ere badaude, Ihart Lete eta Jon Ormaetxea.

Eredu berria ezarri dute gaztelekuko erabiltzaile diren 8 eta

17 urte arteko haur eta gazteekin lan egiteko; Jon Ormaetxearen hitzetan, aisialdi hezitzailearen bidetik doan eredu: "Proposamenak geuk egin beharrean, abiapuntua da haur eta gazteekin elkartzea; euren gustuak eta interesak aztertzea; eta elkarrekin zer egin dezakegun eurei galdetzea, baita proposamenak gauzatzeko zer egiteko prest dauden ere". Era horretara parte-hatze handiagoa lortzen delad dio: "Haur eta gazteak inplikatzeko eta haiek ardurak hartzea lor-

tzen da, sortu duten horretan protagonista sentitzea". Eredu horretan hezitzaileek lider lanak egiten dituzte, erabiltzaileak xaxatuz, ideiak planteatuz eta arazoak konponduz.

Udarako, plan mordo


Jon Ormaetxearen ustez, haur eta nerabeek oso ondo hartu dute eredu berria, eta udarako hainbat ekintza antolatu dituzte: "Futbol eta frontenis txapelketak antolatu dira; baita, besteak beste, Hondarribian eta Iturrigorrin



Udaleko ordezkariak gaztelekuko hezitzaileekin eta koordinatzaileekin. | T.M.

gaua pasatzeko egindako irteerak eta Gamarrara eta Arcachonera egingo ditugunak ere". Uda parteko ekintzak kanpoan

diren arren, uda ostean dinamika berarekin jarraitzea da asmoa, baina gaztelekuko lokala gehiago erabilita.



Ibilgailuak bedeinkatzen joan den urteko San Kristobal egunez. | O.E.

San Kristobal lorez apainduko dute berriz

19:00etan jaitsiko da automobil karabana Olabarrietatik parrokiara

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Badirudi ohitura lehengora bueltatzen ari dela. Aurten, esaterako, bi kamioi handi, bi trailer, dira etortzekoak San Kristobal egoten den lekura, handik parrokiaraino automobil karabanan joateko", azaldu du Jose Ramon Arrazolak irribarrean ezpainetan duela, pozik.

Txoferrak eta mekanikariak

Gidarien zaindaria da San Kristobal. Oñatin 1961ean sortu zuten, Txarriduna tabernan egindako bazkarian, herriko txoferren ermandadea. Istripu edo ezbeharren bat izanez gero, gidariari edo familiari laguntzeko helburuarekin sortu zen. 1966an eman zuen azken laguntza. 34 bazkide ziren, hasieran baina 45 izatera ere iritsi ziren. 36 dira egun.

San Kristobalen ermitaren datuak, baina, 1785ekoak dira, gutxienez. "Ermandadea bizirik dago oraindik eta beti gura izan dut bere historia idatzi. Eta horrekin batera baita santuaren eta hura egon zen ermitaren gainekoak ere. Datu asko nituen eta baita argazki zahar batzuk ere. Denak batzen hasi nintzen eta datu eta argazki berriak lortzen, nuen informazio dena liburu batean gordetzeko", dio Jose Ramon Arrazola olabartarrak.

Historias de San Cristóbal de Olabarrieta en Oñati da Arrazolak idatzi duen liburua. Zaindariak egun Olabarrietan duen santutxua nola egin zuten agertzen da liburuan, lehengo tokitik metro batzuk beherago. Eta Oñatira etorri ziren lehenengotako automobilak eta kamioiak ere badakar liburua,

argazkietan jasota, ibilgailu horien gaineko datuekin: nor ekarri zuen noiz, zertarako, ze motor mota zuen, zenbateko karga, matrikula... Ibilgailuak Olabarrietan bedeinkatu eta bata bestearen atzetik zaindaria aurrean lorez apainduta dagoela, kaleraino nola joaten ziren ere ikusten da argazki zaharretan. Tartean kamioiak. "Azken urteetan etorri diren ibilgailuen artean automobilak izan dira gehienak, eta asko poztu nau jakiteak aurten bi kamioi handi ere badatozela", dio egileak.

Urtero legez, gaur, uztailek 10, San Kristobal eguna ospatuko dute herriko txoferrek eta mekanikariak. 19:00etan elkartuko dira santutxuan eta 19:30ean izango dute meza parrokiari. Automobilak bedeinkatuko dituzte ostean, aflatzera joan aurretik.

NIRE USTEZ

MIEL GURIDI



ETB eta hizkuntza

Hori irakurtzeko aukera izan dut azken aste honetan *Argia* digitalean. EITBko kazetariak garbi adieraziko diote solaskideari euskara hutsean egin dezakeela, gaztelaniaz edo bietara. Gainera, ikus-entzuleek begi onez hartuko omen dute euskarari leiho bat irekitzea gaztelaniazko kateetan. Egia esan, ez dut orain artean horrelako trantzerik pasatu beharrik izan. Baina, horrelakorik gertatu eta euskaraz egin ondoren, "orain gaztelaniaz" esango balidate, zer?

Ba, seguruenek, ez nuke gaztelaniaz egingo; zergatik egin gaztelaniaz? Dagokion kazetariari lana errazteko? Nik esan

nahi nuena ez aldatzeko? Zaila egiten zait horretarako argudiorik aurkitzen. Nire ustez, gaztelania nagusi den katean tarteka euskarazko adierazpenak agertzeak ez luke arazo larririk sortu beharko. Alde batetik, gero eta jende gehiagok ulertzen du euskaraz, nahiz eta gero hitz egin ez; eta bestetik, euskarak presentzia izango luke kate erdaldunean eta prestigio apur bat jasoko luke.

Baina EITBk ausartago jokatu beharko lukeelakoan nago. Ulertzen dut aldaketa bortitzak arriskutsuak gerta daitezkeela, hala ere, denborarekin euskarak presentzia gero eta handiagoa hartzen joan beharko luke, adierazpenetatik hasi, denborarekin albiste batzuk eta aurrerago saioak gaztelaniaz eta euskaraz tartekatuz, eta beti ere saioen kalitatea gordez.

Amets egitea libre da. Baina ametsak egia bihurtu artean, eskerrak etxetik hurbil euskara hutsean aritzen diren medioak ditugun, Goiena tarteko.

Nagusiendako maitasun ipuinak Maite Arresek

Datorren eguaztenean etorriko da Lazarraga lorategira, Klean egitarauaren barruan

O.E. | OÑATI

Nagusiendako maitasun ipuinak kontatuko ditu Maite Arresek hilaren 15ean Lazarraga lorategian. "Lau maitasun mota ei daude: gurasoen eta seme-alaben artekoa, bikote harremanekoa, maitasun errukiorra eta, azkenik, haragizkoa. Diote benetako maitasun esperientzia izatean lau maitasun horiek batzen direla, proportzio ezberdinetan. Eta teoria hori azaltzen duten ipuinak kontatuko ditut

nik Oñatin", adierazi du Maite Arrese ipuin kontalariak.

Literatura eta musika. Amodiozko ipuinak du izena haren emanaldiak eta Mau Ziemkiewicz biolin-jolea izango du ondoan. "Musika barrokoan dago espezializatua eta ipuin hauek kontatzeko aproposa iruditzen zait Mau", azaldu du Maite Arresek.

Ipuin kontaketa 19:00etan izango da, uztailearen 15ean, Klean programaren barruan.

Esklerosi anizkoitzari aurre egiten laguntzeko postutxoak jarriko dute domekan Foruen plazan

Esklerosi anizkoitzari aurre egiteko urtero antolatu ohi duten *Busti zaitz* kanpaina Oñatira helduko da domekan. Hala, Foruen plazan, material salmentarako eta informaziorako postua jarriko dute, elkarteko bazkideei eta boluntarioei esker. 10:00etatik 14:00etara jarriko dute postutxoak. Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioak eta ADEMGik antolatu dute kanpaina aurten ere, eta, informazioa emateaz gain, gaixoendako birgaitze zerbitzua hobetzeko "ahalik eta diru gehien" lortzea dute helburu.

Jesus Urmeneta 'Xolonpo' omenduko dute domeka eguerdian San Martinen, Trianako jaien barruan

Trianakoa zen Jesus Urmeneta *Xolonpo* eta hura omentzeko ekitaldia antolatu dute Trianako jai batzordeak eta haren lagunek. Domekan izango da, San Martinen, 12:00etako mezaren ostean. Trianako jaietako ekitaldietako bat izango da omenaldi hori. Jaiak gaur, egubakoitza, hasiko dira; 19:00etan jaitsiko da Astotrasto. Domekan, bestalde, ETBko *Kantugiro* karaoke saioa grabatuko dute Trianan, 17:30ean, Zuriñe Hildagorekin eta Xabin Fernandezekin.



ARGAZKILARIAXXX

Umerez eta Murgiondo batera helmugan

Javier Ezenarro zenaren omenezko lasterketa egon zen zapatuan Mendaron. Gazteen lasterketa izan zen eta txirrindulariek 80 kilometro pasatxoko ibilbidea egin zuten. Julen Umerez (Ulma) izan zen helmugan sartzen lehena (02:14:09) eta harekin batera heldu zen, denbora berarekin, Xabier Murgiondo (Ulma).

ESKORIATZA



Arozenatarrak taldea kontzertuan. | KAFETORERO ELKARTEA

Arozenatarrak taldea Zaldibar antzokian izango da zapatuan

Askotariko dantza erritmoak ekarriko dituzte: jota, polka, fandangoa eta arin-arina, besteak beste

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Hasi dira Atxorrotx kultura elkarteak Errekan Gora egitasmoaren barruan prestatutako kontzertuak. Lehena 4kotegehi7 taldea izan da, eta 200 pertsona inguru batu ziren Huheziko klaustroan emanaldiaz gozatzeko. 4kotegehi7 taldearen boleroek arrakasta bikaina izan zuten ikustera joan

zirenen artean eta Atxorrotx kultura elkarteko kideek balorazio positiboa egin dute lehen kontzertuaren gainean.

Zapatu honetan, hilak 11, berriz, bigarren kontzertua izango da, Zaldibar antzokian, 22:30ean. Hiru anaiak osatutako Arozenatarrak taldea Oiarzundik etorriko da Eskoriatzara.

Aitor, Urko eta Xanet Arotzena, txistulari familia ezaguneko laugarren belaunaldia da. Gazte-gaztetatik txistu ikasketak hasi zituzten herrian eta euren lehen irakaslea Juanito Arotzena izan zen, haien aita. Aitor Donostiako Txistularien Udal Bandako kidea da eta Urko Musikeneko perkusio irakaslea da. Xanet, berriz, gitarrarekin hainbat talde eta musikarirekin batera aritzen da.

Hirurak instrumentu eta estilo ezberdineko musikariak izanik, musikaren ikuspegi zabala ekarriko dute Eskoriatzara. Txistuarekin, gitarra klasikorekin eta perkusiozko hainbat instrumenturekin igoko dira taula gainera emanaldia egitera, eta hainbat estilo landuko dituzte, nahiz eta ardatza euskal musika izan. "Txistularien erreperitorioa eskainiko dugu, umore ukituarekin. ETB1eko *Kontrako eztarria* programan ere izan ginen, eta hara oso ondo egokitu ginen. Programaren estiloaren antzera, pailazokeriaren bat edo beste egingo dugu taula gainean", dio Xanet Arotzena taldekideak.

Dantza erritmoak moldatuta

Erreperitorio zabala eta dantza erritmo ugari eskainiko dituzte Eskoriatzan. "Pasodoblea, kalejira, sagar-dantza, uztai-dantza, zortzikoa, jota, polka, fandangoa, arin-arina... halakoak egingo ditugu, gaur egungo estilora moldatuta". Hala, txistua, gitarra klasikoa eta hainbat perkusio tresna erabiltzeaz gain, kanturen bat edo beste abestuko dute.

Edozelan ere, kantu tradizionaleraino gainera, gaztetan entzuten zuten talderen baten edo besteren abesti ezagunen bat ere joko dutela adierazi du Xanet Arotzena taldekideak.

Bihotzei eta arimei hitz egiteko musika 'Uda osatuz' ekitaldian

I.B | ESKORIATZA

Datorren eguaztenean, hilak 15e, *Uda osatuz* ikuskizuna egongo da Ibarraundi museoan, 19:00etan. Sarrera bost euro da, eta, hain zuzen, osasuna eta kultura sustatzeko helburuarekin, kontzientzia, artea eta harmonia bilatuz pertsona osatzeko ekimena izango da.

Ikuskizuna Marijo Pagaldaik eta Marta Camonek egingo dute. Marta Camon zeharkako flauta jotzailea da eta Gijongo interprete gazteentzako lehiaketa irabazi zuen, bakarlari moduan, Jovellanosko antzokian, Gijongo kontserbatorioko orkestraren laguntzarekin. Bestalde, finalista izan

zen 2012ko Circle Primavera lehiaketan, eta Orfeo Catala del Palau de la Musica korista izanik, bertan kantu eskolak jasotzen ditu gaur egun.

Askotariko estiloak jorratzen

Marta Camonek estilo klasikoa uztartzen du, baina, gehiago osatzeko asmoz, esperimentazioak egiten ditu: inprobisazioa, jazz, Indiako musika karnatiko, Shakuhaichi japoniarra, folk-zelta, ikuskizunetarako eta antzerkietarako musika, besteak beste.

Dantza inprobisatura gerturatu da orain, eta baita seitai japoniarra, arima eta bihotza zaintzeko asmoarekin.



I.B

Udalekuetako lehen astea bikain

Eskoriatzako udalekuak astelehenean hasi ziren eta oso pozik aritu dira aste osoan herrian zehar dibertitzen. Hainbat ekintza egin dituzte orain arte: elkar ezagutzeko jolas kooperatiboak, San Fermin eguna, Uraren Eguna... Gaur, aldiz, irteerak egingo dituzte. Batzuk San Adrianera joango dira eta beste batzuk, Apotzaga auzora. Txikiak Mazmelara eta nagusienak, berriz, Elixabarraino igoko dira.



ANDER LARRAÑAGA

Iturririk ez, baina igerilekua bai

Astebete eman dute gatzagarrek 12 tutuko iturriko ur barik. Izan ere, hodiak oso zaharrak dira eta pitzadurak aurkitu dituzte; konpondu dituzte horietako batzuk dagoeneko, baina etorri beharko lukeen uraren erdia baino ez dator. Hori horrela, aurtengo udalekuetako haurrek non freskatu ezin, eta igerilekutxo muntatu dute udaletxe alboko parkean: ederto ibili dira egunotan plisti-plasta.

LEINTZ GATZAGA

Mediku eta erizain barik egongo dira gatzagarrik irailaren 9ra arte

Datorren urtera begira, halako egoerentzako beste planteamendu bat bilatzen saiatuko da Udala

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

Osakidetza udako garaian beti murrizten ditu lanpostuak eta zerbitzuen ordutegiak, eta horrek Gatzagan eragin handia izan du. Izan ere, irailaren 9ra arte ez dute mediku eta erizainaren zerbitzurik izango herritarrek, eta Eskoriatzara jaitsi beharko dute.

Martitzenean bildu zen Eneka Zankada alkatea Osakidetza ordezkariekin, Gatzagan izango diren udako osasun zerbitzuen murrizketak direla-eta. Bilera amaituta nobedaderik ez dago, ordea: egoera da ez dela medikurik izango herrian irailera arte. Eskoriatzako medikua da Gatzagara astean behin igotzen dena, baina, bertako murrizketak dire-

la-eta, egunero geratuko da Eskoriatzan, Gatzagara igo barik.

Eta erizainarekin antzekoa gertatzen da: hilaren 14tik aurrera ez da erizainik egongo. Salbuespena hilaren 21a izango da: erizainak zeregin bereziak izango ditu bailaran, eta, bide batez, zerbitzua ere eskainiko du; udako gainontzeko egunetan, ez.

Aldiz, zerbitzu minimoak mantendu guran, behar bereziak dituztenendako etxez etxeko zerbitzuak martxan jarraituko du udan; betiko legez, astean hirutan.

Arazo horren aurrean argi dauka Zankadak datorren urtera begira beste planteamendu bat egin beharko dutela herritarren onerako.

Gasteizko Senideekin bazkaria egingo dute herritarrek

A. L. | LEINTZ GATZAGA

Hilaren 18an, zapatua, Gasteizko Euskal Preso Politikoen Senideak Gatzagara joango dira bazkaltzera, bigarreneko, eta, horren harira, egun borobila prestatu dute herrian.

13:30ean harrera egingo diete herritarrek Gasteizko Senideei eta trikiti doinuekin herrian bueltan ibiliko dira jai-giroan. Ostean, 14:30ean bazkaria egingo dute herriko plazan, eta jarraian, Berriketaren taldearen kontzertua egongo da; Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-k bere flamenkoa txalapartarekin fusionatuz eratuak taldea da hori.

Antolakuntzatik azaldu dutenez, herritar guztiak daude gonbidatuta bazkarira, eta izen-ematea Labidea dendan egin beharko da.

ANTZUOLAKO JAIAK 2015



Badatoz!

Jaietako egitaraua

Jaioberriei ongietorria

Dantzak

Mairuaren Alardea

Musika eskaintza

Gastronomia eta balkoi lehiaketa

Jaietako aplikazio berria

Herri bazkaria

IMANOL SORIANO

50^E elay
1965 - 2015



AGURRA

BEÑARDO KORTABARRIA
Antzuolako alkatea



Alkatearen agurra

Zenbat parranda egin ote dut herriko jaietan! Eta orain alkate! Kontu honek ez du, ba, nire eta jaien arteko harremana aldatuko. Sasoiak laguntzen didan bitartean, behar den bezala ospatuko ditut. Eta zuri ere, herritar, horixe dagokizu, jaietz gozatzea. Prestatu dugun programan, seguru ondo pasatzeko aukeraren bat topatzen duzula.

Umerez hasteko, ez ahaztu jaiak irekiko dituen udalbatzaren dantza-saioa. Barraren bestaldean egon izan garenok badakigu lau urtetik behin ikusmira berezia sortzen duela. Abisua: dantzari txarrenen rankinga gizontzera gatoz. En fin, hori izan dadila lau urtean gertatuko zaigun gauzarik okerrera.

On kixote eta Santxo Panzaren lurraldean ostaturia hartua duen Eltzikorta laguna ere parrandazale fina da. Gustura hartuko luke hark 3-4 eguneko baimena jaietarako! Etorri nahi eta ezin duen antzuolar gehiago izango da han eta hemen. Aizu, zauden lekuan zaudela, ospa itzazu ahalik eta ondoen.

Zahar eta gazte, ume eta guraso, neska eta mutil, ezkerreko eta eskumako, sinestun eta ateo... ondo pasa elkarrekin! Kanean elkar ikusiko dugulakoan, besarkada bana, eta bixamonak harrapa gaitzala!

EGUBAKOITZA

10

18:30 BURUHANDI BERRIAREN AURKEZPENA: HONTZA plazan.

DOMEKA

12

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA. 70. Antzuola saria.

14:00 ERRETIRATUEN BAZKARIA Herri ikastetxean. Gero, dantzaldia.

EGUENA

16

12:30 UMEEN IKUSKIZUNA plazan.

► Herriko alkateak eta alkate txikiak jaietara emango diete.

► Udalekuetako umeen BATUKADA.

13:30 UMEEN HERRI BAZKARIA eskolako patioan.

► IRRINTZI LEHIAKETA eta jolasak.

18:00 Buruhandien KALEJIRA.

18:30 BATUKADA.

19:00 MEZA.

19:30 TXOSNAK IREKITZEA.

19:45 JAI OBERRIEI ONGIETORRIA.

20:00 IKURRIN-DANTZA eta UDALBATZAREN ESKU-DANTZA.

22:00 Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin KALE AFARIA.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA.

► Ondoren, KALEJIRA.

01:00 JOLASAK txosnetan.

ANTZUOLAKO JAIEN EGITARRAUA



IMANOL GALLEGO

UDALBATZAREN DANTZA | EGUENA | HERRIKO PLAZA | 20:00
Udalbatza berriak lehen aldiz egingo du dantza antzuolarren aurrean. Haien aurretik, Oinarineko neska-mutikoez ikurrin-dantza egingo dute.

EGUBAKOITZA

17

10:00 Txistulariekin GOIZERESIA.

10:30 GASTRONOMIA LEHIAKETA.

11:00-13:30 Umeen JOLASPARKEA eskolako patioan.

12:00 MEZA NAGUSIA.

12:45 LORE LEHIAKETA.

13:05 Entsalada erusiar DASTAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA.

► Jan-edanak norberaren kontura.

► Ondoren, IRRINTZI LEHIAKETA.

16:30-18:30 JOLASPARKEA.

18:30 PONEYAK eta ZESENTXOAK.

► Ondoren, Baralde txaranga.

22:00 ERROMERIA Ingo Al Deu taldearekin, plazan.

► TXOSNETAN: Petti, Klak!son, The Convicts eta Sukarra37.

► Gauean zehar Djak gaztetxean.

22:30 PILOTA partiduak frontoian.

ZAPATUA

18

07:00 SANDWICHAK txosnetan.

09:55 Alardeko KANOIAK SUTZEA.

10:00 Txistulariekin GOIZERESIA.

11:30 KALEJIRA: Bergarako Banda.

12:30 Bandaren KONTZERTUA Zurrategin.

16:30 BIDEO ZAHARRAK txosnetan.

19:00 MAIRUAREN ALARDEA

20:30 Skandalue elektrotzaranga

22:30 JOSELU ANAIK plazan.

23:00 SUZKO ZEZENA plazan

► KONTZERTUAK Zurrategin: Itziarren semeak, Joxe Replay eta Fan&Go

23:15 JOSELU ANAIK.

DOMEKA

19

07:00 FRUTAK txosnetan.

12:00 DANTZA ERAKUSTALDIA.

► Jaietako ARGAZKI LEHIAKETAKO proiektzioak.

13:00 BITS JAIA Herriko Plazan.

14:30 HERRI BAZKARIA Ez Dot Moztuko Bizarrak antolatuta.

► Kontzertua: FERMIN VALENCIA.

18:30 DIRT JUMP eta TRIAL erakustaldia Zurrategin.

20:00 LARRAIN-DANTZA.

20:15 PINTXOAK Antzuola Kirol Elkartearen eskutik.

20:45 KONTZERTUA: Ezten Giro (22:00etatik 23:00etara atsedendia egingo dute).

00:00 HONTZAREN IGOERA.

► Ezten Giroren kontzertuak jarraituko du.

TXOMIN GARAJEA

Aprobetxatu
gure
eskaintzak!

ZORIONAK,
GUZTIO!!



Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77

MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak



Jai Zoriontsuak!

Jaioberriei ongietorria eta nagusienei omenaldia aurten

2014 hasieratik 2015eko jaietara bitartean jaiotakoei zapia jarriko diete lehen aldiz udal ordezkariak

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Inguruko hainbat herritan errota dagoen tradizioa izanik ere –Bergara, Elgeta, Oñati...–, orain arte Antzuolan ez da ohiturarik izan udal ordezkariak ume jaioberriei ongietorria egiteko.

Oraingo honetan, berriz, ekimen hori jaietako egitarauan txertatu dute. Uztailearen 16an egingo dute, 19:45ean, Herriko Plazan, ikurrin-dantza eta udalbatza-dantza hasi baino lehen, hain justu ere. Orduan, alkateak eta udalbatzako gainontzeko kideek haur jaioberrien gurasoak udaletxeko arkupeetara deituko dituzte, txikiei jaietako zapia jarri eta Antzuolara zein bertako jaietara ongietorria emateko.

Kultura teknikari Jone Larrañagak azaldu duenez, jai batzordean pertsona batek ideia proposatu zuen, gero eta herri gehiagotan egiten dela-eta. Batzordeak gogoz onartu zuen ideia. "Polita iruditu zitzaigun", dio.

Aurtengoa lehen aldiz izanik, 2014. urte osoan eta 2015eko jaiak bitartean jaiotako umei egingo diete harrera, "borobiltzeko" eta denei aukera eskaintzeko.

Hala ere, hemendik aurrera ekimenari jarraipena emateko asmoa daukate, eta, datorren urtetik aurrera, urte batetik besterako jaien bitartean jaiotakoei



Valen Moñuxek diseinatutako zapia jantziko diete herriko gazteenei eta zaharrenei. | ANTZUOLAKO UDALA.

egingo diete harrera, Larrañagak azaldu duenez.

Atsolorra esaten zaio urtean zehar jaiotako haurrei harrera egiteko ohitura horri, eta eliza katolikoaren bataioaren ezarpenaren aurretik Euskal Herrian

Hemendik aurrerako jaietan ekimenari jarraipena emateko asmoa daukate

Erretiratuen bazkarira doazen hiru nagusienei jarriko diete zapia

egiten zen erritu batean du jatorria. Garai hartan, emakume batek umea izaten zuenean, herrikide edo auzokideak hari laguntzera joaten ziren erditzearen ostean, indarberritu arte.

Nagusienei omenaldia

Bestalde, domeka honetan, hilak 12, erretiratuek bazkaria egingo dute herri ikastetxean, eta ondoren dantzaldia ere izango dute.

Hitzordua aprobetxatuz, Udalak omenalditxo egingo die herriko nagusienei, bazkarira bertaratzen diren hiru pertsona zaharrenei jaietako zapia ipinita.

Landatxope erretiratuen elkarreko kideek ere jai batzordean parte hartzen dutenez, haiek proposatu zuten jaioberriei ongietorria egitearekin batera polita litzatekeela nagusienei omenalditxo ere egitea, eta hala onartu zuten. Hasiera batean guztia ekitaldi berean egitea aurreikusi bazuten ere, azkenean, erretiratuen bazkarian egingo dute.

Aurtengo zapia

Antzuolako Udaleko langile Valen Moñux izan da, duela sei urtetik hona bezala, 2015eko herriko festetako zapia diseinatzearen ardura izan duena. Jaietako ikur diren hainbat irudi ageri dira bertan: mairua, hontza, dantzak, zezensuzkoa...

2008. urtera arte jaietako zapien herriko armarrria agertu izan da urtero. Hurrengo urtean, baina, Mairuaren Alardea berri- zutela eta, harekiko erreferentzia bat sartu nahi izan zuten, eta, horretarako, beste diseinu bat egitea erabaki zuten. Harrezkero, zapia urtero aldatzen joan dira. Hala ere, Kultura teknikari Jone Larrañagak azaldu du datorren urtetik aurrera diseinu finko bat erabiltzeko asmoa dutela, urtetik urtera berria atera barik.

**ANTZUOLA
JAIKETAN.
ONDO PASA!**



Antzuolako udala
www.antzuola.com



ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33



Xabier Legorburu | Mairuaren Alardea Elkarteko lehendakaria

"Alardera jende gaztea erakartzeko erronka daukagu"

la berrehun pertsonak hartuko dute parte jaietako ospakizun nagusian

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA
Uztailaren 18an, zapatua, arratsaldeko zazpitan abiatuko da ohiko desfilea, eta horren ondoren Mairuaren Alardea irudikatuko dute Herriko Plazan. Xabier Legorburu 2004an sortutako Mairuaren Alardearen Elkarteko lehendakaria da.

Zenbat jende hartuko du parte aurtengo Mairuaren Alardean?

Iaz 180 edo 190 pertsona bildu ginen, guztira, eta aurten ere antzeko kopurua aterako gara.

Berritasun aipagarriak badago oraingo edizioan?

Iazkoaren antzera mantenduko da. Protagonistak, esate baterako, berdina izango dira: Antzuolako konpainiako buruzagia Joseba Iparragirre izango da, kapitaina Jose Angel Arbulu, mairua Juan Karlos Gomez...

Belaunaldi berriek Alardean parte hartzen jarraitzen dute?

Hor badago arazo bat, egia esan. Gazteak erakartzeko erronka daukagu; izan ere, etorri izan zaigu jende gaztea, baina batez

ere adin ertainekoa da gerturatzeko den jende berria.

2009an aldaketa sakonak egin zintuzten alardean.

Bai. Ordukoa izango zen, agian, alardeak izan duen birmoldake-

tarik sakonena, nahiz eta urte urte aldatzen joaten den. Esaterako, duela zazpi edo zortzi urteko alardea nik umetan gogoratzen dudana aldean desberdina zen. Duela sei urteko moldake-

Herri izatearen harrotasuna

Antzuolarrek 920. urteko Valdejunqueran mairuen kontrako borroaldian ustez lortu zuten garaipena goraiatu eta herri izatearen harrotasuna ere adierazten dira urtero alardean.

Datu historikoez diote Abd-Al-Rahman III.aren tropek lortu zutela garaipena, baina Antzuolako alardean istorioa alderantziz kontatzen da; izan ere, 1629an herria Bergararengandik independizatu zenean, orduko errege Felipe IV.ari 5.000 dukat ordaintzeaz gain, herri izaera aitortzeko balentria bat egin izana erakutsi behar zuten, eta horretarako moldatu zuten.

Garai batean, foruen galera aurretik, herrietan egiten ziren armen berrikusketak ditu oinarri alardeak. Independentzia lortu baino lehen, Antzuolako herritarrek Bergarara joan behar izaten zuten hori egitera, eta, erregeak herri izaera aitortu zenez geroztik, Antzuolan bertan egin ahal izan zituzten. Beraz, herri bat izatearen poza eta harrotasuna irudikatzen dira urtero herriko jaietan ospakizun horren bitartez.

Dokumentu historikoetan agertzen den Mairuaren Alardearen aipamenik zaharrena 1880koa da.



Xabier Legorburu Antzuolako plazan. | MAIDER ARREGI

tekin, egungo balioetara egokitu nahi izan genuen ospakizuna: genero arteko berdintasuna, kulturekiko errespetua...

Esate baterako, kutsu erlijiosoak kendu eta mairuaren irudia duindu egin genuen. Lehenago, asto gainean heltzen zen plazara, eta, amaieran, preso eramaten zuten. Orain, aldiz, zaldi gainean iristen da, txukun jantzita, eta bere segizioa (sekitua) dauka.

Sei urte pasa dira geroztik. Nabaritu duzue atxikimendu handiagoko herritarren partetik?

Bai; izan ere, lehen, kutsu negatiboa zeukala esango nuke, eta poliki-poliki galtzen zihoan. 2009ko edizioak arrakasta handia izan zuen, herritarrek oso ondo hartu zituzten aldaketak.

Gainera, alardeak jende gehiagoren parte-hartzea eskatzen du orain. Izan ere, orain arteko pertsonaiei mairuaren guardia eta musikariak batu zaizkie.

Erabaki horiek hartu aurretik hausnarketa prozesu bat burutu genuen elkartekideok, Eusko Ikaskuntzarekin batera, eta bertan ondorioztatutakoari jarraiki abiatu genuen zaharberritzea.

Zelako oihartzuna dauka Mairuaren Alardeak herritik kanpo?

Egia esan, esango nuke jende askok alarde zaharraren irudia daukala oraindik ere buruan. Ni beti saiatzen naiz azaltzen orain desberdina dela, eta ikustera gonbidatzen dut beti beste herri batzuetako jendea.

Zabalpenaren arlo hori ere lantzen duzue zuen elkartetik.

Hala da. Alardearen eguna datorenean soilik ez, urtean zehar ere bilerak egiten ditugu, eta antzuolarron ondarea den ospakizun hau herri barruan zein herritik kanpora zabaltzeko lan egiten dugu.

Gure herriaren ondare nagusia da, trokeo dantzekin batera, eta hori zaindu eta indartzea da gure helburua. Horretarako, adibidez, webgunea jarri genuen martxan duela pare bat urte (www.antzuolakoalardea.com), eta aurten autoetan jartzeko pegatinak atera ditugu, nobedade gisara.

Gainera, Antzuolako Mairuaren Alardea ondare ez-material izendatzearen alde gabilta lanean. Hala ere, oraindik nahiko berde dago kontua; izan ere, oraingoz, Eusko Jaurlaritzak ez dauka mota horretako erregistrorik.

Aixa
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!



Antzuolako jaietan

EGIN TOPA GUREKIN!

Gorosti • Larrea • Arin • Mox • Gailur • Ongi Etorri • Surpe • Aitz Garbi



Joselu Anaiak taldeak ez du hutsik egiten Antzuolako jaietan. | JULIO CALLEJA

Itziarren Semeak taldeak Gipuzkoan lehendabizikoz aurkeztuko du *Revolta* lana. | ITZIARRIN SEMEAK

Musika, jaietarako ezinbestekoa

Beti bezala, Herriko Plazan eta Zurrategiko txosnagunean izango dira kontzertu gehienak

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA
Lasaienetik dantzagarrienera, estilo, adin eta gustu guztietarako musika emanaldiak izango dira aurtengo Antzuolako jaietan. Hasteko, egunean, Bentazaharreko Mutiko Alaiak bosko-tearekin kantu afaria izango da,

22:00etan, eta geroago, Hontzaren jaitsieraren ostean, haiekin kalejira egingo dute.

Egubakoitz gauean, berriz, erromeria izango da plazan Ingo Al Deu? taldearen eskutik.

Zapatu eguerdian, 12:30ean, Zurrategiko kioskoan kontzertua

eskainiko du Bergarako Bandak, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Aurretik, kalejiran ibiliko dira erdigunean.

Gero, 22:30ean, jada klasiko bihurtu den emanaldia izango da plazan: Joselu Anaiak. 23:00etan zezensuzkoa egiten den bitartean atseden hartuko dute, eta hamaikak pasata ekingo diote berriro ere erromeriari.

Txosnetako egitaraua

Uztailaren 16tik aurrera Zurrategiko plaza izango da jai giroa metatuko den gunerik garrantzitsuenetakoa. Hori bermatzeko, guztientzako egitaraua zabala prestatu du txosna batzordeak. Eguenean, arratsaldeko zazpitan zabalduko dituzte txosnak, txanpanada eta guzti, eta lau egunetan zehar ia gelditu ere egin gabe arituko dira langile boluntarioak.

Egitarau horren barruan musika ez da faltako, noski, asteburuan bereziki. Lehendabiziko kontzertua egubakoitzean izango da, eta bertan rock doinuak izango dira nagusi taula gainean. 22:30ean

hasita, Petti bakarlariak, Klak!son antzularrek, Arrasateko The Convicts-ek eta Sukarra 37 goieritar gazteek girotuko dute gaua.

Zapatuan ere giro polita egongo da. 20:30ean hasita, Skandalue elektrotzaranga arituko da kalez kale herria dantzan jartzen. Gero, afalostean, kontzertuak hasiko dira Zurrategiko agertokian. Lehenik, hamaiketan, Joxe Replay baionarrek joko dute. 90eko hamarkadako Joxe Ripiau talde ezagunaren bertsioak egiten dituzte talde horrek. Haien erritmo karibetarrek dantzan jarriko dituzte herritarrek zein kanpokoak. Horren ostean, egitarauko talderik ezagunenetakoen txanda iritsiko da: Itziarren Semeak. Talde bizkaitarra pasa den urrian argi-

taratutako *Revolta* disko berriaren aurkezpen biran dabil orain.

Amaitzeko, erromeria izango da Fan&Go zarautzarren eskutik. Badira urte batzuk txosnetan Joxpa taldearen erromeria izaten dela. Hala ere, aurtun ezin izan dira etorri, eta erromeria zapatuta aldatu dute, Herriko Plazan ere Ingo Al Deu?-k joko du-eta.

DJak gaztetxean

Musika elektronikoa gogoko dutenek ere izango dute hura zuzenean entzuteko aukera. Zapatuan DJ jaia izango da gaztetxean, gauerdian hasi eta goizeko zortziak arte iraungo duena.

Josu Aranburu, M_Nu, B2B, Keep_A, Mengu, Joseba eta Dani arituko dira nahasketa mahaian.

Estilo, adin eta gustu guztietarako musika emanaldiak izango dira jaietan

Txosnetan Klak!son, Joxe Replay, Itziarren Semeak... arituko dira



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jai eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA




Ondo pasau jaixak!!!

amaia

Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

**Ondo pasau
Antzuolako jaietan!**



Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



Mahoizko prakak, alkandora txuria eta jaietako zapia soinean egingo dute dantza. | IMANOL GALLEGO

Udalbatza berriak lehen aldiz egingo du dantza

Oinarineko neska-mutikoen ikurrin-dantzaren ostean egingo dute

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Aurten ere, urtero legez, dantza egingo du Antzuolako udalbatzak jaien lehen egunean, eguena, hilak 16, Herriko Plazan. Udaltetik festetako lau egunei ongietorria egiteko modu bat da udalbatza-dantza.

Aurten, gainera, ikusmira berezia sortuko du ekitaldiak, lau urtean behin gertatzen den moduan; izan ere, eratu berri den Udal Gobernuak kideak lehen aldiz aterako dira plazaren erdira dantzarako haien abileziak herritarren aurrean erakustera.

Antzuolako esku-dantza egingo dute udal ordezkari berriek, txistularien musikaz lagunduta. Horren aurretik, baina, Oinarin dantza taldeko neska-mutikoei ikurrin-dantza egingo dute. 20:00etan hasiko dira haiek, eta ondoren iritsiko da alkatearen eta zinegotzien txanda.

Urtero jende ugari biltzen da Herriko Plazan Antzuolako dantzari txikien eta udal ordezkarien saioa ikusteko. Oraingoan, gainera, hasi baino pixka bat lehenago ume jaioberriei ongietorria egingo diete plazan bertan.

Egun handirako entsegua

Udalbatza berria entsegutan aritu da azken asteotan, egun handia iristean dantza ahalik eta ondoen egiteko asmoz. "Erridikulu handiegia ez egitea espero dugu", adierazi du Beñardo Kortabarria alkateak.

Hark azaldu duenez, udalbatza berriko kideek, orokorrean, ez daukate esperientzia handirik dantzan: "Nahiko traketsak gara guztiok, eta ni neu izango naiz, agian, taldeko guztien artean okerrera". Hala ere, bakoitzak ahal duena egingo du.

Herriko balkoirik dotoreena aukeratuko dute jaietan

Jaietako egubakoitzean, uztailak 17, erabakiko dute herritarrek zein izango den irabazlea

M.T. | ANTZUOLA

Urtero bezala, balkoiak lorez apaintzeko lehiaketaren bozketak eta sari banaketa egingo dituzte jaietako egubakoitzean, gastronomia lehiaketa abian den bitartean. Bertan parte hartzeko ez da izenik eman behar; izan ere, jaiak heldu baino lehenagoko azken egunetan Udaleko ordezkari talde bat herrian zehar ibili da lorez apaindutako balkoiei begira, eta lehiaketa irabazteko hautagai izango diren sei hautatu dituzte.

Egubakoitzean, aukeratu-tako balkoien argazkiak jarriko dituzte paneletan ikusgai, herritarrek euren gustukoena zein den aukera dezaten. Argazkietan ez da balkoiaren jabearen izenik ageriko, helbidea baizik. Herritarrek euren gustukoaren alde bozkatzeko auke-

ra izango dute. Kalebarrenen izango da hori, 10:30ean hasiko den gastronomia lehiaketarekin batera.

Bukatzean, balkoi bakoitzak zenbat boto jaso dituen jakiteko kontaketa egingo dute. Herritarren boto gehien jasotzen dituen izango da irabazlea, eta 100 euroko saria eskuratuko du Udalaren eskutik. Loreen sari banaketa gastronomia lehiaketakoarekin batera egingo dute.

Ohitura bilakatuta

1996an hasi ziren Antzuolan balkoi lehiaketa egiten. Aurtengo edizioa hemeretzigarrena izango da, horrenbestez.

Buztinazuri kalean bizi diren Pili Fernandezek eta Jokin Arantzabalen balkoia izan zen iazko lehiaketako irabazlea, antzuolarren erabakiz.



Lorez apaindutako balkoia Antzuolan. | MAIDER ARREGI



Ondarre, 9 ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 45
Faxa: 943 78 71 16
garitanocb@euskalnet.net

JAI
ZORIONTSUAK
ANTZUOLAR
GUZTIOI!



Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBArekin bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxa: 943 76 64 73



Erik Lizarralde | Gastronomía lehiaketako irabazlea

"Antzuolarrok ondo jatea atsegin dugu"

laz patata-tortilla lehiaketa irabazi zuen bere bi arrebeekin batera, eta aurten ere parte hartuko du

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Erik Lizarralde (Antzuola, 1983) iaz hartu zuen parte lehen aldiz jaietako gastronomía lehiaketan, eta irabazi egin zuen. Bi arrebeekin batera aurkeztu zen, Ainize-rekin eta Oihanerekin. Egun hartan patata-tortilla egin behar izan zuten; aurten, berriz, entsalada errusiarra.

Oraingoan, lagun batekin hartuko du parte, arrebeekin beharrean. Jaietako egubakoitzean, uztailak 17, 10:30ean hasiko dira sukaldariak platerak prestatzen, Kalebarrenen.

laz irabazi egin zenuen, eta aurten bigarrenez hartuko duzu parte gastronomía lehiaketan.

Hala da. Aurten, nire arrebeekin ezingo dute parte hartu, eta areto futboleko lagun batekin egingo dut. Lagun talde batean areto futboleko jokatzeko, eta haiek desafioa bota zidaten. Lehenago haiek bigarren geratu izan dira, baina inoiz ez dute irabazi. Beraz, esan zidaten ea aurten nirekin

batera lehen postua lortzen duten. Brometan hasi zen gauza bat izan zen, eta, azkenean, aurrera.

Aurten entsalada errusiarra egin beharko duzue. Nola ikusten duzu?

Ba ez nekien! Nik uste nuen tortilla izango zela. Banituen ideia batzuk tortilla apaintzeko, egia esan. Baina ez daukat inongo beldurrik, moldatuko gara. Irabazi edo galdu baino gehiago, jaietako giroan parte hartzea izaten da garrantzitsua.

Ahalik eta sinpleen egiten saiatuko gara, gehiegi konplikatzeko eta era tradizionalen, niri horrela gustatzen zait-eta. Gure amak oso ondo prestatzen du entsalada errusiarra, eta haren-gandik ikasitakoa praktikan jartzen saiatuko naiz. Ea nola ateratzen zaigun eta ea jendeari gustatzen zaion.

Egia da iaz, parte hartzeaz gain, erronka pertsonal bat ere bageneukala, hori bai: gure aitari irabaztea. Duela bi urte hark irabazi zuen txapelketa, eta



Lizarralde anai-arrebak iazko lehiaketan. | IMANOL GALLEGU

"Iaz erronka pertsonala izan genuen, aitari irabaztea"

"Platera askorik konplikatzeko eta era tradizionalen prestatuko dugu"

orduan esan nuen: aitari irabazteko, lehenengo postua lortu beharko dugu, derrigorrez. Eta hala gertatu zen. Hark bigarren egin zuen, azkenean, eta gu, haren seme-alabok, lehenengo gelditu ginen. Gainera, patata-tortilla aitaren espezialitateetako bat izan da betidanik.

Urtean zehar sukaldean aritzeko ohiturarik baduzu?

Bai, bai; jaiez gain, urtean zehar ere dezente ibiltzen naiz sukaldean, egia esan. Orain, gainera, badira hiru urte andrearekin bizi izaten nagoela, eta, orduan, etxean ere aritzen naiz.

Gainera, betidanik gustatu izan zait: lagunartean, elkartean... Beti probatzeko eta ikasteko prest. Gure etxean ere betidanik ibili izan gara sukaldean. Horregatik hartu genuen parte iaz hiru anai-arrebok batera.

Anaia zaharrena izanik, zu izan zinen iazko lehiaketan jefea?

Bai, anaia nagusia naiz eta zortzi eta hamazazpi urteko aldea daukat haietako bakoitzarekin; beraz, zelanbait, gidari lanetan aritu nintzen. Hala ere, arrebeekin noizean behin kontra ere egiten didate sukaldean.

Zaila da sukaldaritzan lehiaketako beteranoen aurka aritzea?

Nik esaten dut lehenengo urtean irabazi eta gero onena dela hurrengoan ez aurkeztea, lehen postua ezin baita hobetu. Baina, bueno, azkenean, berrirori ere hantxe izango naiz.

Nik lehiaketa honetan faltan sumatzen dudana da jende gehiegok parte hartzea. Azkenengoan, guztira, bederatzita izan ginen, eta nik uste dut Antzuola mailan jende gehiago batu daitekeela. Gazte gehiago biltzea ere ondo legoke, batzuetan jaietako lehen egunaren osteko biharamunarekin zaila izaten den arren.

Aurkezten direnen artean maila ona izaten da?

Bai, bai, beti dago maila handia. Guri, antzuolarroi, ondo jatea gustatzen zaigu, eta, ondo jan nahi baldin bada, prestatu ere ondo prestatu behar da, noski.

Nik uste dut herrian sukaldari txukun dezente dagoela. Elkarte asko daude, eta zaletasuna badagoela esango nuke.

Sukaldean zein da zure espezialitate nagusia?

Bakailaoa tomatearekin eta piperrarekin, adibidez, oso ondo prestatzen dut. Eta paellarekin ere nahiko ondo moldatzen naiz. Horrek biak aipatuko nituzke.

xinkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Eskulan ikastaroak
- Arropak
- Osagaiak
- Gozokiak.

Ondo pasau jaixak!!!



SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

ONDO PASA
ANTZUOLAKO
JAIK!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com



Aurtengo jaiek aplikazioa eta guzti daukate

Antzuolar batek diseinatu du eta doan instala daiteke Android telefonoetan

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Android telefono mugikorretan eskuragarri dago uztailaren 5az geroztik *Antzuolako jaixak* izeneko aplikazio informatiko berria. Google Play Storen izena bilatuz gero, zuzenean eta doan instala daiteke. Bestalde, Udalak argitaratutako jaietako egitarauan aplikaziora daraman QR kode bat azaltzen da, bertatik erraz deskargatu ahal izateko.

Ion Lizarazu gazte antzuolarrak diseinatu du erreminta berria, inizatiba propioz. Horretarako, Udalaren laguntza izan du egitarau osoa eta informazio gehigarria eskuratzeko.

Aplikazioan, jaietako egitaraua, Antzuolako taberna, txosna eta jaietako guneak non dauden erakusten duen plano eta festei buruzko informazio gehigarria topa daiteke. Hiru bloketan banatuta dago informazio guztia, eta "oso intuitiboa" dela aipatu du sortzaileak, "edonork erabiltzeko modukoa". Azaldu duenez, dagoeneko hogeita hamar deskarga baino gehiago izan ditu aplikazioak.



Guztiak erabiltzeko moduko aplikazioa da. | MAITE TXINTXURRETA

Segapoto

Antzuolako jaixak izeneko ez da mugikorrerako egin duen lehen aplikazioa. Sistema Informatikoen Ingeniaritza ikasi zuen unibertsitatean, eta ikasketen amaierako proiektu gisa *Segapoto* aurkeztu zuen, bertsoak egiten laguntzen duen aplikazioa.

Idea berritzaile horri esker, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako GipuzkoApp

lehiaketa irabazi zuen iaz, Manex Agirrezabal kidearekin batera.

Horrenbestez, aurrez bazuen aplikazio bat sortzen esperientzia. Berri horrekin, baina, gehiago ikasi nahi izan du, "autoformatuntzaren bitartez" mugikorrerarako gara daitezkeen baliabideak ikusi eta frogatzeko. Horretarako, uneoro eskuragarri eduki daitezkeen tresna praktikoa bat garatzea otu zitzaion.



lazko herri bazkaria, elizako arkupeetan. | IMANOL GALLEGU

Domekan ere, bazkaria elizako arkupeetan

laz bezala, Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak antolatu du eta 150 lagunendako tokia dago

M. T. | ANTZUOLA

Uztailaren 19an, jaietako azken egunean, mahaiaren bueltan batuko dira Antzuolako herri-tarrak elizako arkupeetan. Esku-bide zibil eta politikoen aldeko Ez Dot Moztuko Bizarra taldea izan da, bigarren urtez jarraian, domekako herri bazkaria antolatzeko ardura izan duena.

Aurtengo menua ondorengoa izango da: entsalada mistoa, oilasko-paella eta pastela; eta umeendako, makarroiak toma-tearekin eta izozkia. 150 per-

tsionarentzako lekua egongo da, eta txartelak gaztetxean eta Aitz Garbi tabernan daude salgai, 14 eurotan helduenak eta 7 eurotan umeenak.



Iaz ere 150 bat pertsona bildu ziren domekako bazkarirako eta arkupeak bete egin ziren.

Fermin Balentzia

Bakarleri nafarrak iazko bazkarian izan zuen harrera ona kontuan izanik, oraingo honetan ere hark girotuko du bazkalostea, gitarra lagun duela.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago, handitzen, berritzen eta gizarte eta ingurumenarekin konprometituta.



Iñaki Mata: "Hontza jaietako ikur bilakatu da"

Antzuolako buruhandi berria gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute Herriko Plazan, 18:30ean hasita

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Iñaki Mata antzuolarrak opari aparta egin dio herriari, beste behin. Gaur, uztailek 10, Herriko Plazan aurkeztuko du Matak egin berri duen bosgarren buruhandia arratsaldeko sei eta erdietan.

Aurten, gainera, herriko festetako ikur bilakatu den buruhandia irudikatu du: Hontza. "Herria maite dudalako; nik dakidana herriaren eskura jarri gura izan dut. Hontza egitea aproposa dela uste dut jaietako sinbolo bilakatu delako. Iaz Kultura teknikariari proposatu nion eta aurrera egitea erabaki genuen", azaldu du.

Teknika berriak ikertzea eta lantzea gustatzen zaiola dio. "Antzuolako buruhandiek beti nabil gauza berriak esperimentatzen; Hontzarekin ere esperimentatu dut eta sorpresaren bat edo beste izango dela aurrera dezaket".

Oraingoan, urrats bat gehiago egin du Matak eta buruhandia errealistagoa egin du; bizia eman diola dio. "Materialaz esperimentatu dut eta lumak jarri dizkiot buruan. Buruhandiak oso zurrinak, gogorak dira, normalean; estatikoak dira. Mekanismoak sartuz proba egin dut. Hala, mugimendua eman gura izan diet begiei, buruari... manipulazio aldetik beste buelta bat eman diot eta Antzuolako sinboloa den



Mata, buruhandi berria egiten tailerrear; lan definitiboa gaur ikusgai. | IÑAKI MATA

Hontzari bizitasuna eman gura izan diot", esan du artistak.

Bost buruhandi propio

Aurtengoarekin, Antzuolak bost buruhandi propio ditu: Mairua, Antzuolako Buruzagia, Mari sorgina, Tartalo eta Hontza. Gaztetxo zein heldu, sekulako harrera egin diete orain artean egindako lanei. "Gogoz eta ilusioz sartzen naiz hurrengo proiektuan horrelako harrera ikusita. Zentzua ematen die nire lanei". Matak onartu du Antzuolarako beste proiektu bat daukala buruan.



Hontzaren behin-behineko emaitza. | I.M.

Herriko festetan hondakinen bilketa zerbitzuak eta ibilgailuen aparkalekuek aldaketak dituzte

Jaiak bukatu ostean, uztailearen 25erako, zapatua, erreka garbitzeko dei egin dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko jaietan kontuan hartu beharko dituzte herritarrek zenbait ohar. Izan ere, hondakinen bilketa zerbitzuak aldaketak izango ditu; baita herriko aparkalekuen araudiak ere.

Aparkatzeko debekua

Autoek ezingo dute aparkatu uztailearen 14tik 21era Herriko Plazan, Herri Eskolaren aurrealdean eta Kalebarreneko 1. zenbakia duen atari aurrean. Eskolako patio aurrean ezingo da aparkatu uztailearen 15etik 21era.

Zirkulazio aldaketa

Autoek noranzkoak kontuan hartu beharko dituzte herri barruan. Hala, Kalebarreneko 17. zenbakitik, zubia barne, Buztinzuri 15era ibilgailuendako itxita egongo da herriko festek irauten duten bitartean; hau da, uztailearen 16tik uztailearen 19ra.

Sagasti 1etik gaztetxerainoko bidea ere itxita egongo da autoendako.

Hondakinen bilketa

Uztailearen 14a traste zaharrak ateratzeko eguna da eta ohiko ordutegia izango du; uztailearen 17an, ontzi arinak ateratzeko eguna; 18an, organikoa; eta 19an, errefusa; guztiak 12:00etatik 14:00etara. San Joxepeko larrialdi gunearen kanpo aldean organikoarendako eta ontzi arinendako edukiontzia jarriko dira.

Festak bukatutakoan, hilaren 25ean, erreka garbiketa eguna egingo dute. Ondoren, bazkaria egingo dute.

Autobus zerbitzu berezia

Hilaren 17an eta 18an gaueko autobus zerbitzu berezia izango da. Bergarara eta Zumarragara ordu erdiko maiztasunaz ibiliko dira autobusak.

Kaxeta eta Trekutz arteko bidea itxita egongo da ibilgailuendako lanak egin ahal izateko bertan

Asteburuan Kaxeta eta Trekutz arteko bidea itxita egongo da ibilgailuendako: zapatuan, hilak 11, egun osoz eta domekan, hilak 12, eguerdira arte. Izan ere, bidearen tarte bat hondoratua dago eta hori konpontzeko nahitaezkoa da errepidea itxita egotea eta ibilgailuak bertatik ez pasatzea. Aurrera hormigoia botako dute langileek eta ondoren, ondo lehortzen uztea komeni da. Horregatik, Trekutzera joan dutenek Gorlako edo Deskargako pistak erabili beharko dituzte.

Elyan natur denda



Ondo ibili jaietan!

Herriko plaza 4
Tel.: 945 78 61 04.



**DESKARGA
AUTOAK**

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75



Errekalde 6. Antzuola • 943 76 60 19 • 637 55 14 46 • 637 55 14 47

Ile apaindegia

Bob

Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa
Informa zaitez!

**Ondo pasatu
Antzuolako jaietan!**



Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

**ELEKTRIZITATEA
KOROSO
BURDINDEGIA**

Ondo pasau jaixak!

634 44 54 33
Kalebarren 1, behea • ANTZUOLA



Martitzenean agintaldiko bigarren osoko bilkura egin zuen Udal Gobernuak. | ANDER LARRAÑAGA

Oposizioaren ekarpenei zabalik gobernatuko du EH Bilduk

Herriko jaietarako 39.000 euroko aurrekontua onartu dute osoko bilkuran

JOKIN BEREZIARTUA / M. A. | ANTZUOLA
Agintaldiko lehen osoko bilkura hilaren 2an egin zuten eta agintaldi berrirako Antzuolako gobernu batzordea eta batzorde informatzaileak eratu zituzten. Hala, EH Bilduk gehiengo osoa duenez, gobernu batzordea osatuko du. Baina Beñardo Kortabarria alkatereak argi utzi zuen batzordetik kanpo geratu diren herritarrek ordezkatzen dituztenen ekarpenak ere aintzat hartuko dituztela; baita EAJren eta Alderdi Sozialistaren ekarpenak ere.

Era berean, Kortabarria alkatereak egun osoko dedikazioa izango duela eta urtean hamalau pagatan banatuta hilero 2.000 euro garbi kobratuko dituela adostu zuten osoko bilkuran.

UDAL BATZORDEAK

BATZORDEAK	BATZORDEBURUA (EH BILDU)	KIDEA (EAJ)
Ogasuna eta Pertsonala	Beñardo Kortabarria	Basilio Ormazabal
Hirigintza eta Zerbitzuak	Beñardo Kortabarria	Basilio Ormazabal
Kultura	Usoa Agirre	Basilio Ormazabal
Hezkuntza	Mikel Bargiela	Luis Jabier Telleria
Kirola	Garazi Larrea	Basilio Ormazabal
Gazteria	Jon Ugarteberu	M. Eugenia Arrizabalaga
Euskara	Jon Ugarteberu	M. Eugenia Arrizabalaga
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	Alaitz Igartzabal	M. Eugenia Arrizabalaga
Nekazaritza eta Ingurumena	Jon Iturbe	Luis Jabier Telleria
Parte-hartzea	Beñardo Kortabarria	M. Eugenia Arrizabalaga

*Alderdi Sozialistak ordezkarik bakarrik izanik, Miren Arrate Gallastegi, berak hartuko du parte.

Oposizio eraikitzailea

EAJk, bestalde, uko egin dio gobernuan sartzeko EH Bilduren proposamenari, baina oposizio eraikitzailea egingo dutela aurreratu dute: "Gobernuan ez gara sartuko, herritarrek garbi esan dutelako nork gobernatu gura duen. Hori bai, laguntzeko eta ekarpenak egiteko prest gaude", dio EAJko bozeramaile Basilio Ormazabalek. Miren Gallastegi zinegotziak adierazi duenez, Alderdi Sozialistak ere Antzuolaren alde egingo du lan: "Kargua hartzeko ekitaldian pozik entzun genion alkateari udal honetako ateak zabalik egongo direla sentibiltate guztiendako. Guk gure aletxo jarri nahi dugu antzuolaren bizitza hobetzeko".

Osoko bilkurak

Osoko bilkuren ohiko deialdiak hileko lehen martitzenetan egingo dituzte, arratsaldeko zazpitan. Bestalde, batzorde informatzaileen maiztasunak ez dituzte finkatu, uste dutelako batzorde horietan parte hartuko duten zinegotziak euren kabuz antolatzea eraginkorragoa dela. Batzorde kopurua aurreko agintaldiko berbera izango da; baina urtea amaitu bitartean aztertuko dute funtzionatzeko modu hori eraginkorra den edo ez.

Jaien aurrekontua onartuta

Martitzenean, uztaileak 7, agintaldiko bigarren osoko bilkura egin zuten, eta jaietarako 42.000 euroko aurrekontua onartu zuten. Hain zuzen, 3.000 euro San Isidro festetarako eta 39.000 euro herriko festetarako bideratuko dituztela adostu zuten.

Jaiekin lotuta, Antzuolako Udalaren eta Euskadiko Feriante Autonomoen Elkartearen arteko hitzarmen proposamena ere onartu zuten.

Mendizabal eta Barriola, Altunaren eta Tolosaren aurka

Herriko festen baitan, profesionalen pilota partidu batez gozatzeko aukera izango da. Uztailearen 17an, egubakoitzean, jokatuko da partidua, 22:30ean hasita. Aitor Mendizabal antzuolarrak eta Abel Barriola leizarrak osatutako bikoteak Jokin Altunarekin eta Xabi Tolosarekin neurtuko ditu indarrak.

Entsalada errusiarra protagonista aurtengo gastronomia lehiaketan

Aurten, hilaren 17an egingo dute festetako gastronomia lehiaketa. Entsalada errusiarra prestatu beharko dute lehiakideek. Antzuolako gastronomia elkarteek, auzotarrak, kuadrillek, herriko edozein elkarterekin elkarrekin eman dezakete izena. Azken eguna uztailearen 13a da, astelehena.

OHARRA

AKE: URTEKO BATZARRA

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzarra egingo du gaur, egubakoitza, uztaileak 10. Olan etxean egingo dute eta lehen deialdia 18:30ean da; bigarrena, aldiz, 19:00etan. Bilera irekia da eta ez da AKEko bazkideentzat bakarrik. Hala, herritar guztiak daudela gonbidatuta eta parte hartzera azaldu dute elkartereko kideek.

HORTZ KLINIKA
Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

RPS: 306/13

**PADI • Odontologia orokorra
Periodontzia eta inplanteak**

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behea 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

Itzar

**LIBURU DENDA
ESTANKOA**

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

helburu
zure hezkuntza akademia

**943 05 70 95
670 68 58 07**

Herriko plaza 12 • Antzuola
helburuakademia@hotmail.com

Ondo pasau jaixetan!

Nereia

Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

Marilina mertzeria

**Jai zoriontsuak
antzuolar guztiei!!!**

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

martin okindegia

Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

**Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!**

Belorrietako lorategia umeen jolasetara egokitua

Guneak egingo dituzte hainbat materialekin eta hesia jarriko dute; hiru astean bukatuta egongo da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Belorrieta auzoko lorategi zati bat egokitzen hasi dira astean. Lanak egiten dabilta Azpeitiko Kimu Bat enpresako kideak eta hiru bat astean bukatuta izango dute. Horren aurrekontua da 13.544 euro (BEZ barik).

Umeen garapenerako

Pausoka haur eskolako kideek egindako eskaera ontzat hartu du Udalak. "Umeen garapenean ezinbestekoa da esperimintatzea. Horretarako gune bat gura genuen eta lorategian hesi bat jartzeko eskatu genion, txakur-kakaz beteta egoten delako", diote, eta gaineratu dute: "Hortik abiatuta lorategiari itxura guztiz berria ematea erabaki du Udalak eta guk pozik hartu dugu".

Zoru gogorra eta ingurune berdea uztartuko dituzte, eta naturako elementuak erabilia hainbat gune egokitu han: "Harea-gunea egongo da enbor zatiekin inguratuta; egur abarrekin egindako ezkutalekua; zubitxo eta gordelekua ere bai. Gainera, sokak egongo dira helduta egiteko ibilbide osoa", azaldu dute Pausokako hezitzaileek.



Pausokak erabiltzeko egokitzen dabilta Belorrietako lorategia. | MIRARI ALTUBE

Lorategi osoa egongo da itxia hesiarekin, txakurrak pasa ez daitezten. "Hesiak, baina, ez du garaiera handirik izango. Ez dugu nahi hori traba izaterik, umeek gainerako herritarrekin harremana izan behar dutelako". Horregatik, inguruan jarlekuak egongo dira lorategira begira.

Haur eskolako umeek lehen-tasuna izango dute lorategi hori erabiltzeko orduan, baina haiek ez daudenean edonork erabili ahal izango du.

Basabeazpin hesia

Herriko gainerako ikastetxetako jolaslekuetan ere lantxoak egingo ditu Udalak. Kurtzebarri eskolakoari dagoeneko jarri diote hesia, eta laster bukatuta izango dira lan guztiak.

Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean ere hesia jarriko dute ikastetxearen aurrealdeko espazioan, umeak arriskurik gabe jolas daitezten. Lanok uztailarekin batera bukatuta izango direlakoan daude udal ardura-dunak.

25. urteurrena borobildu dute

Puzgarriak, ipuin kontalaria, Arrasateko Kilikien eta Erraldioen konpartsa, gaitariak, argazkien erakusketa, *photocalla* eta herri bazkaria. Horiek guztiak eta gehiago izan zituzten joan den zapatuan haur eskolaren 25. urteurrena ospatzeko, eta herriko familia asko elkartu ziren Belorrietako egoitzaren inguruan. Zortzi umerekin hasi zuen ibilbidea Pausokak 1990eko uztailan. Eta horiek izan zituzten gogoan jaialdian. Oroigarritxo bana banatu zien horiei eta orduko alkate Pedro Mendieta, proiektua babestu izanagatik.



Pausokako lehenengo zortzi ikasleak eta orduko alkate Mendieta. | M.A.

Gerriko beltza Oxel Vazquez karatekarendako

Lehenengo Dan gerriko beltza eskuratu du Oxel Vazquez UDAko karatek. Getxon egin zuen proba joan den zapatuan, eta urte askoan egindako lanaren ondoren iritsi da fruitua. Aurrerantzean ere lanean jarraitzeko asmoa agertu du Vazquezek, hobetzen joateko.



ODILO VAZQUEZ

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

NIRE USTEZ

YERA
SANCHEZ



Balzolaren unibertsoa

Egunotan sarri aipatu da komunikabideetan Elena Odriozola ilustratzaile handiaren izena; izan ere, Espainiako ilustrazio saria irabazi berri du. Odriozolaren izena eta marrazkiak aski ezagunak dira gure artean, baina duela 30 urte, 1985ean zehazki, Euskal Herriko beste emakume ilustratzaile handi batek irabazi zuen sari bera -1978an bigarren saria eskuratu eta gero-: Asun Balzolak, hain zuzen.

Asun Balzola Bilbon jaio zen 1942an eta Madrilen zendu 2006an. Ilustratzailea ez ezik, idazlea eta itzultzailea ere bazen,

eta, horrez gain, prentsan, publizitatean eta diseinu grafikoan ere aritu zen. Forgesekin batera, APIM Madrilgo ilustratzaileen elkarterko buru izan zen.

Aurten ere, urtero bezala, Eskoriatzako liburu azokan izan naiz eta Balzolaren bi liburu zahar topatu ditut. Zelako altxorra! Ingurukoei nire poza berri ematean, ordea, konturatu naiz gehientzat ezezaguna dela eta ilustratzailearen marrazkiak ez dituztela inondik inora irudikatzen. Ziur nago txikitan guztiok izan dugula Anjel Lertxundiren *Negua* esku artean eta guztiok hunkitu gintuztela liburu horretako marrazkiek.

Goienako zutabetxo honek balioko ahal du Balzolaren izena gogora ekartzeko. Akaso, baten batek Interneten begiratu eta artista horren unibertsoarekin berriro gozatuko du, umetan bezala, baina orain jakinaren gainean.

Batzar orokorra egingo du UDAk gaur eta 2015-2020 plana aurkeztuko du

M.A. | ARETXABALETAKO

Aretxabaleta kirol elkarteak gaur, 18:30ean, Arkupen egingo du batzar orokorra. Kirolariei sariak ere banatuko dizkiete, eta Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea han izango dela iragarri dute.

Bukatu berri den denboraldiari gainbegiratu eginez hasiko dute batzarra. Ondoren, zuzendaritza batzorde berria izendatuko dute; bi lagun baka-

rrik aldatuko dira, gainerakoek jarraitu egingo dute. Zuzendaritza horrek aurkeztuko du 2015-2016 denboraldia. "UDA, herri sentimendua. 2015-2020 plana burutzen jardun dugu azken asteetan. Ondorioen artean dago batzordearen funtzionamendu aldaketa", argitu du Adrian Merino presidentek. Diru kontuak ere aurkeztuko dituzte eta galderak egiteko tartea izango dute bazkideek.

Kiroldegiko solariumeko arauak bete egin behar direla gogorarazi dute

M.A. | ARETXABALETAKO

Kiroldegiko solariumak bisitari asko hartzen ditu egunero; horregatik, bete beharreko arauak gogorarazi dituzte.

Hona: derrigorrezkoa da bainujantzian igotzea; solariumetik igerilekura sartzeko eta irteteko oinak garbitzeko lekutik pasatu behar da; haima azpiko mahaian

bakarrik jan daiteke; mahaia, aulkia eta hamakak garbi eta txukun utzi behar dira; eguzkitakoak sorosleari eskatu eta itzuli; ezin da baloiarekin jolastu; ezin da arrapaletatik gora igo; eta beti soroslearen argibideak jarraitu. Arauok bete ezean zigorrak ezarri ahal izango dituztela jakinarazi dute.

Errasti aroztegia

Ateak • Leihoak • Tarimak • Parket flotatzailea
Horma-armairuak • Edozein motatako lanak

Basabe industrialdea, 20A . 20550 Aretxabaleta . 673 98 21 57 errasti_jr@hotmail.com

Trapu Zaharra taldearen umorea eguaztenean Duranan

'Ongi etorri Amaieramundi' antzezlan eskainiko du, 19:00etan

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Eguaztenetako kale antzezlanen egitarauak aurrera jarraitzen du, herenegun Markeliñek *Zoozoom* eskaini eta gero. Datorrenean, uztailak 15, Trapu Zaharra taldea izango da Durana kalean, 19:00etan. *Ongi etorri Amaieramundi* lanarekin etorriko dira, ohi legez, umore eroa oinarri hartuta.

30 urtetik gora daramatza antzerkigintzan Trapu Zaharra, eta Aretxabaetan ere ondo baino hobeto ezagutzen dituzte, azken urteotan ohiko geldiuena egiten du-eta. Oraingoan, munduaren amaierarekin kezkatuta agertuko dira, eta Aretxabaetara datoz, gizakiak salbatzera etortzeko den estralurtarren espazio-ontzi bati itxoitera.

'Tomorrowland' filma

Martitzenetan eta eguenetan, oster, udako zinemaren txanda



Markeliñe taldeak egindako animaliak eguaztenean, Herriko Plazan. | M.A.

izango da eta Arkupen emango dituzte, lau euroren truke. Aurtun, abenturak eta zientzia fikzioa oinarri dituzten bi pelikula izango dira; azken asteotan arrakasta handia izan duten filmak, hain

zuzen ere. Hilaren 14an eta 16an, 19:00etan, *Tomorrowland* (AEB, 2015, 129 minutu) eta hilaren 21ean (19:00) eta 23an (19:00 eta 21:30) *Jurassic world* (AEB, 2015, 124 minutu).

OHARRAK

AUTO TELEGIDATUEN ERAKUSTALDIA

Auto telegidatuak zelan ibiltzen diren erakutsiko dute domekan, hilak 12, Herriko Plazan. Bi saio egingo dituzte: 11:30ean eta 18:00etan.

DESFIBRILADOREAREN GAINEKO IKASTAROA

Bihotzekoak emandakoan zelan lagundu ikastaroaren bigarren atala egingo dute Basotxo erretiratuaren elkarreko bazkideek martitzenean, hilak 14, 17:30ean, egoitzan. Gurutze Gorriko erizain Marina Madariaga izango dute lagun, eta desfibriladorea zelan erabili irakatsiko die oraingoan.



Sanferminak udalekuetan

Udaleku irekietako neska-mutikoeak San Fermin eguna ospatu dute asteen; uztailaren 6an, hain zuzen ere. Goizean txupinazoa bota zuten eta zezentxoan aurrean lasterketak egin zituzten; eta arratsaldean jolasak Herriko Plazan. Hori bai, bero sapari aurre egiteko ur jolasak egin behar!



Hungaria eta Txekia ezagutu ditugu Basotxokook

Hungaria eta Txekia aldean ibili gara Basotxoko 21 lagun, benetan herrialde interesgarriak. Europako Batasunean egon arren ez dituzte txanponak aldatu eta jarraitzen dute florinak (Hungarian) eta koroak (Txekian) erabiltzen. Hala, bada, hizkuntzak batetik eta txanponak bestetik, nahikoa saltsa izan dugu, baina ondo moldatu gara. Argazkian, Pragan gaude, erloju astronomiko ospetsuaren aurrean; 1490ean fabrikatua, oraindik martxan dago.

KOMUNITATEA GOIENA | BASOTXO | ARETXABAETA

Bost batzorde izango ditu udalbatza berriak

Murritz egin dute kopurua: Parte-hartze saila aurrerantzean zeharkako gaia izango da

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Ekain amaieran egindako batzurrean eratu zituzten datozen lau urteetan lan egingo duten batzorde informatiboak. Lierni Altuna alkateak esan zuen moduan, "praktikotasunagatik" batzorde kopurua murritz egin dute. Orain arte zortzi zinegotzik osatzen zuten Udal Gobernu, baina aurrerantzean sei izango dira zinegotziak. Hori horrela, praktikotasunagatik batzorde kopurua bostera murritz egin dute.

Parte-hartzea

Auzoak batzordea Hirigintza batzorde barruan sartu dute; Ingurumena eta Mendia ere elkarrekin egin dituzte: eta Gizarte Ongizate batzordean sartuko dituzte Gazteria, Migrazioa eta Berdintasuna sailak.

Bestalde, Parte-hartze batzordea ez da batzorde moduan egongo; zeharkako gaia izango da eta alkateak izango du horren ardura. Beheko taulan ikus daitezke batzordeak eta horien arduradunak.

UDAL BATZORDEAK

BATZORDEAK

Kultura eta Kirol batzordea

Gizarte Ongizate batzordea

Ingurumena-Mendiak batzordea

Hirigintza-Auzoak batzordea

Zerbitzuen batzordea

BATZORDEBURUAK

Cristina Etxenausia

Jose Ramon Uribe

Jon Ugarte

Martin Arriolabengoa

Roberto Lasaga



JOSU OLAIZOLA

Lakua lehiaketatik txapelarekin

Julen Olaizola aramaioarra eta Oxel Garitano arrasatearra Gasteizko Lakua sarietako txapeldunak dira. Orozkoko eta Laudioko bikotearen aurka 18-10 irabazi zuten. Denboraldiari amaiera emateko, bihar, zapatua, 10:00etan, pilota partidua jokatuko dituzte Aramaioko kiroldegian eta ondoren elkarreko bazkaria izango dute.

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte domekan Urribarrin

San Kristobal ermitan meza esango dute, 12:00etan. Aurrez, ermitara joateko ibilaldia egingo dute Urribarri auzotik irten da. Iaz berreskuratu zuten tradizioa da hori, eta herritarrak animatu nahi dituzte aurtun ere ibilaldian parte hartzera. Mezaren ondoren, dantzariak eta edatekoa, auzo bazkaria eta arratsaldean bolo txapelketa eta dantzak izango dira.

Nagore eta Txominek kontzertua eskainiko dute Iturrietan

Nagore eta Txomin bikoteak kontzertua eskainiko du Iturrieta sagardotegian zapatuan, 19:00etan. Euren sortutako abestiak eta betiko euskal abestiak eskainiko dituzte. Musika lasaia entzunaz arratsalde polita pasa nahi duenarentzat aukera ona izango da, esan bezala, Iturrieta sagardotegian.



Film labur jaialdiko kartelak. | KORTERRAZA

'Korterraza Araba' film labur jaialdia parkean

Gaurkoaz gain, egunean Laburbira eskainiko dute Sastiñan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aire librean egiten den *Korterraza Araba* film labur jaialdiak Aramaion egin du geldialdia. Atzo egin zuten lehenengo emaldia eta gaur bigarrena egingo dute -22:00etan, parkean-. Kultura Kalean! elkarteak antolatzen duen jaialdia Araba osora zabaltea erabaki dute aurten. Helburua da Arabako film labur onenak herritarrei erakustea.

Ikuslearen saria: 1.000 euro

Jaialdiak sail ofiziala izango du. Sail horretan 20 lan eskainiko dituzte. Ikusleek euren botoekin erabakiko dute ze lani eman 1.000 euroko saria. Antolatzailerik filmen kalitate ona nabarmendu dute; horrez gain, intentsitate handiko lanak direla azaldu dute eta protagonista asko aurpegi ezagunak direla. Film gehienak umorezkoak edo dramak dira:

baina nabarmendu behar da bel-durrezko filmak ere badaudela: *Ultravioleta* eta *Tanatopraxia*, adibidez. Beste bi lan animaziozkoak dira: *Katakroken* eta *Ghostly*.

Eguraldi txarra egiten bada, jaialdia Sastiñan izango da.

Egunean Laburbira

Topaguneak antolatzen duen Laburbira film laburren zirkuituan batzen dituzten filmak egunean erakutsiko dituzte Sastiñan. 22:00etan izango da emaldia, eta ordu eta laurden inguru iraungo du. Euskarazko sorkuntzaren kalitatearen erakusgarri da bira.

San Fermin jaia ospatuko dute gaur udalekuetako gaztetxoek zapi gorria lepoan jarrita

A.E. | ARAMAIO

Ekintzaz betetako bi aste izango dituzte herriko gaztetxoek. Eguztanean hasi zizuten udalekuak eta uztailearen 21ean bukatuko dituzte: 105 neska-mutikok parte hartuko dute, bederatzita taldetan banatuta.

Gaur, egubakoitza, San Fermin jaia ospatuko dute. Zapi gorria lepoan jarrita zezenaren aurrean ibiliko dira korrika.

'Lip dub'-a grabatuko dute

Aurtengo berrikuntzetako bat izango da uztailearen 15ean grabatuko duten *lip dub*-a. Taldeek euren erabaki beharko dute zer eta non grabatu. Egindako lana azken jaian aurkeztuko dute -hilaren 21a, martitzena.

Herrian egingo dituzten betiko ekintzez gain, Euskararen Eguna ere ospatuko dute. Zuia-ko Kuadrillak antolatuta, Duran izango da aurtengo ekitaldia, uztailearen 16an, eguna. Puzgarriak, hamaiketako eta dantzaldia izango dituzte Duran, eta 14:00etan Aramaiora itzuliko dira.

Igerilekura joango dira

Astelehenean Otxandioko igerilekura joango dira talde batzuk eta gainerako taldeak martitzenean joango dira.



Taldetan banatuta, globoekin jolasean gaztetxoak. | ARANTZAZU EZKIBEL

Umore onean, hurrengora arte!

A.E. | ARAMAIO

Bukatu dira aurtengo San Martin jaia. Giro onean ibili dira herritarrek, eguraldia lagun. Betiko ofizioak mantendu dituztenak omendu zituzten pregoian: Fermin Etxebarria, Santi Elejalde, M. Luisa Gonzalez de Audikana eta Jesusa Bergaretxe izan ziren udaletxeko bakoian. Euren arduraz izan zen suzuria botatzea.

Irrintzi txapelketa

Aurten lehenengoz egin duten irrintzi txapelketan Oihana Amezkua izan da irabazlea. Gazteen

mailan, Ibabe anai-arrebek egin zituzten irrintzi onenak. 20 parte-hartzaile izan ziren lehian.

Film labur lehiaketa eta pikea

Film labur lehiaketako irabazleak Gillen eta Manex Agirre, Jone Arriolabengoa, Mikel Ruiz de

Azua, Jon Errasti eta Nahia Bales izan ziren. Kuadrillen arteko pikean, aldiz, sei talderen artean Aristo-Krazia eta Oporlariak iritsi ziren finalera. Aristo-Krazia izan zen garaile.

Urrezko Gibela Mikel Ruiz de Azuari eman diote.



Kuadrillen arteko pikea.



Umeak, gustura, apar jaietan.



Asteleheneko herri afarian kuadrillak mozorrotuta.



Etxebarria, Gonzalez de Audikana, Bergaretxe eta Elejalde pregoilariak.



Oihana Amezkua, irrintzi txapeladuna.



Papargorritxo, Izan eta Elai taldeen saioak, egubakoitzean.



Tortilla lehiaketako irabazleak. | ARGAZKILARIAK: IMANOL GALLEGU, AITOR AGIRIANO ETA IMANOL SORIANO.

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Oihana Amezkua, irrintzi txapeladuna.



Mikel Ruiz de Azua, Urrezko Gibela.



Elgetako casteller taldea, Mozorro Egunean. | IMANOL GALLEGU



Elgetako gazte kuadrilla gerizpea egiteko eguzki-oihal azpian bazkaltzen, Herri Egunean. | IMANOL GALLEGU

Aurten ere festa izan da nagusi Ferixa Nagusietan

Udalak galdetegi bat banatu du etxez etxe herritarren balorazioa jasotzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Joan dira 2015eko Ferixa Nagusiko jaiak. Orain, herria txukundu eta balorazioa egiteko unea iritsi da. Udal arduradunek jaiak ondo joan direla uste dute: "Jende askok egin du lan jaiak aurrera atzeratzeko, eta haiei eskerrak ematea besterik ez da gelditzen",

esan du Iraitz Lazkano alkateak. Baina herritarren iritzia jakin nahi dute udaletxean, eta galde-gegiak banatu dituzte etxez etxe. Bete eta udaletxera itzultzeko eskaera egin diete herritarrei. Jai batzordea ere deituko dute datozen egunetan balorazio horien irakurketa egiteko.

Argazkiak eta bideoak Goienan

Urtero legez, askotarako eman dute Ferixa Nagusiko jaiak. Argazki eta bideo galeriak daude ikusgai goiena.eus/elgeta atari digitaletan. Eta gaur, barikua, Elgetako eta Aramaioko jaien gaineko saio berezia emango du Goiena telebistak, 22:00etan.



Elgetarrak Irulegiko ekoizle baten foie-grasa dastatzen, azokan. | IMANOL GALLEGU

Iraitz Lazkano: "Helburua da herritarrek nahi duten gaitan parte hartzea"

L.Z. | ELGETA

Hilabete darama Iraitz Lazkano elgetarrak alkate karguan. Ferixa Nagusiko jaiak izan dira lehenengo erronka handia, baina beste batzuk datoz jarraian.

Kargua hartu berrikan, elkarriketa egin dio Goiena telebistak. Lazkanok amaitu berri diren jaien gainean, hartutako

lehenengo erabakien gainean eta aurrera begirako lehentasunei buruz hitz egin du elkarriketa horretan.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Zabalik jarraitzen du uztailean egitekoa den dantza jauzien ikastaroan izena emateko epeak

Ikastaroak hamar orduko iraupena izango du eta uztailearen 20tik 24ra bitartean egingo dute Espaloia kafe antzokian. Herrixa Dantzan ekimenak antolatua da eta sakontze maila izango du; beharrezkoa da dantza jauzietan ondo moldatzea. Prezioa da 50 euro. Interesatuak herrixadantzan@gmail.com helbide elektronikoan jasoko dituzte argibide gehiago.

KOMUNITATEA GOIENA
HERRIXA DANTZAN | ELGETA

OHARRAK

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

Irailan helduko da Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrira. Informazioa zabalteko eta ekintzak antolatzeko batzar irekia deitu dute gaurko, hilak 10, 19:00etan, udaletxean.

ZOKKETA: SAN ROKE

San Roke kaleko auzotarrak hasita daude jaiak prestatzen. Abuztuaren 16an ospatuko dituzte eta domeka honetan, hilak 12, jaiak diruz laguntzeko antolatu duten zokketa egingo dute. Adi, beraz, saritutako zenbakie!



Entzierro berezia bi hankako zezen txikiekin

San Fermin egunarekin entzierroa egin zuten udalekuetako neska-mutikoei. Hala, behin baino gehiagotan entzun zen Elgetan sanferminetako kantu ospetsuena. Lehenengo aldiz San Roke kalean; bertan egin zuten lehen entzierroa gaztetxoek. Gero, txikienekin frontoian elkartu eta beste saio bat egin zuten guztiek batera. Maskara aurpegian txikiek egin zuten zezena. Herri kirolen saioa etorri zen ondotik.

Erretiratuak Pozalaguako kobetan

KOMUNITATEA GOIENA
ERRETIRATUEN ELKARTEA | ELGETA

Elgetako erretiratuak egun-pasa polita egin genuen ekainaren 24an Karrantza aldean. Pozalaguako kobak ere bisitatu genituen.



LUIS MARI ARANTZETA



Iñigo Uribarren. | GOIENA



Maialen Axpe. | GOIENA



Malen Ruiz de Azua. | GOIENA

ATLETISMOA

Ruiz de Azua, Uribarren eta Axpe, Europakoan lehian

- ▶ Atzo, eguena, jokatu zituzten kanporaketak Tallinen (Estonia)
- ▶ Euren marka hobetzea edo finalerako sailkatzea dira helburuak

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Europako Txapelketatan onenak lehiatzen dira, eta horregatik daude Tallingo (Estonia) atletismo txapelketan hiru arrasatear: Maialen Axpe, Malen Ruiz de Azua eta Iñigo Uribarren. Lehenengo biek pertika-jauzian lehiatzen dihardute –atzo, eguena, hasi zuten– eta Uribarrenek, jauzi hirukoitzean.

Atzo jokatu zituzten diziplina bakoitzeko kanporaketak, eta lortutako markaren arabera aurrea egingo dute hiru atletek –erredakzioa ixterakoan ez ziren eza gutzen emaitzak.

Helburuak

Espainiako Federazioak dirurik ematen ez duenez, oso marka onak behar izaten dira Europa-koetan parte hartu ahal izateko. Hala, hiru arrasatearrak egindako lan onari esker daude Estonian:

pertika-jauzilariak 4,10 metro eta Uribarrenek 15,84 metro. Eta, hain zuzen ere, marka horiek hobetzea dute helburu. "Helburu moduan bi aukera ipini dizkiet Axperi eta Ruiz de Azuari: euren marka hobetu edo finalerako sailkatu. Biak lortzen badituzte, itzela izango da", dio Jonathan Perez entrenatzaileak. Uribarrenen helburuak berberak dira.

Dominak lortzea oso zail

Ruiz de Azua eta Axpe oso ondo daude fisikoki. Uribarrenek min dauka hanka baten: faszitisa, hain justu ere. "Ruiz de Azua heldu da ondoen txapelketara eta 4,15 edo 4,20 metro egiteko moduan egon daiteke", dio Perezek. Gakoa pistara ondo moldatzea izango da. "Ez dute lekua ezagutzen eta ez dakite haizearen indarra zen-

batekoa izango den. Horiek guztiak ondo menderatzea ezinbestekoa izango da".

Finalerako txartela lortu ostean, dominak irabazteko aukera dator. Hori, baina, "ezinezkoa" dela dio entrenatzaileak: "4,30 metroko jauzia egin behar da dominetatik gertu egoteko. Oso zaila da".

Europako lehena

Jauzi hirukoitzean Espainiako txapelketa irabazi ostean –15,70 metro egin zituen–, Iñigo Uribarren "disfrutatze" gogoz dago Europakoan. "Lehen esperientzia du nazioarteko txapelketatan eta ikasteko eta disfrutatze gogoa dauka. Ruiz de Azuak eta Axpek aurrez parte hartu izan dute Europako eta Munduko txapelketatan. Horren ondotik, helburuak lortzen baditu, askoz hobeto", dio Perezek.

ESANAK

"Helburuak dira: marka hobetu edo finalerako sailkatu"

"Tallinen dominak lortzea ia ezinezkoa izango da"

JONATHAN PEREZ | ENTRENATZAILEA

TXIRRINDULARITZA

Antzuola saria domekan, Iñaki Lete memoriala

Profesional mailara salto egin duen Imanol Estevez izan zen iaz azkarrena

X.U. | ARRASATE

Domekan 13:00 aldera Antzuola-ko kaleak azkarren zeharkatzen dituen ziklistak jasoko ditu besoak helmugan. Ikusteko dagoena da azken urteotan moduan esprintak

erabakitzen duen irabazlea edo Kanpanzartik bueltan ihes egindako batek irabazten duen lasterketa.

Hala, urteurren borobila beteko du Lehendakari Txapelketa-

rako baliagarria izango den probak, 70 edizio jada, eta iazko irabazlea gaur egun profesionalan ikustea –Murias taldeko Imanol Estevez– bada saria, lasterketara amateur mailako onen-tsuenak datozen seinale.

130 kilometro

09:30ean hasiko dute proba, eta Bergara, Antzuola eta Oñati artean 70 kilometro egin ostean Deskarga igoko dute lehenengo (11:25) eta Asentzio gero (12:25). Kanpanzartik, zuzen helmugara.



Iwazko proban. | GOIENA

MENDI BIZIKLETA

EskoXtrem martxa egingo dute zapatuan Eskoriatzan

Mendi bizikleta irteera egingo dute bihar, zapatua, Eskoriatzan (08:30ean, plazan). Iaz moduan, aurten ere antolatu-tzaileek aparteko lana hartu dute ibilbide erakargarria prestatzen, bidezidor asko, tarteka teknikoki zorrotzak, eta fisikoki ere ondo daudendako zuzenduta. Guztira, 50 kilometro izango dira, 2.000 metroko desnibelarekin.

ARETO FUTBOLA

Aretxabaleta areto futbol taldeak Euskal Ligan jokatu du

The Nest taldeak uko egin dio Euskal Ligari eta Aretxabaletak beteko du haren lekua. "Aurreko denboraldi batzuetan ere izan dugu igotzeko eskaintza, baina ez dugu onartu. Aurten, bai. Talde polita daukagu eta erronka onartzea erabaki dugu", esan du Iker del Tesok. Hala, aurten Eskoriatzaren eta Aretxabaletaren artean derbia izango da.

FUTBOLA

Debagoieneko kuadrillen arteko txapelketa hilaren 18an

Zazpigarrenez egingo du UDAk Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa (uztailak 18), eta izena emateko epea zabalik dago (100 euro taldeko). Hona bideak: Twitter edo Facebook bidez; Whatsapp bidez (635 20 64 33); edo honako helbidean: udaretxabaletake@gmail.com. Izena emateko azken eguna uztailaren 16a da.

MOTORRA

A+Gas taldeak irailera atzeratu du asteburuko motor 'show'-a

Joan den urtean Arrasateko Markulete industrialdean egindako auto erakustaldiak arrakasta polita izan zuen, baina aurtengoaz gozatzeko irailera arte itxaron beharko dute zaleek, aseguru arazoengatik irailera arte atzeratu behar izan dutelako A+Gas taldeko lagunek. Oraingo hau Garaia Berrikuntza Gunean egin gura dute.

FUTBOLA

Hilaren 17an lan-saioa eta 24an partidua Eibarrek Bergaran

Eibar Agorrosinen entrenatuko da hurrengo barikuan. Bestalde, hainbat lagunarteko zehaztuta dituzte dagoeneko, eta bat Bergaran izango da. Mendilibarren taldeak Real Union izango du aurkari hilaren 24an, 19:00etan: Bergarako jokalariek doan izango dute sarrera; gazteek 5 euroren truke, eta 15 eurotan gainerakoek.



Hasier Oleaga, Mikel Andueza, Baptiste Techer, Ainara Ortega, Javier Mayor eta Iñaki Salvador estudioan. | AINARA ORTEGA

Bergararren ahots ezaguna, jazz doinuekin ederto josita

Ainara Ortega, Iñaki Salvador, Hasier Oleaga eta Javier Mayor, Espoloiko Berumuga zikloan gaur

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

"Beti esan izan dut Bergara nire bigarren herria dela eta bertan erroldatu beharko nukeela. Aita Incansables txarangako *Kanario* da, eta urteetako harremana du Bergararekin; aurreko domekan ere, Bergarako San Martzial jaietan izan zen. Aitaren bitartez ezagutu izan ditut, besteak beste, herriko musikariak; horien artean, harreman handia dut Alfredo Gonzalez Chirlaquerekin, Bergarako Orkestrako zuzendariarekin. Gabonetan eta Inauterietan egin izan dituzten hainbat kontzertutan eurekin kantatzera gonbidatu izan naute." Ainara Ortega jazz abeslariaren hitzak dira horiek. Berumuga musika zikloaren barruan, Espoloian izango da gaur, egubakoitza, 22:00etan.

Laukote formatuan egingo du gaurkoa, puntako musikariak alboan dituela: Iñaki Salvador, pianoan; Hasier Oleaga, baterian; eta Javier Mayor, kontrabaxuan.

"Duela hamar urte hasi ginen elkarrekin jotzen. Nire bigarren familia dira. Oso ondo ezagutzen dugu elkar; Espoloira hurbiltzen direnek sumatuko dute segituan".

'Scat' diskoaren aurkezpena

Orain dela hilabete gutxi kalera zuten *Scat* diskoa aurkeztuko dute gaur, orain arte inon erakutsi ez dutena. "Hauxe da nire azkeneko diskoa, eta, modu baten, lehenengoa ere bai. Lagunekin batera atera badut ere, orain arte egin dudana proiektu pertsonalena da. Urte mordoa kostatu zait; arrazoi ekonomikoak eta denbora faltarengatik atzeratu egin da. Sekulako laguntza ere izan dut, ekonomikoa eta morala ere bai. Oso kontentu gaude diskoa Bergaran estreinatuko dugulako".

ESANAK

"Orain arte egin dudana proiektu pertsonalena da 'Scat', ohiko taldekideekin batera atera badut ere"

AINARA ORTEGA | MUSIKARIA

Lan berriaren izenburuari erreparaturaz, jazzetik asko duela suma daiteke. "*Scat*-ak jazzean ohikoak diren inprobisazio bokaletan erabiltzen diren keinu edo jolasak dira. Hasieratik genuen jazz disko bat egiteko asmoarekin bat dator bete-betean. Beste musikari batzuei ez moduan, asko gustatzen zait egiten dudana musikari etiketak jartzea. Emaizta musikala uste baino oparoagoa izan da, jazzaz gain beste erritmo batzuk ere loratu dira-eta. Jendeak esan dit autorretratu polita atera dela".

Protagonista nagusia Ainara Ortega bada ere, taldekideek diskoaren azalean lekua izan behar zutela argi zuela dio: Iñaki Salvador, Hasier Oleaga eta Javier Mayor dira Ortegaren taldekideak. Puntako kolaboratzaileak ere izan dituzte: Mikel Andueza (saxoa), Baptiste Techer (tronboia) eta Amaia Zubiria.

Bost hizkuntzatan kantatuta

Euskaraz eta gaztelerez gainera, ingelesez eta "asko maite duen" portugaleraz ere abesten du. Horiez gainera, inprobisazio-bokal horiek bosgarren hizkuntzat ere har daitezkeela dio.

Zeri kantatzen dion galdetuta, hau dio: "Jazzeko letrak, zorionez, ez ditugu larregi ulertzen". *Scat*-en, bi kantu konposatu ditu: "Gaztelera oso ironikoa da eta euskarazkoa, berriz, hunkigarriagoa, falta ditugun euskal kantariei eskainitakoa. Gainontzekoak *bertsonatutakoak* dira".

Zeri kantatzen dion galdetuta, hau dio: "Jazzeko letrak, zorionez, ez ditugu larregi ulertzen". *Scat*-en, bi kantu konposatu ditu: "Gaztelera oso ironikoa da eta euskarazkoa, berriz, hunkigarriagoa, falta ditugun euskal kantariei eskainitakoa. Gainontzekoak *bertsonatutakoak* dira".

Lasai-lasai jarrita entzuteko

Taularen gainean gozatzeko asmoz datorrela dio, eta, duda barik, bergararrei tarte musikal goxoa eskaintzera. "Nire egin beharra kantatzea da, baina baliteke musika tresnaren bat ere ateratzea. Publikoarekin *feedback*-a izatea gustatzen zaigu, taularen bi aldean arteko muga apurtzen saiatzen gara. Askok gustatzen zait jendeak nirekin batera kantuan egiten duenean, eta, dantzan egitera animatuz gero, ni pozik. Iruditzen zait, baina, jarrita ikusteko kontzertua izan daitekeela gaurkoa".



Sun magoa. | ANIMAGIC

Sun magoaren ikuskizun misterioitsua

A. A. | ARRASATE

Pertsonak agerrarazi eta desagerrarazi; urez betetako kutxan lotuta dagoela askatu eta kutxatik modu harrigarrian atera; sutan dagoen sokatik maisutasunez zintzilikatu; lurretik hainbat metrotara lebitatu... Horiek guztiak egiteko abilezia itzela duela erakutsi izan du Gasteizko Sun magoak sarritan.

Amaia antzokian izan zen orain dela urte batzuk, eta domekan Arrasaten izango da berriz ere; orain, Uda-zabal programaren barruan, domekan, 20:00etan, Seber Altube plazan -euria bada, Biteri plazan.

Ikuskizun berria

Publiko guztiarentzako saioa prestatu du Sun magoak domekarako: "Nire ikuskizunetan ikusleak izan dira beti protagonista nagusiak, orain arte egin ditudanetan eta estreinatutako berria dudana honetan ere bai. Misterioarekin eta estetika zainduarekin lagunduta, itxura baten ezinezkoa denarekin ordubetez amets egiteko gonbidapena egin nahi dizuet, beste behin".

Estatuko onenetakoa

2011n jaso zuen Sari Nazionalak eta orain dela gutxi eskuratu duen Almussafes sariak onenen artean kokatzen dute Gasteizkoa. Askotariko magia erakustaldiak egin izan ditu, herriz herriko birez gainera: Laboral Kutxa saskibaloitza taldearekin elkarlanean sortutakoak eta hainbat telebistatan egindakoak, besteak beste. TVEn grabatu berri du azkena, oraingo astean.

ESANAK

"Ikusleak dira protagonista nagusiak nire ikuskizunean"

SUN MAGOA | MAGOA

Lapurdikoko EHZ jaialdian Debagoieneko musikazaleak

Lekornen egin zuten 20. Euskal Herria Zuzenean jaialdia, aurreko asteburuan. Askotariko kontzertu eta bestelako ekitaldien aitzakian, mugaren bi aldeetako euskaldunen topagune izan da aurtengoa ere. Bergarako kuadrilla batek argazki bitxia bidali du, eta, horrez gainera, gaurko PUNTUA aldizkarian jaialdiaren kronika egin dute.



ANDER BOLIBAR

Andoni Urzelai | Idazlea

"Erokeriari buruzko istorioa da 'Demencia', eta 'reality' batean kokatzen da"

Idazle aretxabaletarrak duela hamar urte idatzi zuen eleberria publikatu du orain, bere hirugarrena

MAITE TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Demencia izeneko eleberria publikatu berri du Andoni Urzelai (Aretxabaleta, 1967) Baile del Sol argitaletxearekin. Argitaratu duen hirugarren liburua da, *Haginkada* (2002) eta *Zirkulua* lanen (2014) ostean.

Zeri buruzkoa da *Demencia*?

Galdera zaila. Erokeriari buruzkoa. Protagonistak demenzia gaixotasuna dauka, eta telebistako *reality* batean kokatzen da. Baina guztia pertsonaiaren irudipena da, ez da benetan gertatzen.

Duela hamar urte inguru idatzi nuen nobela hau. Zerbait argitaletxetara bidali nuen, eta, azkenean, Baile del Solek baietz esan zidan duela bi urte. Prozesu hau oso motela izaten da, are gehiago erdal munduan. Euskarazkoan azkarragoa izaten da, eta argitaletxearekin harremana ere zuzenagoa da.

Ez dakit zergatik hasi nintzen ere azken eleberri hau gazteleraz idazten, ia jolasa balitz bezala izan zen.



Afizioz idazten du Urzelai. | A. URZELAI

Zein publiko motari zuzendutako liburua da?

Nobela arrunt bat da, baina ez nuke esango erraza denik. Beraz, normalean irakurtzen duen jendearentzat, agian. Baina, gainontzean, edonori zuzenduta dago.

Idatzi zenuenetik argitaratu arte pasa den denbora honetan, zure ikuspuntua aldatu egin da?

Bai, noski. Hori nobela guztiarekin gertatzen da. Nobela batek urte batetik gorako lana eskatzen du,

eta idazten hasten zaren egunetik bukatzen duzunera bitartean, gauzak asko aldatzen dira. Baina heltzen da puntu bat non idatzitakoari bukaera eman behar diotzun. Ezin zara uneoro berrikusten eta aldatzen ibili, horrek guztia berridaztea eskatuko luke eta. Nahiz eta gero, bi urte barru berriro irakurri eta esan: ene, zer da hau?

Aurkezpenik egingo duzu?

Egia esan, ez. Argitaletxea arduratuko da euren kritikoei bidaltzen, baina nik ez dut, oraingo, aurkezpenik aurreikusi. Jendea gustatuz gero egingo du bere bidea. Behin publikatutakoan, horrek ez nau askorik kezkatzen. Gero, arrakasta izaten badu, ondoetorria, noski.

Baduzu beste proiektu berririk esku artean?

Egia esan, *Demencia* argitaletxetara bidaltzean, ez nuen erantzunik jaso denbora luzez, eta esan nuen: ba ez dut berriro euskaraz idatziko gazteleraz publikatu arte! Orduan, beste bi eleberri idatzi nituen gazteleraz. Beraz, orain horiek ere dantzan dabilza argitaletxe batetik bestera. Eta horretaz gain, orain, euskarazko ipuin liburu batekin ari naiz.

Idazteko orduan helburu edo eperik jartzen diozu zure buruari?

Ez, ni ez naiz horren profesionala, nik gustatzen zaidalako eta behar dudalako idazten dut. Gainera, idazten hastean ez dut inoiz jakiten nondik nora joango den istorioa. Ideia oso primario batekin hasten naiz.

Txirri, Mirri eta Txiribiton bisitan etorriko dira Aretxabaletara

M. T. | ARETXABALETA

Pailazo hirukote ezaguna Arkupe kultura etxean izango da domekan, uztailak 12, arratsaldeko bostetatik aurrera, Aretxabaletako eta inguruetako ume eta ez hain umeei barre eginarazi eta ondo pasarazteko. Sarrerak 3 eurotan daude salgai kultura etxean bertan.

Musde Kakamokordo izeneko pertsonaia gaiztoari egin beharko diote aurre hiru pailazoez oraingo honetan. Hari aurka egiteko "Txutxupe!" oihukatu beharko dute ahalik eta ozenen eta Arkupera bertaratzen den ikusleen laguntzarekin.

Pasa den abenduan hasi zen hirukotea *Txutxupe* ikuskizun berriaren birarekin.

Ibilbide luze eta oparoa

43 urte daramatzate Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoez Euskal Herrian zehar herriz herri umeak entretenitzen. 1972an, hasi zirenean, euskarazko lehen pailazo taldea izan ziren. Hala ere, beti ez dira pertsona berdinak egon sudur gorrien atzean.

Xabier Otaegi (Txirri), Jose Inazio Antsorena (Mirri) eta Txema Vitoria (Txiribiton) 2013an erretiratu ziren, eta, hurrenez hurren, Fernando Ruizek, Kattalin Antsorenak -Inazio Antsorenaren alaba- eta Juanma Zalduak hartu zieten erreleboa. Orain, hasierako *Junior* abizena galduta, ikusleak alaitzen jarraitzen dute han-hemenka.



Lehen aldiz egingo dute *Txutxupe* Debagoiengan. | ARITZ ETXEBERRIA

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Maialen Martínez Nanclares
Uztailaren 15ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Oso-oso ondo pasatu zure egunean eta musu asko etxeko guztien eta, bereziki, zure ahizpa Haizearen partetik!



OÑATI
Luka Galdos Etxeberria
Uztailaren 14an, 5 urte.
Gure mutiko handiak 5 urte! Zorionak, pottoko!



ANTZUOLA
Xabi Alonso
Uztailaren 12an, 9 urte.
Zorionak eta egun ederra pasatu igandean zure familiarekin. Muxu pilo aitzaxoren, amatxoren eta zure arreba Maddiren partetik.



ARRASATE
Oier Urkizu Pildain
Uztailaren 12an, 2 urte.
Etxeko eta familiako guztien partetik, zorionak!



ARETXABALETA
Markel Elorzia Iturri
Uztailaren 11n, 5 urte.
Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren eta, bereziki, tia Kontxiren partetik.



OÑATI
Izar eta Ion Alzelai
Izarrek uztailaren 11n, 2 urte eta aitaxo lonek uztailaren 14an, 39 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunak! Patxo handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Ane Sagastume
Uztailaren 10ean, 6 urte.
Zorionak, *prexioki!*
Jarraitu zaren bezelakoa izaten. Alaia, txintxo eta maitagarria. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko partetik. Mua!



OÑATI
Urko Garitano Urzelai
Uztailaren 10ean, 2 urte.
Zorionak, txapeldun!
Mila muxu familiaren eta, bereziki, horrenbeste maite zaituzten amatxoren eta aitaxoren partetik.



ARRASATE
Manex Muñoz Umerez
Uztailaren 10ean, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu potolo bat etxeko eta, bereziki, Naiararen, Nerearen, Eiderren eta Urkoren partetik.



BERGARA
Martin Lazkano Bilbao
Uztailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, Martin! Patxo pila-pila, etxeko danon partetik! Muak!



OÑATI
Alix Biain Ugarte
Uztailaren 9an, 4 urte.
Zorionak, Alix, zure laugarren urtebetetzian, familixako danen partetik. Oso ondo pasatu eguna, potxola!



BERGARA
Ekaitz Unamuno Marzan
Uztailaren 9an, 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako, txapeldun. Lau tirakada zuretzat, denon partetik. Batez ere Julenek, aitaxok eta amatxok. Muxu bat.



ARRASATE
Nahia Ruiz eta Miren Corbacho
Nahiak uztailaren 9an, 3 urte eta Mirenek uztailaren 11n, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesak! Disfrutatu zuen egunak alaittasun txispa horrekin! Muxu asko etxeko partetik. Maite zaituztegu, maittiak.



ARETXABALETA
Oier Oroiz Antoñana
Uztailaren 8an, 3 urte.
Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Marenen, Naiararen eta Nerearen partetik.



ARRASATE
Jone Aranburuzabala Loiti
Uztailaren 8an, 8 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARRASATE
Eñaut Labayen Marin
Uztailaren 8an, 2 urte.
Zorionak, Eñaut! Ze ondo aitaren besoetan! Muxu handi bat familiako partetik eta eskerrik asko zure alaitasunagatik!



ARRASATE
Aitziber Jimenez
Uztailaren 8an, Urtebetetzea. Zorionak, Aitzi! Peña Himalayaren partetik, ondo pasatu zure egunean eta gogoratu: tragotxo bat gonbidatu, potxoli!



BERGARA
Jone Arrieta
Uztailaren 7an, 11 urte.
Zorionak, "Beckenbauer" txiki! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Besarkada handia eta muxu pila familia guztiaren partetik. Batez ere Markelena.



BERGARA
Achille Rocafort
Uztailaren 6an, txupinazoarekin batera, heldu zinen orain dela urtebete! Bizitzak gauza onak ekar diezazkizula, bihotza! Zorionak familia guztiaren partetik.



ANTZUOLA
Ainara Echezarreta
Uztailaren 6an, 4 urte. Urte askotarako, pintzesa. Merienda goxo-goxua prestatu. Muxu handi bat etxeko danon eta, batez be, Aitziberren, Eleneren, Iratiren eta Aitorren partetik.



OÑATI
Odei Palacin Aldea
Uztailaren 4an, 8 urte.
Zorionak, Odei! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Askok egongo gara eta... zortzi patxo handi, danon partetik.



ARETXABALETA
Magali Arriola Uralde
Uztailaren 3an, urtebete. Zorionak etxeko printzesa ttikienari! Hamaika mila patxo familia guztiaren eta, bereziki, Eleneren, Aimarren, Aitorren eta Eisiren partetik!



BERGARA
Markel Larrañaga Fernandez
Ekainaren 30ean, 5 urte.
Zorionak, mutil handi! Belarritik bost tirakada eta patxo potolo bat etxeko partetik.



BERGARA
Julio Unamuno
Ekainaren 30an, Urtebetetzea. Zorionak, senideen izenean!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Ajo (Kantabria). Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Garajea eta igerilekuarekin. Hondartza gertu. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 607 41 14 43

Arrasate. Erdialdean apartamentu kapritxosoa ematen da errentan. Berria da. Logela, bainugela, sukaldia eta egongela. Trasteleku ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 639 17 49 52

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Ilogailuarekin. Deitu 21:00etatik aurrera mesedez telefono zenbaki honetara: 943 76 03 79

Pineda (Tarragona). 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabete tarifik. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, erdigunean. Pertsona bakarrentzat izango litzateke; beraz, etxebizitza txiki batekin nahikoa da. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 618 28 91 28

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 645 01 05 84

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400 euro ordain ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 80 64 92

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gizon arduratsua eta ez erretzaileak logela errentan hartu nahiko luke. Presazkoa da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 00 86 55

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. Hilean 250 euro, gastuak barne. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 699 78 87 36

Arrasate. Neska errentan hartzeko logela bila. Bertako pertsonekin. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Gipuzkoa. Bikote batek logela behar du errentan. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 666 20 06 03

Oñati. Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 656 74 29 49

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Gazteentzako lokala. 17 urteko neskek gara eta Arrasaten lokal bila gabiltza. Deitu 647 08 97 14 edo 660 01 98 07 telefono zenbakietara.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA
Urdaitegi/janari dendarako saltzailea behar da
615 78 45 75

BERGARA
Ile-apaintzailea behar da.
656 71 16 64

Arrasate. Gizon euskalduna behar da asteburuetan pertsona batekin egoteko. Gidabaimena duena, alaita eta hizlaria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 70 23 90

Oñati. Etxeko garbiketa lanak egiteko pertsona euskaldun baten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 14 06 57

402. ESKAERAK

Arrasate, Bergara edo Oñati. Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. Bergarako emakumea gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Informeak ditut. 610 34 97 88

Bergara. Haurrak zaintzeko prest. Neska euskalduna naiz eta haur hezkuntzako ikasketak egin ditut. Irailtik aurrera has-teko. Nerea. 615 72 47 59

Bergara. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten ari naiz. 686 61 29 99

Debagoiena. Etxean bertan bizizaten edo ordula lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Deitu zenbaki honetara: 632 19 38 74

Debagoiena. Etxean bertan bizizaten edo ordula lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 632 19 38 74

Debagoiena. Etxean bertan bizizaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen. 622 59 39 87

Debagoiena. Etxeko lan eta garbiketarako egingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688 65 10 22

Debagoiena. Etxeko lan eta garbiketarako egiteko gertu nago. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688 65 04 56 edo 943 25 34 17

Debagoiena. Garbiketan, erakuntzan, margoketan eta abar-rean lan egingo nuke. 609 63 38 21

Debagoiena. Gizon langile eta arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, lorezain lanetarako eta etxe edo baserriak zaintzeko. 634 14 36 65

Debagoiena. Lan egiteko gertu, lorategi mantenuan edo margo peoi moduan. 943 79 82 43

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa egin eta abarretarako. Etxean bizizaten, egun osoz edo orduka. 688 48 47 76

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

704. BESTELAKOAK

Podenco Andaluz txakurra. Bergarako San Martzial auzoan Podenco Andaluz arrazako txakurra agertu zen orain bizpahiru hilabete. Ernea da eta marroi argi kolorekoa. Jabeak deitu dezala zenbaki hauetara: 943 76 37 58 edo 608 03 51 93 (Asun)

Txoria galdu Aretxabaletan.

Txoria, Agaporni espeziekoa, galdu zen ekainaren 22an. Berdea eta laranja da eta 'Hiart' jartzen duen eratzuna dauka eskumako hankan. Otzana da eta jendearrekin egoten ohituta dago. Aurkitu edo ikusi baduzu, eskertuko genuke deitzea. 615 78 08 18 (Manu)

8. DENETARIK

802. EROSI

Klarinetea. Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 39 20 87 Ines

803. EMAN

Bidaizetako sehaska. Ume txikiendako bidaizetako sehaska ematen da opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 74 24 78

804. HARTU

Bizikleta. Lau urteko umearendako bizikleta emateko moduan izanez gero, guk gustura hartuko genuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 74 24 78

806. GALDU

Graduatutako betaurrekoak. Aretxabaletako plazatik Txarapearako bidean galdu nituen, ekainaren 4an, eguenez. Beltzak dira eta zorro baten barruan zeuden. Aurkitu badituzu, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 615 75 52 75

Telefonoa Aretxabaletan. Mugikorra galdu dut Aretxabaletan erdialdean. Txikia, txuria eta tapaduna. Aurkitu baduzu deitu, mesedez, zenbaki honetara: 665 70 69 01

Zetazko zapia. Juan Gattiren zetazko zapi gorri bat galdu nuen Bergaran, ekainaren 8an, plazatik geltokirako bidean. Zapi handia da eta garezur baten irudia dauka. 626 12 95 07

808. BESTELAKOAK

Trikitia. Trikitia hartuko nuke errentan. 659 76 08 81

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume eta nagusiak zaindu edo taberna, atari eta abarrak garbitzen. Etxean bertan bizizaten, egun osoz zein orduka. 631 28 22 03

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako prest. 606 50 25 67

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizizaten. Esperientziaduna. 632 85 03 84

Debagoiena. Umeetan nagusien zaintzan, tabernan, sukaldian, garbiketan eta abar-rean lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizizaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Esperientzia dut eta oso langilea naiz. Isabel. 647 10 58 72

Emakume euskalduna. Emakume euskalduna garbiketarako egiteko prest. Etxebizitza, atariak, tabernak eta abar. Baita etxetean janaria gertatzeko prest denborarik ez duten edo ezinean dabilzan pertsonen. Sukaldaria naiz eta eskarmentua dut hainbat gauzatan. 690 86 46 80

Emakume lanerako prest. Emakume gaztea etxetean garbiketarako egin eta haurrak zein adinekoko pertsonak zaintzeko prest. Esperientzia. Telefonoa: 632 44 92 85

Haurrak zaintzeko gertu. Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko irailtik aurrera. Irakasle ikasketekin eta umeekin esperientzia duena. 690 64 98 81

Masajista. Tituludun masajistak ileapaindegi edota estetika zentroren batean lan egingo luke, autonomo moduan edo kontratuarekin. 622 64 78 64

Sasi garbiketarako. Mutil euskalduna desbrozadora lanak egiteko prest. Pinudi, pista zelai edo zelaietan lan egiteko prest. 658 73 79 02

Umeen zainketa. 17 urteko neska euskaldun eta arduratsua naiz. Umeak zaintzeko prest nago, bai goizez bai arratsalde. 688 80 24 40

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Irailtik aurrera DBH 4. mailako ikasketekin lagunduko didan norbit behar dut. Batez ere matematikan eta euskararen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 70 58 33

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak opari Oñati. Arratoi txakur kumeak ematen dira opari. Bost aste dituzte eta ama arratoi ehiztari fina da. 616 01 40 17

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onak dituena, nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizizaten, egun osoz zein orduka. Baita asteburuetan ere. 642 03 51 84

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko gertu nago etxean bertan bizizaten, egun osoz zein orduka. 632 46 17 94

Debagoiena. Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko gertu. 646 34 74 35

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako egin eta abar-rean lan egingo nuke. Etxean bertan bizizaten, egun osoz, orduka eta baita asteburuetan ere. 631 49 94 96

Debagoiena. Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta pasean ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbiketara lanak egiteko ere. 695 73 87 95

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketara edo antzeko lanetan jardungo nuke. Etxean bertan bizizaten edo bestela. Lege paperekin. 606 64 16 09

Debagoiena. Neska gertu gauetan pertsonak zaintzeko edo orduka garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 645 58 71 61

Debagoiena. Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketarako egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauetz. 633 84 65 30

Debagoiena. Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi, gaixo edota umeak zaintzeko gertu. Baita orduka ere. 620 23 58 15

MEKANIKARIA

Bergarako enpresa.

Eraikuntzako makinaren mekanikaria behar da. Mekanikari eta elektrizitatean esperientzia. Kamioi-gidabaimenarekin.

Interesatuok, jarri gurekin harremanetan

673 05 03 49

LAN ESKAINTZA ALDI BATERAKO

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA (HIRIGINTZA)

Izena emateko epea: uztailaren 11tik 20ra arte (biak barne).

Oinarri-arauak: Oinarriarauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



Pertsonal Saila

ASTE A GOIENAN



AITOR AGIRIANO

Aramaioko eta Elgetako jaiak

Aurreko asteburuan ospatu zituzten Elgetan Ferixa Nagusiko jaiak eta asteon amaitu dira Aramaiokoak. Hainbat ekitaldi egin dituzte, eta horietan jasotakoak jaien gaineko saio berezian eskainiko ditu Goiena telebistak gaur, egubakoitza.

'Jaiak: Debagoieneko jaiak'
Egubakoitza, 22:00



ENEKO AZKARATE

Ziburuko ikastolari buruzko erreportajea

Debagoienetik Ziburuko ikastolara beste elkartasun keinu bat iritsi da. Kasu honetan, Kaskarotenea ikastola diruz lagundu du Goienak, Klubeko bazkideen ekarpenari esker. Ikastolaren egoerari buruzko erreportajea eskainiko dute asteburuan.

'Kaskarotenea'
Egubakoitza, 18:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 10

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Udakoak
13:30 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Oinein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Erreportajea: Jon Salaberri
18:00 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
18:30 Erreportajea: Jon Salaberri
19:00 Udakoak
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak
23:45 Amaia DJ
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

ZAPATUA, 11

10:00 Amaia DJ
10:30 Pauso bi
11:00 Debagoiena zuzenean
12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
13:45 Zorion Agurrak
14:00 Amaia DJ
14:30 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
15:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Pauso bi
16:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
17:15 Udakoak
17:55 Zorion Agurrak
18:00 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
18:30 Udakoak
19:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Astea iruditan
20:05 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
20:30 Amaia DJ
21:00 Pauso bi
21:30 Udakoak
22:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Astea iruditan
23:00 Amaia DJ
23:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
00:15 Pauso bi

DOMEKA, 12

10:00 Debagoiena zuzenean
11:00 Astea iruditan
11:05 Udakoak
11:30 Amaia DJ
12:00 Ur eta lur
12:30 Udakoak
13:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Astea iruditan
14:05 Udakoak
14:45 Zorion Agurrak
15:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
15:45 Zorion Agurrak
16:00 Udakoak
16:30 Debagoiena zuzenean
17:30 Astea iruditan
17:35 Pauso bi
18:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
19:00 Udakoak
19:40 Zorion Agurrak
19:45 Astea iruditan
20:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
22:00 Amaia DJ
22:30 Pauso bi
23:00 Debagoiena zuzenean
00:00 Astea iruditan
00:05 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna

ASTELEHENA, 13

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Oinein
13:30 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Udakoak
15:35 Oinein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Zorion Agurrak
17:05 Jaiak: Debagoieneko jaiak
18:00 Udakoak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 14

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Zorion Agurrak
13:05 Jaiak: Debagoieneko jaiak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Oinein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Udakoak
17:50 Zorion Agurrak
18:00 Harmailatik
18:30 Berriak
19:00 Pauso bi
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak
23:45 Harmailatik
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

EGUAZTENA, 15

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Udakoak
13:00 Ur eta lur
13:30 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Zorion Agurrak
14:30 Berriak
15:00 Udakoak
15:35 Oinein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
17:50 Ur eta lur
18:30 Berriak
18:55 Zorion Agurrak
19:00 Udakoak
19:30 Amaia DJ
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Pauso bi
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 16

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Pauso bi
13:00 Udakoak
13:30 Harmailatik
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Udakoak
17:25 Ur eta lur
18:00 Udakoak
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Pauso bi
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
23:30 Kaskarotenea:
Debagoienetik elkartasuna
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

GOIENA TELEBISTA

Asteburuko kirol kontuak ikusgai 'Harmailatik' saioan

Bihar, zapatua, Eskoriatzan EskoXtrem mendi bizikleta martxa egingo dute. Domekan, berriz, Antzuola Saria txirrindulari lasterketa izango da. Kirol kontu horiek jasoko dira, hain zuzen, Goiena telebistako *Harmailatik* kirol saioan astelehenean, 22:00etan.

ARRASATE IRRATIA

Teknikariak lanean irratia matxura azkar konpontzeko

Aurreikusitakoa baino matxura handiagoa dauka Arrasate Irratiak, eta teknikariak buru-belarri lanean dabilta arazoa ahalik eta lasterren konpondu ahal izateko eta zuzeneko irratsaioak berreskuratzen. Guztia prest dagoenean itzuliko da berritua uhinetara *Uda giroan* irratsaioa.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Mikel eta Miriam

Mikel Gonzalez eta Miriam Gamba uztailaren 11n ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Bazen ordua! Azkenean, heldu da eguna. Egun ahaztezina pasatuko dugulakoan, zorionak eta muxu handi bat zuen familia guztiaren eta, bereziki, Hodeiren eta Oihanen partetik".



Alberto eta Aroa

Alberto Ramos eta Aroa Molina zapatuan, uztailaren 11n, ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoa. Gero, Zelai Zabal jatetxean ospatuko dute. "Oso ondo pasatu egun honetan eta New Yorken eta Maia Erriberan. Zorionak, lagun partetik!".



Itsaso eta Luis Maria

Itsaso eta Luis uztailaren 10ean ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Mila kilo zorion, bikote! Egun polita izan eta primeran pasatu European zehar egingo dozuen megabidaian! Patxo handi bat, zuen lagun partetik!".



M. Carmen eta Julian

M. Carmen Larrañaga eta Julian Elkoroberezibar bergarrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte uztailaren 15ean. "Familia guztiaren partetik, zorionak bihotzez eta muxu handi bana. Ondo pasatu eguna!".




Julen eta Irati

Larunbatean Julenek eta Iratik euren ezkontza ospatuko dute Gure Ametsa jatetxean eta ondoren Ameriketako Estatu Batuetara joango dira. "Zorionak eta ondo pasatu, lagun partetik!".



Noelia eta Ronald

Noelia Lens eta Ronald Blanco arrasatearrak uztailaren 4an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Egun ahaztezina izan zen. Eskerrik asko! Muxu handi bana, zuen familien eta lagun partetik! Oso ondo pasatu eztei-bidaian!".



URTEURRENA

**Libe
Urizar Larrañaga**

2014ko uztailaren 10ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA


**Eusebi
Beain Biain**

2014ko uztailaren 17an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Antonio
Iza Garmendia**

'Oxanguren'

Bergaran hil zen 2014ko uztailaren 3an, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Etorriko zaretenoi, alde zurretik, mila esker.
Bergaran, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Isidro
Uriarte Biguri**

Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 11n, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Tere
Letamendi Arrazola**

2014ko uztailaren 15ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza hurrengo zapatuan, uztailaren 18an, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Mikel
Pagalday Aguiriano**

2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

*Uzten ditugunen
bihotzetan bizitzea
bizirik jarraitzea da.*

Etxekoak.

Ilgandean, hilak 12, Eskoriatzako San Pedro parrokian, 12:30ean, izango da laugarren urteurreneko meza.

Aldez aurretik, mila esker.
Eskoriatzan, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Jesus
Astobitza Isusi**

2014ko uztailaren 11n hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andra Mariaren parrokian.

*Beti izango zara gure bihotzean.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Urbano
Bengoa Arkauz**

Leintz Gatzagan hil zen 2014ko uztailaren 10ean, 99 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:30ean, Leintz Gatzagako Dorletako amaren elizan.

*Izan zinelako gara,
garelako izango zarete.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Leintz Gatzagan, 2015eko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

**Juan Mari
Lezeta Abasolo**

2014ko uztailaren 4an hil zen, 62 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 10:30ean, Apotzagako Mikel Goiaingeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Eskoriatzan, 2015eko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Hilario
Toledo Lizarralde**

Uztailaren 2an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Lidia
Ecenarro Arostegui**

Uztailaren 2an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

**Ramon
Ugarte Garitaonandia**

Gasteizen hil zen 2015eko uztailaren 5ean.

Eskerrik asko egun honeittan gurekin Ramon gogoratuaz egon zain danoiri.

*Agur, txapeldun
plazer bat izan da.*

Azkarretako famelixia.

Oñatin, 2015eko uztailaren 10ean.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus**

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.**HILDAKOAK****Isabel Maria Sagarmendi Berroz.** Aretxabaletan, uztailaren 1ean. 100 urte.**Rufina Urtzelai Kortabarria.** Oñatin, uztailaren 1ean. 91 urte.**Hilario Toledo Lizarralde.** Bergaran, uztailaren 2an. 80 urte.**Angel Rodriguez San Jose.** Eskoriatzan, uztailaren 2an. 84 urte.**Manuel Tejeiro Barrios.** Arrasaten, uztailaren 4an. 85 urte.**Gaskoi Iñurrieta Leal.** Arrasaten, uztailaren 4an. 34 urte.**Ramon Ugarte Garitaonandia.** Oñatin, uztailaren 5ean.**Piedad Soria Lazpiur.** Bergaran, uztailaren 6an. 89 urte.**Jesusa Arantzeta Askasibar.** Arrasaten, uztailaren 7an. 89 urte.**Josefa Ibarondo Otadui.** Elgetan, uztailaren 8an. 90 urte.**Maria Ibabe Amutxastegi.** Bergaran, uztailaren 8an. 84 urte.**Antonia Bergaretxe Arantzabal.** Arrasaten, uztailaren 9an. 86 urte.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA



TXIRIRIMIRRIETATXIRIBITON.EUS

ARETXABALETA Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak kontu-kontari helduko dira Aretxabaletera. Euren azken ikuskizuna eskainiko dute, eta neska-mutikoekin "txutxu" oihukatuko dute ozen. Sarre-rak leihatlan, hiru eurotan. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.



WWW.REDEATROSNARRA.COM

ARRASATE Sun magoa

Udazabal zikloaren barruan ikuskizun harrigarria eskainiko du Sun magoak. Estetika zaindua erabiltzen duen magoa. Misterioz inguratzen dena. Ezinarekin amets egiten laguntzen duena. Bere ikuskizunean ikus-entzuleak izango dira protagonista nagusiak eta bakarrik.

Etzi, domeka, Seber Altube plazan, 20:00etan.

MUSIKA**ARRASATE** Flamenkoa eta jazz

Antonio Lizana saxofoi-jotzailearen emanaldia. Cadiztik New Yorkerainoko bidaia musikatua egingo du, doan.

Gaur, egubakoitza, Jose Letona plazan, 20:00etan.

BERGARA Ainara Ortega

Berumuga musika zikloan. Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:00etan.

ARAMAIO Nagore eta Txomin

Bikoteak berak sortutako abestiak eta betiko euskal abestiak entzuteko aukera egongo da. Bihar, zapatua, Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.

ARRASATE Los Galerna

Surf musika egiten duen boskote arrasatearraren kontzertua, doan. Bihar, zapatua, Arrasate tabernan, 20:00etan.

OÑATI Gaitzerdi eta Triki Dantz taldeak

Trianako jaietan egingo dute erromeria. Bihar, zapatua, Trianan, 20:30etan eta 22:30etan.

OÑATI Aitor Regueiro

Trianako jaietan egingo du kontzertua bakarlarri oñatiarrak. Etzi, domeka, Trianan, 20:30etan.

BERGARA Flauta kontzertua

Marta Camon Botellaren emanaldia. Uztailaren 14an, osoko billkuren aretoan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK**ARETXABALETA** Pintura ikastaroko lanak

Ainhoa Cabero irakaslearekin pintura ikastarora egin duten ikasleek egindako lanak ikusgai ipini dituzte kultura etxean. Uztailaren 29ra arte, Arkupen.

ESKORIATZA Isabel Guridiren ondarea

Hainbat belaunalditan eskoriatzarrak utzitako arrastoen adibideak batu dituzte. Ibarraundi museoa ikusgai.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILA 10
UZTAILA 16

BERGARA Margolanak

Xabier Guridiren pinturak ipini dituzte ikusgai. Martitzenetik domekara arte zabalik. Aroztegi aretoan, uztailaren 19ra arte.

ELGETA Argazkiak

Los riffs congelados delako argazki bilduma ipini dute ikusgai Espaloian. Uztailaren 25era arte, Espaloian.

OÑATI 'Oñati oroitzapenean'

Oñatiko antzinako 20 argazkiren erakusketa, Ulma taldearen zerbitzu orokorretako harreraren. Ulman, irailaren 14ra arte.

OÑATI Margo erakusketa

Udalak antolatutako pintura ikastaroan parte hartu duten haurren lanen bilduma ikusteko azken egunak. Domekara arte egongo da zabalik. Uztailaren 13ra arte, kultura etxean.

ARRASATE 1940ko hamarkadako Arrasate ikusgai

1945. urtearen bueltako Arrasate erakutsiko dute: bertako denda, fabrika, negozio eta herriko pertsonaia ezagunak. Erakusketa ikusteko azken eguna bihar, zapatua, izango da. Uztailaren 11ra arte, Kulturaten.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanek eta burdinaren kulturak herrian izan duten eragina. Harresi aretoan ikusgai.

JAIK**BERGARA** San Kristobal eguna

Aldaeigia auzoan ospatuko dituzte jaiak. Gaur, egubakoitza, meza ospatuko dute, San Kristobal eguna delako (12:00). Bihar, Obaneuka taldearen erromeria (23:00),

eta etzi, domeka, meza eta, ostean, luntxa (12:00).

Aste bukaeran, Aldaeigia auzoan.

OÑATI Trianako jaiak

Astotrastoren jaitsierarekin hasiko dituzte jaiak, eta askotariko ekintzak egingo dituzte: gaur, egubakoitza, txorimaloen kalejira eta pintxo-potea; bihar, zapatua, umeendako marrazki saioa, mus txapelketa, abentura parkea eta txorimaloen kalejira; eta etzi, domeka, auzoko hildakoen aldeko meza, luntxa eta bazkaria, besteak beste.

Aste bukaeran, Triana auzoan.

OSPAKIZUNAK**OÑATI** San Kristobal eguna

Gidarien patroien aldeko ospakizunak egingo dituzte: 19:00etan San Kristobal irudia jasoko dute Olabarrietan; 19:30ean meza parrokian eta, ostean, ibilgailuen bedeinkapena; eta 21:30ean anaidiko kideen afaria.

Gaur, egubakoitza, aipatutako lekuetan eta orduetan.

DEIA**ANTZUOLA** AKEn urteko batzarra

Urteko kirol eta ekonomia arloko balorazioa egiteko batzartuko dira Antzuola Kirol Elkarteko kideak: lehen deialdia 18:30ean eta bigarrena 19:00etan. Bilera irekia da, ez da bakarrik AKEn bazkideendako; beraz, herritar guztiak daude gonbidatuta. Gaur, egubakoitza, Olaranen, 18:00etan.

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus Unibertsitatea eta Mikel Goiangeruaren parrokia ezagutzeko bisitak: 12:30ean eta 17:00etan, bihar eta etzi. Turismo Bulegoan, aipatutako orduetan.

OÑATI Auzolana Araozko zabortege zaharrean

Garbiketa egingo dute Oñatiko Zero Zabor taldearekin eta ostean bazkaria Saloian. Aurrez izena eman behar da, Udaleko Ingurumen Zerbitzuan (943-78 04 11) edo nekazaritza@onati.eus helbidean. Etzi, domeka, postetxean, 09:00etan.



IRUNERO.COM

OÑATI Luz de Putas, Arraio eta Skarmentu taldeak

Trianako jaietako lehen rock kontzertua egingo dute. Luz de Putas taldeak (goiko irudian) hego Euskal Herrian emango duen kontzertu bakarra da Oñatikoa. Besteak, Iparraldean eta

Katalunian emango dituzte. Ska musikaren influentziak ditu taldeak, baina reggae eta rock doinuak ere bateratuko dituzte Trianan egingo duten emanaldian.

Gaur, egubakoitza, Trianan, 22:30etan.



TORMAGOA.COM

BERGARA Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak
Pailazo hirukoteak *Kontxo, kontxo* antzezlanarekin egingo du umeendako San Martin plazan. Esketx komikoen bilduma egingo du eta neska-muti-

koen parte-hartzea beharko dute horretarako. Euria egiten badu, Seminarioko karpan egingo dute emanaldia. Uztailaren 15ean, aipatutako lekuetan, 19:00etan.

OÑATI 'Busti Zaitex' elkartasan ekintza

Esklerosi anizkoitzaren aldeko sentsibilizazio kanpaina Adem-giren eskutik. Informazioa banatzeko eta materiala saltzeko mahaia ipiniko dute. Etzi, domeka, Foruen plazan, 10:00etan.

OÑATI Estanzazio tailerra

Gaztetxean egingo dute. Uztailaren 15ean, Antixenar, 18:00etan.

OÑATI Herri Eguneko azoka

Parte hartu gura duten artisauen-dako deialdia egin dute dagoeneko. Interesatuak uztailaren 20a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean. Izen-ematea, uztailaren 20a baino lehen.

OÑATI Herri Eguneko taberna kudeatzeko deialdia

Kultura Sailak egin du deialdia. Herri taberna hornitzea eta ustiatzea izango da aurkezten den taldearen ardura. Egun horretan lortutako irabaziak taldearendako izango dira. Gaur, uztailak 10, da eskaera egiteko azken eguna: kultura etxean edo 943-78 03 53 telefonoan. Izen-ematea, kultura etxean.

OÑATI Atzeko kaleko txosna kudeatzeko deialdia

Herri taberna hornitzea eta ustiatzea izango da aurkezten den taldearen ardura. Egun horretako irabaziak taldearendako izango dira. Gaur, uztailak 10, da eskaera egiteko azken eguna: kultura etxean edo 943-78 03 53 telefonoan. Izen-ematea, kultura etxean.

OÑATI Igeriketa ikastaroak eta uretako ekintzak

Hurrengo ikasturtean kiroldegiko igeriketa ikastaroetan edo ur ekintzetan parte hartu gura dutenentzako izen-ematea uztailaren 20an zabalduko dute. Uztailaren 20tik 24ra, kiroldegian.

BESTELAKOAK

OÑATI Ur jolasak

Ur jolasak egingo dituzte San Martinen gaztelekuko kuboko erabiltzaileendako. Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Auto telegidatuak

Auto telegidatuaren erakustaldi bikoitza egingo dute: lehen saioa 11:30ean eta bigarrena 18:00etan. Etzi, domeka, Herriko Plazan, aipatutako orduetan.

OÑATI Mezak Urbian

Uztaileko, abuztuako eta iraileko domeketan meza ospatuko dute Urbiako ermitan, Roman Azkue buru dutela. Domekatan, Urbiako ermitan, 11:30ean.

KIROLA

ARAMAIO Pilota partiduak

San Martin jaietako azken ekitaldia izango da. Lagun arteko partiduak izango dira: benjaminak, alebinak, infantilak, kade-teak, gazteak eta seniorrak ibiliko dira pilotan. Bihar, zapatua, kiroldegian, 10:00etan.

ARRASATE 24 orduko areto futbol txapelketa

Zaldibarko txapelketa jokatuko dute Mondrateren eskutik. Bihar, zapatua, Zaldibarren, egun osoan.

ESKORIATZA 26. EskoXtrem

Zailtasun tekniko eta fisiko handia duen proba izango da: 50 kilometro eta 2.100 metroko desnibela. Interesatuak proba hasi aurretik eman dezakete izena Fernando Eskoriatza plazan. Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 08:30ean.

LITERATURA

OÑATI Literatura eta musika

Literatura eta musika bateratu-ko ditu Maite Arrese aktore eta idazleak emanaldi berezi batean. Amodiozko ipuinak izango ditu hizpide. Uztailaren 15ean, Lazarragan, 19:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Ongi etorri, Amaieramundi' antzezlan

Trapu Zaharra antzerki taldearen antzezlan. Amaia eta haren amona etorriko dira Duranara giza-

kia salbatuko duen estralurtarrak hara iritsiko direlakoan. Uztailaren 15ean, Durana kalean, 19:00etan.

IKUSKIZUNA

ELGETA Dantza-jauziak

Dantza-jauzietan sakontzeko ikastaroa egingo dute uztailaren 20tik 24ra Patxi Monterorekin. Hamar orduko ikastaro aurreratua izango da. Izena emateko: herrixadantzan@gmail.com helbidea edo 943-78 90 70 telefonoa. Uztailaren 20tik 24ra, Elgetan.

HITZALDIA

ARETXABALETA Bihotzeko arazoetan laguntza nola eman

Bihotzeko geldituak, bihotzeko erreanimazio eta masajeak, eta desfibriladorea nola erabili azalduko die Gurutze Gorriko erizain Marina Madariagak. Uztailaren 14ean, Basotxon, 17:30ean.

LEHIAKETAK

BERGARA Udako euskarazko postalak

Postalaren edertasuna, edukia, originaltasuna eta idazkera baloratuko dituzte. Lanak entregatzeko azken eguna irailaren 18a da, Jardunen bulegoan. Irailaren 18ra arte, Jardunen.

OÑATI Jai egitaraurako irudia

San Migel jaietako egitaraua aukeratzeko lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Teknika libre erabiliz Oñatiko jaiak izango dira hizpide nagusi. Informazio gehiago eta arauak Oinai.eus atarian edo kultura.idazkaritza@oinai.eus-en. Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

ARAMAIO Labor bira

Topagunearen eskutik egiten den film laburren XII. zirkuituko filmak erakutsiko dituzte.

Uztailaren 20tik 24ra, Elgetan.

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIOAN

Transcendence
Zapatua: 23:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Tomorrowland
Martitzena eta eguna: 19:00.

EIBAR

ARKUPE

San Andres
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Los Minions
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Terminator Genesis
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Los Minions
Egubakoitza: 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 17:00, 18:50, 20:40.

Magic Mike XXL
Egubakoitza: 17:30,

20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00.

Jurassic world
Egubakoitza: 17:30, 20:00.

Profanacion
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Astelehena: 20:00.

Terminator Genesis
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00.

Espias
Egubakoitza: 17:15.

Aprendiendo a conducir
Egubakoitza: 19:45, 22:30.
Astelehena: 19:45.

Ahora o nunca
Egubakoitza: 18:30.
Astelehena: 17:00.

Elsa & Fred
Egubakoitza: 16:40, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:50, 20:40.

Una segunda madre
Egubakoitza: 17:15, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:15, 19:45.

Campanilla y la leyenda de la bestia
Zapatua eta domeka:

12:00.

Minusculo
Zapatua eta domeka: 12:00.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

Terminator Genesis
Egubakoitza eta zapatua: 23:20.
Egubakoitza: 17:00, 18:00, 19:40, 20:40, 22:20.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 19:00.
Domeka: 21:50.

Terminator Genesis 3D
Egubakoitza eta zapatua: 21:50.
Domeka eta astelehena: 19:00.

Magic Mike XXL
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.

Los Minions
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:30.
Egubakoitza: 17:00, 18:00, 19:10, 20:10, 20:50, 21:20, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:50.

Los Minions 3D
Egubakoitza: 18:40.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:30.

Jurassic world
Egubakoitza:

egunera: 17:30, 20:00, 22:30.

Jurassic world 3D
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitza: 17:00.

San Andres
Egubakoitza: 17:40, 20:00.

Ahora o nunca
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:30.

Espias
Egubakoitza: 19:30, 22:00.

Asesinos inocentes
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Egubakoitza: 22:00.

No molestar
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Astelehena: 17:00.

Insidios
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.

Campanilla y la leyenda de la bestia
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:40.

La oveja Shaun
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:35.

Tomorrowland
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:45.

KRITIKA

Fundamentalismoari buruz

Sidi Mouden Casablanca hiriburuko kanpoaldeko auzo bat da. Han bizi direnek baliabide gutxi dituzte eta haurrek bizi duten giroa nahiko zakarra da. Badago futbolearen jokatzeko gustatzen zaion haur taldea, baina lehiak beti liskarrean bukatzen dira. Taldeko kideetako baten anaia beti horien defentsan ateratzen da. Babes-sena ez du inoiz galduko. Urteek aurrera egin ahala anaia heldua droga salerosketan eta gatazketan sartuko da. Kartzelatik zeharo aldatuta aterako da: aurpegi hieratikoa, familiarik aldentuta eta fundamentalismo islamdarreko taldeko kide izaten. Anaia txikia ere talde horren eraginean eroriko da. Hortik aurrera taldeak pertsonak bereganatzeko eta Jainkoaren izena euren etekinerako nola erabiltzen duten ikusiko dugu. Hori horrela, obediencia itsuaren eta lehen aipatutako babes-senaren arteko borroka sortuko da.

Los Caballos de Dios-ek ondo islatzen ditu pertsonaien egoera desberdinak. Anaia helduaren izaera liskargilea, anaia gazteak helduarenganako

LOSCABALLOSDEDIOS ★★★★★

Zuzendaria: Nabil Ayouch

Herrialdea: Maroko.

Aktoreak: Abdelhakim Rachid, Abdelillah Rachid, Ahmed El drissi.

sentitzen duen miresmena, gazteak bere lagun minarekin dituen harremanak edo neska batenganako duen erakarpena. Era berean, ikusten da emakumeek jasaten duten babes itogarria. Mundu nahiko itxia da eta hor mugitzen dira fundamentalistak euren helburuak lortzeko jendea erreklutatzen. Sinesgarria egiten zaigu lehen zati osoa. Den den, bukaeran ezer berria ez ikustearen sentsazioa geratzen da. Elipsi handi bat dago anaia heldua kartzelan pasatutako denbora azaltzeko. Zeharo aldatuta ikusten dugu, baina ez dugu ikusten nola lortu den aldaketa hori. Anaia gazteak jasaten duen heziketa bereziaren bitartez helduko zaigu: entrenamendu fisikoak, otoitzak... Baina motz geratzen da. Erakusten denak ez du sinesgarri bihurtzen mutilak jasaten duen aldaketa, hori lortzeko zerbait indartsuagoa egon behar dela esango nuke.

ANTONIO ZABALA

Tarta baten zozketa Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Mujika
gozotegiko
bavarois-tarta.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-07-10

BUKATZEKO

Ilargi betea lagun, Oñatitik Lizarrara

- Txantxiku Mendigoizale Taldeak urtero egiten du oinez 70 kilometro inguruko ibilaldia, maiatzean
- 24. aldiz egin dute aurten eta dagoeneko datorren urtekoa gertatzen hasi gura dute, berezia izan dadin

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Ilargi betearen argitasuna lagun, linternak esku artean hartu eta goizaldeko hiruretan abiatzen dira Oñatitik Lizarrarantz. Txantxiku Mendigoizale Taldeko kideak dira, eta horien artean daude German Losada, Jose Manuel Molinero eta Luis Mari Maiztegi. Maiatzean egin izan dute ibilaldia, baita aurten ere. "1988an egin zuten lehen saiakera, eta ondoren beste bi bider, baina ez ziren iritsi", dio Losadak. "Jose Antonio Yaniz izan zen bultzatzailea, Antzin herrian jaioa. Antza, garai baten nafar ikazkinak etortzen ziren Aizkorri aldera ikatza egitera, eta, horregatik, Ikazkinen Ibilbidea du izena ibilbide horrek. Eta hari bururatu zitzaion alde-rantzizkoa egitea. 1991n bai, orduan iritsi ginen", dio Losadak. Urtailearen 18an egin zuten irteera, eta, izugarritzko beroa pasatu zuten, maiatzera aldatzea erabaki zuten.

Gogorak Urbia eta Lokiz

Aurtengoa 24.a izan da eta 23 lagunek egin dute. Oñatitik bi bakarrik irten ziren, Jabier Kortabarria eta Juan Mari Urrate, eta gainerakoak Arian elkartu zitzaizkien. Urte hauetan gutxi aldatu da ibil-



Ganuzarako jaitsiera inguruan aurten Oñatiko kuadrilla. | TXANTXIKU MENDIGOIZALE TALDEA

bidea. Oñatitik Artzanburura igotzen dira, eta Urbiatik bueltan Begibakarraren txabolara jo. "Hain zuzen, lehenengo zati hori da gogorrena, aldapan gora iluntasunean, baina ikusgarriena ere bai, ilaran joan izan gara-eta linternak eskuan", dio Losadak. Handik Araiara jaisten dira, autobidea eta trenbidea pasatu eta Ilarduira; Urbasako Legaire portura igotzen eta Eulateko haizetatik behera Eulate herriraino iritsi. Eka-

lara jaitsi ondoren Lokiz gainera igotzen dira. "Oso paraje beroa da eta eguerdi-eguerdian eguzkiak ondo berotzen du. Gainera, sugorri-habien tokia da, eta asko egoten dira", dio Molinerok. Lokizko portutik pasatu eta Ganuzara jaisten dira. "Benetan jaitsiera ikusgarria da, behetik begiratuta biderik ere ez da ikusten". Zubelkira jotzen dute handik: "Badirudi iritsi garela orduan, baina... bai zera! Oraindik Lizarraraino

bi ordu geratzen dira, eta, laua izan arren, oso luze egiten da". 70 kilometro inguru egin ondoren, 19:00 aldera iristen dira Lizarrako autobus geltokira. Eta behin bukatuta, Antzina jotzen dute afaltzera: "Iribia jatetxean bikain hartzen gaituzte, eta a zelako aforriak egiten ditugun! Gonzalo eta Kontxi ugazabei eskerrik asko guztiagatik!".

Oilaskoak eta 'Galdu' txakurra

Zelan ez, hamaika anekdota dituzte kontatzeko, guztiak ondo gogoan: "Eulatera 12:00 inguruan iristen gara, bazkaltzeko. Bigarren urtean bururatu zitzaigun oilaskoak gertatzea Oñatiko Makalena elkartearen lapikoa autobusean bidaltzea. Iritsitakoan zabaldu eta hondatuta zegoen guztia! Lapikoa eskutan eraman behar izan genuen gero ezer jan barik...".

Beste behin, txakur batekin egin zuten topo Araiara bidean: "Gaztea eta polita zen. Galdu jarri genion izena eta gurekin joan zen Lizarraraino; jota iritsi zen koitadua!", diote.

Datorren urtean 25. aldiz egingo dute ilargipeko ibilaldia, eta zilarrezko ezteiak behar bezala ospatu gura dituzte, zerbait berezia eginda.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Donostiatik

Donostian izango dituzte datozten lau urteotan ardurak. Gipuzkoako Bide Azpiegiturako diputatu kargua hartzeko hiri-burura joan behar izan dut, gipuzkoar guztion beharren alde lan egitera. Foru Aldundiaren erakundeari zor diodan errespetuz arituko naiz nire egiteko berrian, baina batez ere gipuzkoar guztiei didan errespetuz. Gardentasuna, kudeaketa ona eta, batez ere, herritarrengandik ahalik eta gertuen egotea dira nire eta Foru Gobernu berriaren ardatz. Gure helburua ez da liskarra sortzea, irtenbideak bilatzea eta gipuzkoarrok merezi dugun giro baketsuan Gipuzkoa aitzindari izatea baizik.

Badira ia bost urte GOIENAREN kolaboratzaile naizela, eta, nire jaioterria Errenteria izan arren, erabateko debagoiendar sentitu naiz azken 20 urteotan Bergaran. Debagoienetik Donostiara joan arren, jakizue Donostiatik Debagoienara egunero etortzen naizela, Bergarara, nire etxera, nire eskualdera. Egun hauetan zorion asko jaso ditut, baina batez ere eskaera bat izan da errepikatua: Deskargako errepidea lehenbailehen bukatzea. Jakizue, bada, diputatu bezala nire lehentasuna ere gurean dagoela, Deskargako errepidea behar bezala bukatzea.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

lanerako gertu!

2015-2016

Oñati gestio heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula

uztailaren 16tik 21era

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrial • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Mekatronika Industrial
www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09	www.mondragon.edu/gmhz gmhz.mgpe@mondragon.edu 943 73 97 65